Bizidunak eta bizigabeak, kontsonantez bukatzen diranak, urrenez urren, *seme* eta *mendi* bezala deklinatzen dira; bokalaz bukatzen diranak berriz, *gizon* eta *haran* bezala. Hala dirudi baiñan ez da hala. Izan ere —ai-ei-oi-ui-au-eu—, diptongoz bukatzen diranak, mahai, zelai, hogeia eta sei bezala, nahiz eta bokalaz bukatu, kontsonantez bukatzen diranak bezala deklinatzen baitira!

Egia da, gero eta gehiago idazten dala *hogeian*, *seian*, *mahaian*,... baiñan, «haran» bezala deklinatzea litzake onena: *hogeiean*, *zelaiean*, *mahaiean*, *gauean* eta *abar*...

Halere, ba da hitzik, guretzat diptongo izanik bestaldekoentzat hiato danik. Adibidez: *nai*, *nahi*. Guk: *naiean*; haiek: *nahian*. Badirudi, batasunak honela galdegini, guk ere *nahian* egin behar genukeana, eta ez *naiean*.

Hitz horrezaz esan duguna, berdin esan diteke beste zenbait hitzez.

Ez da aspaldi oraindik hasiak gerala idazten: *anima-en* egunean, *eliz-ea*; eta determinado pluralean: *emakume-k*, *emakume-z*, *seme-i* eta beste asko horrelakorik. Ez bide gera ohartu, orain arte beti; fonetika legeek horrela galdegini,  $a + a = a$ ;  $a + e = e$ ;  $e + e = ee$  zala.

Honela *aita -a-* organikaduna, ez da determinado pluralean, *aita + ak = aitaak*, *aitak* baiño.

*Arima*, ez da determinado pluralean *Arima + en = arimaen*; *arima + ek = arimaek*... *arimen*, *arimek*... eta abar baiño:

Determinadu pluralean eta hitzak bukaera «e» duanean, hitzak ez du bere «e» hori, desinentziaren beste *e* batez txoke egiten duanean galtzen, gordetzen baiño. Honela: *emakume + ek = emakumek* ez da, *emakumee* baiño.

Deklinazio hontan ikus ditekenez eta denok dakizutenez, ez dira berdin deklinatzen bizigabeak eta bizidunak. Ba da besterik ere: bai bizidunak eta bai bizigabeak, batzuek kontsonantez bukatzen dira, bokalaz beste batzuek. Bokalaz bukatzen diranak, asko eta asko *a-z* bukatzen da. Nahaste haundi bat sortu baita aspaldi hontan puntu hontan, jakin beharko genuke zein hitz dan bukatzen *a' z*, zein ez. Hots, *neskatxa* ala *neskatx* danez jakin beharko genuke. Izan ere, *a* guztiak ez dira artikulatu. *A* hori itsatsia danean, organika danean, ez da indeterminazioan galtzen, baiñan bai organika ez danean. Garrantzi haundia du honek. Izan ere, «neskatx» balitz, *gizon* bezala deklinatuko genuke eta esango: *neskatx bat*, zenbait *neskatx-i*, *neskatx-ena*, *neskatx-ekin*, *neskatx-entzat*, *neskatx-engan*, *neskatx-engana*, *neskatx-engandik*, *neskatx-ik*, *neskatx-tzat* eta abar. *Neskatxa* balitz berriz, *seme* bezala deklinatuko genuke: *neskatxa bat*, zenbait *neskatxa*, *neskatxa-ri*, *neskatxa-ren*, *neskatxa-rik*, *neskatxa-tzat*... eta abar.

Zein hitz bukatzen da *a* organikaz?

Euskal literatura azter ba dezagu, garbi ikus dezakegu hori. Oraindik ere, mugaz bestaldekoek ondo darabilte, bai bizkaitarrek ere. Gipuzkoarrok, idazten hasten geranean, sarri ahaztutzen dugu puntu hau. Hizketan ari galararik, ondotxo bereizten dugu *a* organikaz bukatzen dan

hitz asko eta asko. Oraindik ere maiz entzuten baita makilla bat, okela hori, arbola bat, neskata... eta abar, eta ez makil bat, okel hori, arbol bat, neskata...

Ez ditugu hemen esango *a* organikaz bukatzen diran hitz guztiak, gipuzkoarrentzat eta beste batzuentzat ere ez ezagunenak diranak baizik.

|                 |                   |            |                |
|-----------------|-------------------|------------|----------------|
| arnasa          | eskola            | justizia   | orea-orrea     |
| arbola          | erregina          | jakinduria | orua           |
| anaia           | eliza             | katea      | ordena         |
| axola-ajola     | estalbia          | koroa      | persona        |
| antsia          | egia              | kabia      | parra          |
| ausardia        | familia           | kuia       | piztia         |
| area            | gauza             | kopeta     | pertza         |
| aisia           | gutizia-kutizia   |            | pareta         |
| aharra          | gartzela-kartzela | lotkia     | premia-premiña |
| aitona          | gon               | legatza    | sakela         |
| amona           | giltza            | lotsa      | sardiña        |
| aitzekia        | heriotza-heriotze | makilla    | txabola        |
| baratza-baratze | hisia             | malenkonía | txapela        |
| birjiña         | hegoa             | nahaspilla | upela-kupela   |
| bizitza-bizitze | herra             | neskatxa   | zalanatza      |
| bekokia         | imajina           | neskatilla | zuhurtzia      |
| burdina         |                   | okela      |                |
| balentria       |                   |            |                |
| denbora         |                   |            |                |

Bi hitz bederen ezagutzen ditugu, garai batez *a* organikadun ziranak: *pakea* eta *aldia*. *Pakea*, *aldia*, ala, *pake*, *aldi*, biotatik zein aukeratu behar dan zuek esango duzue.

Atzizki batzuek ere *a* organikadun dira:

-keria (erokeria, gaiztakeria).

-era (egoera, hizkera, mintzaira).

-tza (artzantza, nekazaritza, baratza edo baratze).

Zenbait toki izen ere *a* organikadun da: Donostia, Baiona, Tolosa, Pasaia, Errenderia, Hendaia, Iruñea-Iruña-Iruñe, Zumaia, Getaria, Nafarroa eta abar.

Ba da dudarik halaz guztiz ere zenbait leku izenekin: jakin dugu-nez, dokumentu zaharretan zenbait aldiz *Azpeitia*, *Azkoitia* agertzen ba da ere, bestetan *Azkoiti*, *Azpeiti* agertzen baita. Halere, ez dugu uste *Larraitze*, *Auritze*, *Ustaritze*, *Biarritze*, *Azkaine*, eta abar danik, *Larraitz*, *Auritz*, *Ustaritz* eta abar baiño.

Ba dirudi ez gerala konturatu ere egin, euskerak ba duela singularraz eta pluralaz gaiñera, besterik: indeterminadoa da, indefinidoa.

*Mendia* determinado singularra bada ere, *mendiak* plurala da, eta *mendi* ez singularra eta ez plurala: indeterminadoa. Zorigaitzez, gure indeterminadoaz gramatikalarik gehiegi ahaztu zaigu. Lafitte-ren gramatikak deklinazio berezi eta osoa duen numeroa bat bezala dakar bere gramatika ederrean. Azkue-k ere ba dakar bere Morfologia-n. Indeterminazioari buruz mintzatzen dalarik, ederki dio Txillardegik: «Eta lehenengo bolada batean hizkuntzaren «soiñekoari» begiratu diogu, hiztegia ikusiz. Zalantzarik gabe badago hiztegian erdalkeriarik asko. Baiña ba da ere akats sakonagorik: «indeterminazioaren» galtzea dugu bereizkuntza jator eta sakon horietako bat.»

Azter dezagun indeterminazioa piska bat. Bi etsenplu emango ditugu Txillardegirenak biak:

1) «Pedro-ren etxea erre da». Hitzegiten ari diranek badakite zein etxe den Pedro-rena. Bestela ezin esan «etxea». Eman dezagun Pedro horrek badituela hiru etxe: Donostia-n bat, Eibar-en beste bat, eta Zumarraga-n beste bat. Orduan esakun hori entzuten dutenek, nahi eta nahi ez, hau galdetuko dute: «Zein etxe erre ote zaio?» Alegia hiruetatik «zein»? Hiru dituelako, eztakite zein den. Zein etxe den eztakitelako, hain zuzen, «zein etxe» galdetu dute; ez, «zein etxea», edo «zein etxeak».

Pedro horrek etxe *bakar bat* balu, ordea, edo bizi dan etxeaz ari bali-ra hizketan, orduan entzuleak balekike ongi: *etxea* erre zaio; alegia, guziok ezagutzen dugun *etxe hura*.

2) «Pedro-ren *etxeak* erre dira». Hitzegiten ari diranek badakite ere zein etxe: hain zuzen ere *denak* erre zaizkio. Zazpi etxe baldin bazituen, zazpiak; hiru baldin bazituen, hirurak.

Baiña Pedro horrek sei etxe baldin balitu, eta lau erre bazaizkio ezin diteke esan: «Pedro-ren *etxeak* erre dira», «Pedro-ren *zenbait etxe*» edo «Pedro-ren etxe batzuk» edo «Pedro-ren lau *etxe*» baizik; seietarik zein lau diran ezpaitakigu.

3) «Pedro-ren lau *etxe* erre dira» eta «Pedro-ren lau *etxeak* erre dira». Zein euskaldunek eztu goraberarik nabaitzen? Lehenengo esakunean eztakigu *zein etxe* erre dan; bigarrenean badakigu Pedro-k *zituen lauak*, guziak beraz, erre dirala. *Ezta numeroa*, beraz, munta duena; *etxe jakinak ala ez-ezagunak* izatea baizik.

Beste kaso guztietan gauza bera gertatzen da. Etsenplu asko eman diteke. *Bat* numeralak indefinidoa bezela deklinatzen da; gauza zeatza, mugatua ez danean. «*Etxe batetan* izandu giñan»; «*etxe batetatik* etorri gera»; «*etxe batetara* joan giñan» eta abar... ezpaitakite zein etxez ari geran entzuleek.

Zerbait galtzen ari bada ere, euskaldun gehienok honela esaten dugu beste hau ere: nagusi-*ren* bat etorriko zan»; «*etxeren* bat erosi edo du»; «*emakumeren* bat izango zan». Genitibo partitibo bezalako zerbait erabiltzen dugu «bat» aren aurretik, alegia.

### *Noiz indeterminazio bat?*

Jakiña da, hizketan ari galararik, esaten duguna gauza jakiña, zeatza eta ezaguna ez bada, indeterminado dana; alderantziz, gauza jakiña, eta zeatza ba da, determinadoda da.

#### 1-nik. *Indefinido deritzatenekin:*

Zenbait etxe erosi dut.

Gizon asko zan jaietan.

Liburu gutxi baizik ez dut erosi.

#### 2-garrenik. *Numeralekin.*

Numeralak gauza jakiña, zeatza markatzen ez badu, indeterminadoda da.

Lau etxe erre zaio

Lau etxeak erre zaizkio (zituen denak)

Bost liburutan ikasi dut

Bost liburuetan (entzuleak dakien haietan)

3-garrenik. *Galderetan*. Gauza bat ez dakigulako *galdetzen* dugu, hain zuzen ere, beraz galdera indeterminadoda da.

Zein etxetakoa da hori?

Zenbat behi erosi duzu?

4-garrenik. Lehen esan dugun bezala Izen Nagusiak indefinidoak bezela deklinatzen dira. Bai eta *Kristo* ere. Kristo-k esan zuen eta ez Kristo-ak...

5-garrenik: *Itxura aldakorrei dagozkien hitzetan.*

- ezkerretara jo genuen
- eguzkitan jarri zan
- uretan sartu zan

Berdin ere erderaz «determinante»-rik eztagoenean:

- bekatutan egon
- kaltetan ari izan
- baketan utzi

Hemen bukatzen da gure lana. Xehetasun guztietan sar bagintez, beste millaka gauza esan liteke deklinazioaz. Halere, bukatu baiño lehen, hau esango dizuegu: erdipurdi esandakook hobeto sakondu ditzazuen eta esan gabe utzi duguna, beharrik izan ezkerro alegia, ikasi dezazuen, jo zazute liburu hauetara. Gerok ere, esan dugun apur hau, horietatik atera baitugu.

*Gramática de los Cuatro dialectos literarios de la Lengua Euskara*, por don Arturo Campión. Tolosa, 1884. Lehendabiziko kapituluetan luze eta zabal mintzatzen da deklinazioaz, baiñan ez dugu uste, dion guztia, ondo esanda dagoenik.

*Morfología Vasca*, por R. M. de Azkue. Capítulo VIII: «Determinación». Capítulo IX: «Declinación».

*Grammaire Basque*. Abbé P. Lafitte. Chapitres: VII, VIII, IX, X, XI, XII, XIII.

*EUSKERA. VII*. 1962. Bilbao. «Declinación Vasca». Fr. I. Omaechevarría, O. F. M.

*Euskal Idazkaritza*. Kordelieren karrika 14. Baiona. Multikopistaz liburu txiki bat atera zan. Dena labur labur eta oso ongi. J. L. Alvarez Enparantza-ren da (Txillardegi). 28 horrialde ditu. Esan dugun anitz, jaun argi eta prestu honi hartu diogu.

S. Garmendia.





# **EUSKERAZKO ITZ BERRIAK**

**(Batasun-Batzordeak agindutako lana)**

Batasun-Batzordeak jokabide edo arauki batzu onartu ditu, ta neri oiek aipatzea ta adibide batzu erastea dagokit. Geyenetan arauki oiek ontzat jotzen ditut, baiña bat edo beste eztitut txit gogoko, ta oietaz nere iritzia azaldu bearko det. Enaiz Batasun-Batzordekoa, beraz nere iritzia ez tira Batzordearenekin naasi bearr. Araukien eskribikera artu dedan bezela kopiatzen det; eskribikeratazko nere iritzia beste paper batean azaldu nituan.

«1. Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutu du bakoitzaren neurria? Euskaltzaindiak lehen esanak hontarako bakarrik balio zuen: ez dagoela hitz berri-rik sortu beharrik euskal-hitz zahar-jatorrak, erderatikakoak direlakoan, baztertze-ko asmoz.»

Lenengo arauki onek gerrate-aurrean egindako pekatu batzu oster-az egitea eskatzen digu. «Eliza, zeru, amodio, karro, inbutu, txarro» itzak kendu ta oien orde-az «txadon, donoki, maitasun, galdi, onil, pitxarr» onarturik' eztegu ezer aurreratzen, euskerazkoak diralakoan besteak be-ziñ latiñetikakoak sartzea besterik ezpaitegu egin. «Kolare» itzaren ja-torria badakigu, «margo» izan danik ere zigurr ezta-ki; ta egunenba-tean ori ere erderaren batetikakoa dala jakingo bagenu' beste itzenba-ten billa asi bearko genuke. «Kontseju» orde-az «onu» esaten dudu batzuk: nere ustez ori Urkixo'ren irakurpen okerbat besterik ezta. «Gerra» or-de-az «gudu» esate-az german-izkuntzatikako itz baten orde-az jatorri bereko beste bat sartzea da. Gaiñera «gudu» erderazko «combate, batalla» adi-razteko erabil-ili izan da euskeraz, ta «gerra» adirazteko erabil-ten bade-gu' beste adirazpenarentzat itzik bage geldituko gera. Esate baterako:

gerra-ontzi = warship; gudu-ontzi = battleship (doitxeraz: Kriegschiff, Schlachtschiff).

Euskalerri osoan edo geyenean aspaldian sarturik dagon itza kendu ta bestebat sartu nai edutea ezta pulamentuzko jokabidea, denbora ta kemenak alperrik galtzea besterik ezpaita. Biarritz-eko Euskal-Ikaskuntza-batzarrean italiarbatek esan zigunez Mussolini-k milla ta bosteunenbat itz arrotz italieratk kendu nai edun zituan, eta aien ordeztaliera «jatorrezko» itzak sartu. Mussolini-k Itali guztiko egunkari paper ta liburu guztiak bere esku zeuzkan. irratia ta eskola guztiak ere bai; ala ta guztiz ere itz berri bat besterik etzuan sartu aal edun: «sciofero» ordeztal «autista».

Beste gauza litzake bi itz ditugunean bakoitza besteagandik bereiztea ta bere adirazpena mugatzea. Leen *gerra* ta *gudu* aipatu ditut. Ona beste bi: «eskribitu» ta «idatzi». Baliteke jatorriz itz bakarra izatea, gaztelanizko «meollo» ta «médula» bezelatsu. Naparbati, Garmendia'tar Leopoldo aetzari entzun nionez Oroz-Betelu'n eta Aezkoa'ko beste errietan «eskribitu» ordeztal «izkiratzi» esaten zan. Eskribitu, izkribatu, izkiratzi, iratzi, idatzi: denoik itz berbera dirala esango nuke. Baiña cso egoki genuke bi itz erabiltzea. Gaztelaniz edo prantzeseztal «escribe bien» edo «il écrit bien» entzuten degunean' duda sortzen zaigu: ¿es «buen escritor» o es «buen amanuense»? ¿Tiene «buen estilo» o tiene «buena letra»? Nere usteztal itzak papereratzeari «eskribitzea» edo «izkribitzea» esan genezayoke, ta gogapenak itzez adirazteari berriz «idaztea». Egia esan' oraiñ «idazle» esaten degunean' orrela erabiltzen degu. Eztakit beste errietan orrelako asko gertatu izan diran, baiña Euskalerrian eskribitzen etzekien idazle batzu izan dira: Pello Errota, Udarregi, Zapiraiñ eta abarr.

Arrazoi berberaz edo aundiagoztal leendik bi adirazpenentzat bi itz darabizkigunean bi itz oyetatik bat erderatikakoa dan aitzekiz bestea bi adirazpenentzat erabiltzea' euskera kaxkartzea da. Esate baterako' Euskalerri guztian «konpesatu» ta «aitortu» (bizkayeraz «autortu») ongi bereizten ditugu, prantzeseztal (se) «confesser» ta «avouer» bezelaxe. Orrela «ori larunbatero konpesatzen da» esango degu batetik, eta «asieran ukatu egin du, baiña atzenean aitortu du» esan oi degu bestetik. Baiña gaztelaniz «confesar» bietara erabiltzen dude, ta euskaldun batzu «konpesatu» ordeztal «aitortu» sartu naiean ari izan dira. Jainkoari eskerrak' euskaldun gutxi konpromatu dira izkuntza orrela kaxkartzearekin.

Orren antzeko bestebat ere badegu: «Etorriko dala espero det, baiña atean itxaroten aspertu naiz». Gaztelaniz «espero que vendrá, pero me he cansado de aguardar en la puerta» esaten da. Batzuk «aguardar» or-

dez «esperar» esaten dute, ta euskeraz ere bi adirazpenentzat itz bakarra sartu nai edun digude: «etorriko dala itxaro det, baiña atean itxaroten aspertu naiz». Gauza bat da esperantza edutea, ta beste gauza bat itxarotea, zai egotea.

«2. Euskal-hitzak sortzean, eta nornahik sortzen ditu mintzatzean, gogoan eduki dezahun beti, beharraz gainera, gure hizkuntzaren moldeak, beti izan bait dugu horretarako errezatasuna. Batez ere, hitz-elkartzearen bitartez. Nahi-ta-ezkoa du hizkuntzak modu orrek bizirik irautea, bere izatean iraungo baldin badu.»

Gaztelaniz ta prantzesez bi itz «de» edo beste lokarriz lotuta adirazten diranak' alemanez ta ingelesez bezelaxe sortzen ditugu euskeraz, bi itzak bata bestearen atzetik esate utsaz. Esate baterako: Leche de vaca, lait de vache, Kuhmilch, cow milk, bei-esne. (Alemanez Kuhwarm = bei-bero, gure «errobero» bezela da; prantzesez «traite»; gaztelaniz'eztakit). Atzekoz-aurrera ezarri ezkerok' esnea ez baiña beia adirazten degu: Vaca de leche (vaca lechera), vache à lait, Milchkuh, milk cow, esne-bei. Orrelakoak eukseraz eunka ta millaka ditugu: bizi-lagun, eliz-gizon, lasto-alanbre, mendi-bide, oihen-zaiñ, ote-sega, plaza-gizon (aleman batzuk ere' *Salonmensch* orrelasu erabiltzen dute), txori-simaurr (erderaz «guano»), zoko-usai Ta iñoiz entzun eztitugunak ere' ongi egiñak diranean' entzun-orduko aditzen ditugu: ontzi-buru, ontzi-bide, ertzaiñ-orga (erri-zaiñ-gurdi), egazkin-zelai.

Orrela bi itzezkoak egin litezke nai-aiña, baiña ongi egin bear dirala esan det, eta izan ere' nere ustez gaizki egindakoren bat badegu, idazle-artean eta eskoladunen artean poliki sartu dana, baiña Gipuzkoa'n beintzat erriak onartu eztuana: «burni-bide» aipatu nai det. Erriak «bide» itza bigarren duden itz-biko asko sortu ditu, ta ongi sortu ere: «zerentzako» edo «norako» bidea dan adiraziz. Ona batzu: Arrozpide, Zaldunbide, Zalbidea (zaldi-bide), Arbide (ardi-bide), Mandabideta, Sagarbide, Egurbide, Ubidea (ur-bide), Gaztanbide, Organbideska, gurdibide; Eiherabide, Errotabide, Gaztelubide, Olabide, Oiharbide, Zabalbide. Orrela, euskaldunek beti jokatu duden bezela aditu ezkerok' «burnibide» burnia eramateko edo ekartzeko bidea da, ez burnizko bidea. Orregatik Gipuzkoa'n beintzat' erriak «trenbide» esaten du, tranarentzako bidea. Ingelesez ere guk bezelatsu egin oi dute: waterway gure urbide da, urarentzako bidea; ta shipway berriz' ontzi-bide, ontzientzako bidea. Eskoladunek erderaz pentsatu oi dute, ta euskerazko itzekiñ ere erderakadak sortu. Prantzesek «chemin-der-fer» esaten dudela' ta «burni-bide» sortu, italia-

rrek «ferrovia» ta alemanek «Eisenbahn» bezelaxe. Gaztelanizko «tran-vía»tik giputzok «tranbe» ta «tranbe-bide» atera genituan; gaztelaniz «la vía del tranvía» esaten dute, «la cuesta de Aldapeta» ta «la playa de Ondarreta» esaten dituden bezelaxe.

Onak edo txarrak' neronek orrelatsu sortutako adibide batzu aipatu-ko ditut. Matematiketan aundiera aldakor baten zati ttiki-ttiki bati gaztelaniz «diferencial» esan oi diode; ortarako nik «apur» itza onartu nuan, eta gerra asi zaneke egunetan «Apurrizti» liburuxobat idatzi nuan (Cálculo infinitesimal alegia). Ori onartu ezkerok' beste itz asko erre-errez ateratzen dira; ona batzu:

apur-neurri (derivada = cociente diferencial); apur-bilketa = integración;

apur-berdinketa = ecuación diferencial; berrapur = diferencial segunda; apurneurketa = derivación. Nere ustez erderazkoak baiño argiago daude, geiago diode.

Adirazpen berriak bi itz baiño geiagok ere esan ditezke. Alemanez iru ta lau itzez ere maiz egiten ditute: Personenkraftwagen coche de turismo), Lastkraftwagen (camión automóvil), Strassenverkehrszulassungsordnung (reglamento de condiciones para el tráfico por carretera) ta abarr. Euskeraz ere erriak orrelakoak sortu edun ditu; adibidez: ur-be-deinkatu-ontzi, arto-bero-usai, ta ustekabeen sortzen ditugun batzu: ez-kon-ebri-itxura, gaztaiñ-erre-saltzaille, gaztaiñ-erre-saltzaille-txabola. Jakite-izkuntzarako oraindik ezkerak bide ortaz baliatu, baiña batzutan ego-ki gerta liteke.

«3. Hitz-elkartze berrietan, eta zaharren artean aukera egitekoan orobat, bi indar ari zaizkigu beti lanean. Eredu zaharrak, batetik, eta analogia delakoa, bestetik: *luze-k* antzinako patroiar segituaz, *luza-tu*, *luza-ro*, *luza-mendu* eta abar eskatzen du, analogiak, berriz, kidea kidearekin daramala, *luze-* nonnahi agertzea nahi luke. Gehiegizkorik gabe, nik uste, lehenbiziko joerara eusten ahalegin behar genduke, oraingo isuria bestetara bait doa.»

Onek ez du dudarik. Leengo arauen kontra ariko bagiña' euskera berribat sortzen asiko giñake, «euskera» izena ere mereziko eluken izkuntza berribat asmatzen.

Emen nere aspaldiko pekatubat aitortzea dagokit: idazle batzueri jarraituaz ta itzaren jatorriari begiratuaz' nik ere «euskeldun» eskribitu edun det. Orr ere ezta dudarik, edo eluke izan bearr: euskeraz beti «eus-

kaldun» esan izan da, beraz «euskaldun» esan eta eskribitu bear degu. «Astokeri» ere ezta euskera jatorra, euskaldunok beti «astakeri» esan edun baitegu. «Oraingo isuria» zer dan badakigu: geyenok euskeraz baiño erderaz obeki dakigula. Ori ezta gure gustora ta gure irudipenen arauz euskera aldatzeko arrazoia; gure eginkizunik bearrenetakoa euskeraz ikastea degu. Euskera gure ez-jakiñaren neurrian aldatu nai degulako' sekulako astakeriak irakurtzen ditugu batzutan: «ogei urtedun mutilla»' naiz ta euskerazko itz eta izkiz egiña izan' ezta euskera. ¿Zergatik «ogei urteko mutilla» ez esan, euskaldunok beti esan degun bezela? *Dun* atzizkia *gabe* atzizkiaren kontrakoa da: bizardun, dirudun, etxadun, ezpatadun, norbait besteengandik bereizteko esaten dira. Begidun, belarri-dun, besodun esanda iñor eztegu bereizten, geyenok begiak, belarriak eta besoak bai-baititugu. Izatekotan ere «begi-bakarr», «beso-motz», «anka-makurr» edo orrelako zerbait esanaz bereizi genezazke. Ontan ere' beti bezela' erriari ikasi egin bear diogu, ez irakasi. Baiña beti erdal-idazleen gauzak irakurriaz orretara jotzea ezta arritzeko: el pueblo ignorante, les paysans qui parlent patois, los escritores del «siglo de oro», les grands écrivains; badirudi erriak izketan ere eztakiala. Gaiñera egia izatea ere baliteke. Erdal-errietan baliteke. Euskalerrian ez: euskal-idazlerik onenek ere erdera besterik etzuden irakurtzen, eta orregatik' ayen idazkiak irakurtzean' beti bildurr izan bear degu, alegia euskera jatorrez ari bearrean erderaz pentsatutako ta gaizki euskeraztutako gauzak esaten ote dizkiguden.

Altube zanari entzundako beste zertxobait ere esan nai nuke. Batzutan itzak aditza ta izena alkartuaz sortu oi edun ditugu, esate baterako «jan-gela». Altube'k zionez' ortarako aditza izendu egin bear da, izen-itxura eman alegia; beraz «jan-gela» ez, baizik eta «jate-gela» edo obeki «jate-egi» = «jategi»: jan-etxe ez, baizik eta jatetxe; batu-(t)oki ez, baizik eta batze-oki = batzoki; edan-ontzi ez, baizik eta edate-ontzi = edatontzi. Jokabide jatorra dirudi, baiña maiz erabilgaitz gertatzen da.

«4. Kultura-gaietan zordun eta hartzaile geranez gero, legezko da, noski, hitzetan ere zordun eta hartzaile agertzea. Bestetarikako hitzen itxuraz, ordea, bi iritzi dabilta gure artean: itxura hori gorde nahi luke-te hatzuek egin-ahalean, frantsesaren arabera, eta itxura aldatzea, xinpletzea, besteak, gaztelaniaren arabera.

»5. Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat bakarrik ari bagina, baina ez da horrelakorik gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo erdi-bidera behintzat, *y*, *kh*, *th* eta horrelakoak baztertuz.»



Ontan ere osorik Mitxelena jaunaren iritzikoa naiz, baiña arauetan iritzi berdiñekoak izan arren' egipenetan eztakit berdiñ ariko giñaken. Eleneratik artutako itzak iñork ere eztitu eleneraz ziran bezela eskribitzen eta oguzten. Izkuntza bakoitzak oguzpena bere bide bereziz aldatzen du, ta oguzpenaren ondoren eskribikera ere bai, batzuk geixeago ta besteek gutxiexago. Ar dezagun elenerazko «Physikee» itza. *Ph* oraingo izkuntzetan, eta eleneraz ere bai' F bezela oguzten dude, ez elenera zaarrez oguzten zan bezela, euskeraz «aphez», «aiphatv» oguzten diran bezelaxe. Y herriz geyenek *i* bezela oguzten dude, alemanez ta eskandi-izkeretaz bakarrrik oguzten da *v* elenera zaarrez bezela. Bukaerako *ee* luzea eleneraz berriz *i* oguzten dudela uste det, besteetan ezta oguzten, eta eskribitu ere prantzesez bakarrik.

Ta guk ¿zer egin genezake? Batetik jatorriari begiratuaz, bestetik euskeraren oguztaren jokoerak aintzat artuaz' nik *Pusika* onartuko nuke. Ez pentsa orrela beste izkuntza guztiengandik urruntzen geranik. Jakintza-izkuntzen artean ere eztago askok uste duden batasunik. Ona beste izkuntza batzu nola ari diran:

| <i>Heleneraz</i> | <i>Latiñez</i> | <i>Italieraz</i> | <i>Prantzesez</i> | <i>Ingelesez</i> | <i>Alemanez</i> | <i>Dansk</i> | <i>Svensk</i> |
|------------------|----------------|------------------|-------------------|------------------|-----------------|--------------|---------------|
| Physikee         | Physica        | Fisica           | Physique          | Physics          | Physik          | Fysik        | —             |
| Khemeia          | Chemia         | Chimica          | Chimie            | Chemistry        | Chemie          | Kemi         | —             |
| Arithmeetikee    | Arithmetica    | Aritmetica       | Arithmétique      | Arithmetic       | Arithmetik      | Aritmetik    | —             |
| Philosophia      | Philosophia    | Filosofia        | Philosophie       | Philosophy       | Philosophie     | Filosofi     | —             |
| Moysiikee        | Musica         | Musica           | Musique           | Music            | Musik           | Musik        | —             |
| kistee           | cestum         | cesto            | ceste             | cestus           | Kiste           | kiste        | kista         |
|                  | cesta          | cesta            |                   | chest            |                 |              |               |
| Cyprium          | cuprum         | (rame)           | cuiivre           | copper           | Kupfer          | kobber       | koppar        |
|                  | oleum          | olio             | huile             | oil              | Ol              | olie         | olja          |

Norbaitek onelatsu esan lezake: itzoik aspaldikoak dira, izkuntzek alkarrekiñ oraiñ aiñeko artu-emanik etzuden garaikoak; orain sortzen diran itzetan diranak batera jokutzen dude, ta guk ere oiek bezela egin bear degu.

Jakite ta lanketa itzak «internazionalak» diraneko ori' gaztelaniz ta prantzesez besterik eztakiden batzuen irudipena besterik eztala esango nuke. Bestela elitzake orrenbeste «Scientific Dictionary» ta «Technological Dictionary» agertuko.

| <i>Prantzesez</i>           | <i>Italieraz</i>           | <i>Ingelesez</i>           | <i>Alemanez</i>                | <i>Gaztelaniz</i>       | <i>Dansk</i>              | <i>Svensk</i>         |
|-----------------------------|----------------------------|----------------------------|--------------------------------|-------------------------|---------------------------|-----------------------|
| avion<br>(aéroplane)        | velivole<br>(aeroplano)    | aircraft<br>(air) plane    | Flugzeug<br>(air) plane        | avión<br>(aeroplano)    | flyvemaskine<br>luftfartj | flygplan,<br>aeroplan |
| porte-avions                |                            | aircraft<br>carrier        | Flugzeugtrager<br>Hubschrauber | porta-<br>aviones       | hangarskib                |                       |
| hélicoptère                 | elicottero                 | helicopter                 | Helikopter,<br>Hubschrauber    | helicóptero             | helikopter                | helikopter            |
| automobile                  | automobile<br>autoveicolo  | (motor) car                | Kraftwagen                     | automóvil               | motorvogn,<br>bil         |                       |
| aéroport                    | aeroporto                  | airport                    | Lufthafen                      | aeropuerto              | lufthavn                  | flygplats             |
| hélice                      | elica                      | propeller                  | Schraube                       | hélice                  | flyvepropel               | propeller             |
| aviation,<br>transport      |                            | aviation, air<br>transport | Luftfahrt,<br>Luftverkehr      | aviación<br>transporte  | flyvning,<br>luftfart     | flygning              |
| oérien                      |                            |                            |                                | aéreo                   |                           |                       |
| manche-à-balai              | leva<br>comando,<br>cloche | control stick              | Steuerknüppel                  | palanca<br>de mando     |                           |                       |
| bâti-moteur                 | castello del<br>motore     | engine be-<br>arer         | Motorgestell                   | cuna del<br>motor       |                           |                       |
| train<br>d'atterrisage      | carrello                   | under-<br>carriage         | Fahrgestell                    | tren de<br>atterrizaje  |                           |                       |
| gouvernail de<br>profondeur | timone de<br>profondità    | elevator                   | Höhensteuer                    | timón de<br>profundidad |                           |                       |
| gouvernail de<br>direction  | timone de<br>direzione     | rudder                     | Steitensteuer                  | timón<br>vertical       |                           |                       |

Adibide geiago jartzea alperrikako deritzait. Naiko garbi dago beste izkuntzek ere bakoitzak bere moduz jokatzeko dudela. Gaiñera nederlanderaz (olandesa alegia) oraindik ezta aipatu, orrek geienetan elenerara jotzeke sortu edun baititu bear zituana itzak. Alemanez eta daneraz (Denmark-eko izkuntzaz alegia) batzutan orren antzera aritzen dira, ta len aipatu ditugun itzen gain beste jatorragoak erabiltzen ditude. Ona ale batzu:

| <i>Alemanez</i>         | <i>Daneraz</i>        | <i>Nederlanderaz</i>    |
|-------------------------|-----------------------|-------------------------|
| Arithmetik, Rechenkunst | Aritmetik, Rekenkunde | Rekenkunde, Rechenkunst |
| Algebra,                | Algebra, Stelkunde    | Stelkunst, Algebra      |
| Buchstabenrechnung      |                       |                         |
| Geometrie, Raumlehre    | Geometri, Meetkunde   | Landmeetkunde           |

| <i>Gaztelaniz</i> | <i>Alemanez</i>                            | <i>Daneraz</i>     | <i>Nederlanderaz</i>      |
|-------------------|--------------------------------------------|--------------------|---------------------------|
| Ecuación          | Gleichung                                  | Ligning            | Vergelijking              |
| Gramática         | Grammatik,<br>Sprachkunst                  | Grammatik          | Taalkunde, Spraakleer     |
| adjetivo          | Adjektiv =<br>Eigenschaftswort             | tillaegsord        | bijvoegelijk<br>naamwoord |
| adverbio          | Adeverb =<br>Umstandswort                  | biord              | bijwoord                  |
| artículo          | Artikel =<br>Substantiv =                  | kendeord           | lid- of geslachtwoord     |
| sustantivo        | Geschlechtswort<br>Hauptwort =<br>Dingwort | navneord           | zelfstanding naamwoord    |
| masculino         | männlich                                   | hankn              | mannelijk                 |
| femenino          | weiblich                                   | hunkn              | vrouwelijk                |
| neutro            | Neutrum                                    | intetkn            | onzijdig                  |
| adjetivo numeral  | Numeral = Zahlwort                         | talord             | telwoord                  |
| conjunción        | Konjunktion =<br>Bindewort                 | bindeord           | voegwoord                 |
| pronombre         | Pronomen = Fürwort                         | stedord, pronomen  | vooraanwoord              |
| preposición       | Präposition =<br>Verhältniswort            | forholdsord        | voorzetsel                |
| verbo             | Verb = Zeitwort                            | udsagnsord         | werkwoord                 |
| letra             | Buchstabe                                  | bogstav            | letter                    |
| silaba            | Silbe = (Sylbe)                            | stavelse           | lettergreep               |
| vocal             | Vokal = Selbstlaut                         | selvlyd, vokal     | klinker                   |
| consonante        | Konsonant = Mitlaut                        | mendlyd, konsonant | medeklinker               |

Geiago jarri bearrik eztedala uste det. Alegia askok uste duden «itz internazionalik» eztala, bakoitzak aal bezela edo nai bezela sortzen dituala. Jakiña da, gaztelania, prantzesa ta askotan ingelesa ere bai, iturri bakarbateko uraz ari diranoik bakarrik gogoratzen baditugu' denetan sendetasun aundiko itzak edirengo ditugu, baiña orrek eztu esan nai beste izkuntza guztietan itz berberak erabiltzen ditudenik. Askotan errez egin genezazken itzen ordez beste batzuegana itz eske joatea' espainiarrek esaten duden bezela «Bizkaira burdiña eramatea» da, edo euskerazko esaera zaarbatek diona: «mandoak osiñari».

Euskal jatorrizko itza errez atera litekenean, edo errez aditzekoa danean' nik enuke beste izkuntzetara joko. Ta bearreko gertatzen danean' jatorrri-izkuntzatik zuzenean artu ta euskal itxura emango nioke, besteek nola jokatu duden geiegi begiratzeko. Aal dan guztietan' azkenean a letra ezkenuke onartu bearr, ori sartu ezkeror itzak atzizkia daukan ala eztaukan jakiteko biderik ezpaitegu. Bizkaitarrek eta Gipuzkoa'ko goyerriarrek bezela Pusikea, Musikea, Orkestrea egin genezazke atzizkia agerian jartzeko; baiña atzizkirik bage Pilosopia, Teologia, Biologia,



Zoologia onartu ezkerro jatzizkia nola agertarazi? Pilosopia, Biologia ta orrela eziñ egingo degu beintzat... Onena, Pusika, Kemi, Pilosopi, Biologi, Astronomi ta abarr egitea genuke. Itzen itxuraz bakarrik ari naiz, Bizitzaizti, Izarritzi (Sternkunde) ta orrelakoak egokiago baiteritzaizkit.

Fisika ordez Pusika batzuri itsusi idurituko zaie, edo ta arrazoi-bagekoa. Bi letra ditugu aztartzeko: P ala F, y, u ala i. Elenerazko Ph Erromarr askok F oguzten zudelako' Kikero'k bere idazkirenbatean adarra jotzen omen die. Latiñik eztakit, eztet irakurri, baiña ezta arrigarri; *ph*-rik eztuden izkuntzetakoentzat oguzteko gaitza da. Euskaldunen artean ere askorentzat «aphez» esatea gaitz egiten da, ta Euskaitzaindi-ko batzuri Epherre esan bearrean Eferre entzun edun diet. Ori ezta aski guk F egiteko. Euskaldun guztiok iparr-euskalkietakoek bezela ph ongi oguzten jakingo begenu' Ph jarriko genuke. Baiña askori gaitz egiten zaigu, ta Baiona'o eskribikeran ph, kh ta th ez erabiltzea erabaki zan: beraz P utsik gelditzen zaigu. Norbaitek esan lezake elendarrek ere orain F oguzten dudela, ta aiek bezela egitea elegokela gaizki. Baiña elendarrek orain B (beta) prantzesezko V ta alemanezko W bezela oguzten dute, ta alaz guztiz ere iñork eztu Viologia edo Wiologia eskribitzea eskatuko. Beraz, Physika, Philosophia, Theologia ordez Pusika, Pilosopi Teologi eskribituko nituke.

Orain bigarren letra aipatu bearko degu. Elenerazko Y prantzesezko U ta alemanezko Ü bezela eguzten asi zana Erasmus izan zala uste det. Asmatu zuanik enuke esango. Alegia elenera zaarrez ü oguzten zane-koa fedeko gauza danik eztakidala. Eleneraz eztet beiñere ikasi, ta beste batzu badira Euskaltzaindia'n ortaz asko ikasiak; berek esan bezade beren ustea. Baiña Y ori u oguzten zala sinisteko arrazoibat ikusten det: Kurilo doneak eslabo-izkuntzentzat letrak asmatu zituanean' u oguzi bear zane-rako Y letra aukeratu zuala. Ezta txit indarr aundiko arrazoia, baiña bes-terik eztanean... nere aita alkate. Egin dezagun kontrako arrazoi obe-renbat agertzen dala, ta orren bidez elenera zaarrez Y ziberutarren ü be-zela oguzten zane-koa sinistarazten digula. ¿Ta zer? ¿euskaldun guztiok ü esaten asiko otegera? Ori litekena balitz' konprome: Püsika eskribitu ta kito.

Ta etzezala iñork pentsa beste izkuntza guzietan Y ori I bezela oguz-ten danik: eskandi-izkuntzetan eta eskribikera «internazionalean» Y ori ü bezela oguzten da, alemanek ere Physik eskribitu baiña Füsik oguzten dute.

«6. Horiek (y, kh, th)), noski, izen propioetan behintzat gorde behar lirake (orobat c, qu eta antzekoak). Beste hizkuntzetako, batez ere hurrunkoetako, izenak nola idatzi erabaki beharko dugu egun edo bihar, baina ez dugu hau lanik presakoena. Euskal-izenak berak ere nola diren erabaki eta irakatsi behar genduke aurretik.»

Ontan ere eztago ezparirik. Poughkeepsy, Wroclaw, Szczecin, Brno, Schwyz, ta errelako beste asko euskerazko eskribikeraz jartzea ezta eziñkoa, baiña geienez ere euren jatorrizko eskribikeraz jarri ondoren makotean eskribi genezazke, nola oguzi bear diran jakin dezagun. Adibidez: Poughkeepsy (Pokipsi), Wroclaw (Wrotzlav), Szczecin (Xtxetzin), Schwyz (Xwitz), 's Gravenhage (Jrawenhage), Chisinau (Kixinau).

Izkuntzarik geienek eztude jatorri-izenentzat orrelako errespeturik eduten; ona adibide batzu:

Alemanez: Vatikan, Kosta-Rika, Teneriffa, Rom, Warschau; ingelesez: Vatican, Rome, Warsaw, Vienna; prantzesez: Vatican, Rome, Varsovie, Vienne; gaztelaniz Varsovia, Viena, Marsella, Estocolmo. Guk Vaticano, Roma (edo Erroma), Warszawa, Wien, Stockholm, eta orrela egin bear genuke, oraingo joera beste izkuntzetan ere ori baita. Iri bakarrari bi, iru, lau izen ezartzen ezin jarrai liteke; ta ezta nik asmatutako gezurra: Alemanez Aachen, nederlanderaz Aaken, prantzesez Aix-la-Chapelle, gaztelaniz Aquisgrán, italieraz Aquisgrana (Aquisgrana) iri berberaren izenak dira.

Bataio izenekiñ arik eta okerrago gertatu izan da. Izen berri-samarbat aipatzeko' italerako Francesco (Frantxesko) prantzesez François (Franzué, orain Franzuá) gaztelaniz Francés, Francisco, Pancho, Paco, Curro; ingelesez Francis; alemanez Franziskus, Franz; daneraz Frands, Frank, Frans, Frants. Ori zuzentzerik eztago; baiña László Kubala ta Ferencz Puskas (Puxkax) madxarrerri Ladislao ta Francisco esatea ezta egoki jokatzeara.

Baiña beste izkuntzeko izenek errespetua merezi badude ere' euskerazkoak areago. Adibidez' Aïñharbe, Atharratze, Basbvr̃v, Athehegi (Atherei), Altzvr̃kv, Lakharri, Sorhueta ta orrelako besteak' euren v, ñh, kh, th, rh ta guzti eskribitu bear ditugu. Batasunaren aitzekiz aita Villasante'ri Kortabitarte ordeiz Ituarte edo Ukullubitarte eskribitzerik eziñ eskatuko diogu.

«7. Nik legekotzat hartuko nuke erderatikako hitz berrieta v gordetzea, nahiz ez gordetzerik agindu. -logia eta antzeko hitzetan, g gordeko nuke, bakoitzak bere erara esan dezan: jeologia eta antzekoak

hobeak dira beharriarentzat, begion kaltetan, ordea. Eta hizkuntza idatzia begiek jasotzen dute bestek baino lenago.»

Ontan enaiz Mitxelena jaunaren iritziko. Eztegu aski nola eskribitu bear dan erabakitzea, nola irakurri bear dan ere erabaki bear dogu; eztegu aski ortografia, ortoepia ere bearreko degu. Eztegu aski papere-tan eta liburuetan berdiñ eskribitzea; gero eskoletan, irratian, teatroan, kulpituan eta alkarrizketan bakoitza bere moduz aritzekotan' ezkenuke asko aurreratuko. Bestela aski genuke txinoek bezela irudi-bidez eskribitzea, ta gero bakoitzak gurdi, karro, kotxe, orga edo nai duana esatea. Oraingo euskaldunik geiena'k diodenez' entzule aundiak eta irakurle kaxkarrak ditugu: orregatik besterik ezpalitz ere' oguzpenari, esateko moduari, ortoepiari jaramon aundia bear diogu.

Jaun eskribitzea erabaki endoren' Jaun, Jaun ala Yaun oguzi bear dan erabaki bearko degu. Enoa orain ortan sartzera, aski det ortan ere erabakizun bat badeguna gogoraraztea (Oraingo batzuk problema edo prolema esango ludeke: ditzosozko erderaz pentsatu ta itzulpen kaxkarrrez idatzi bearra! Erderazko problema itzak adizkizun edo esan-nai asko ditu: asmakizun, moldakizun, erabakizun, ikaskizun eta abarr; aldi bakoitzean egokia aukeratzea, orra aukerakizun edo problema polita!).

Azken-itx batzu esan bearrean naiz. Paperontan «ortografi» ordez «eskribikera» jarri det beti. Erderaz «ortografia» itzak jatorriz «parte de la gramática que enseña a escribir correctamente por el acertado empleo de las letras y de los signos auxiliares de la escritura» esan nai du, gaztel-akademiak dionez. Baiña askotan eztegu orrela erabiltzen. «Esa mecanógrafa tiene mala ortografía», «tal escritor usa una ortografía caprichosa», «la ortografía inglesa es absurda» ta «rrelakoetan' itz orrek eztu «escribir correctamente» esan nai, eskribitzeko modua baikizik, eskribitze-era edo eskribikera alegia; olakoetan «orto» sartzeta ezta batere egoki. Obe da beraz «Arana'ren eskribikera», «Azkue'ren eskribikera», «Baionako biltzarraren eskribikera» esatea.

Gaizki esanak barkatu. Ta ongi esanak onartu.

*Zatarain-darr Ambrosi'k*



## **Antziñako euskal hitzen formaz**

Zillegi bekit, hasterakoan, Oxobiren bertsoa gogoratzea:

*Eskerrak, Axulur.  
Bihi, bazka, indar  
egun eta bihar  
ba dakigu nun har:  
zu baitan!*

Batasunera buruz urrats handi bat egin nahiz gabiltza. Erabateko euskara berdiña gaurkoz erdietsi ezin bada ere, pausu batzuk eman behintzat, xede horretara hurbildu. Hau da guztion ametsa. Muga horretara nola heldu, ordea?

Beste hizkuntza eta herrialdeen jokabidea ikusiz, bide bat baiño gehiago dagoela ikasten da.

Herri batzuek hiriburu bat dute, herrialde guztiazen gainean ezin ukatuzko buruzagitza duen hiri edo ziudade bat. Orduan ziudade horretako mintzaira hartu izan da oiñarritzat. Hau uste dut izan dela Cataluñako kasua, eta bai frantsesarena ere. Guk zoritxarrez horrelako hiribururik ez dugu.

Italian beste jokabide bat hartu zuten. Eskualde jakin bateko mintzoa —Toscanakoa— hautatu zan, hura oiñarritzat hartu zan, eskiribatzaille ospetsu eta handiek aparteko dizdira eta itzala eman ziotelako mintzaira huni. Grezian ere horrelako zerbait gertatu zan: Atenasko mintzoa izan zan han oiñarri, alde batetik hiriburu, eta bestetik autore ospetsu eta famatuena sorleku zelako.

Guk gure egoerari, gure kasuari begiratuaz, zer egin genezake? Guk erdi aldeko dialektuetara jotzea erabaki dugu. Euskarak ba ditu bi dialektu pixka bat zoko egiten direnak: bizkaitarra mutur batean eta zubero-tarra bestean, biak nahiko bereziak. Erdian, berriz, ba da multzo bat Nafarroak, Gipuzkoak eta Lapurdik osatua. Erdialdera diogunean, multzo huntara esan nahi dugu.

Baiña entzun hau ondo. Euskaltzaindiak ezin dezake euskalkirik arbuia. Harentzat guztiak dira jatorrak, baliosak eta maitagarriak. Guztien ondasunak azter eta bil ditezela nahi du. Orai, euskara batu hori

behar dugun ezkeru, Euskaltzaindiaren obligazioa da, baita ere, bidea markatzea, batasun horretara heltzeko bide nondik den erakustea.

Eta erdialde hori hautatu badu, hori da, alde batetik hor dagoelako gure herriaren bihotza, eta bestetik, gure literaturaren kondairan halako abiadura edo joera bat nabari delako. Literatura-zeregiñetan erdialdeko euskara erabiltzera joera nabari delako, alegia. Bertsolariak, sermolariak, hizlariak, liburugilleak eta habar ditugu lekuko. Beraz, lehendik datarren abiadura huni eutsi eta jarraiki: hori da bidea.

Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi. Ba dira haatik desberdintasunak multzo hunen barrenean ere, eta ez txikiak. Nola egin batasuna horien artean? Gure literaturan bi tradizio dira nagusi: mugaz hemendik gipuzkoarra eta mugaz handik lapurtar zaharra. Bereziak dira, noski, baiña nahiko hurbillak, halere. Bi horien artean batasuna egitea ez da hain gaitza. Zoritxarrez gure mendean tradizio horretatik hastandu egin gera pixka bat, elkarrengandik aldenduaz eta urrunduz joan gera. Mugaz beste aldekoek lapurtar zaharrari leialtasun txikia gorde izan diote. Baitere tradizio gabeko lokalismuak sartu dituzte euskara idatzian, eta era horretara geroago eta gehiago elkarrengandik urruntzen hari gera. Maiz entzun izan diot bati baiña gehiagori —hemengo aldekoiei, noski— Axular, esate baterako, aise eta gustora irakurtzen dutela, baiña «Herria» astekariko zenbait lan ezin dituztela iretsi. Horrek esan nahi du orai baiña batuago geundela lehen. Eta erdi egiñik zegoen batasuna hautsi eta bakoitza bere aldetik abiatu gerala, txokoan txokoko txokokeriak euskara idatzian sartzeagatik.

Beharbada beste aldekoek gauza bera esan dezakete gugatik. Hemen ere gipuzkera literarioaren tradizioari ez zaio errespeto handirik izan eta berrikeria gehiegi sartu izan dugu.

Barraiatze hau, zatikatze eta elkarrengandik apartatze hau, nola erremediatu edo geldiarazi? Nik, egia esan, istillu huni nekez billatzen diot hunako hau baiña irteera edo soluzio-bide hoberik: hauta dezagula, alegia, denon artean autore bat, behiñolakoa, zaharra, guztion artean lotarri izateko gai dena, eta berau ispillu eta eredu izanik, hor izango dugu gure batasunarentzat oinarrria. Gauza denetan eta itsu itsuan ezingo dugu hartu, noski. Hizkuntza bizi batek bere eskubideak ditu. Ortografia, joserik eta hiztegia bera ere mendez mende asko aldatu da eta gero ere etengabe aldatuz joango da. Baiña hori gora-behera, egiunez (convencionalmente) referentzi-puntu bat guztiok daukagunean, horrek asko esan nahi du eta asko egin dezake elkarrenganatzeko eta nahi dugun batasun horretara hurbiltzeko.



Nik hartarako proposatzen dudan autorea zein den ba dakizute —ez da sekeretua—: Axular. Arrazoin askorengatik, noski. Bataz zaharra delako, eta zaharrak beti du halako dizdira eta prestutasun usaia. Eta berriz bestea, obra ospetsu, gizen eta jator baten egille dugulako, gure artean beste inork egin ez duen bezalako obra baten egille delako. Gaiñera, hango eta hemengo euskaldunen artean lokarri izateko guztiz egokia eta aproposa dugulako. Bera hemengo aldekoa baitzan, nafarra, hemen sortu, hazi, eskolatu eta gizondua; gero, berriz, han bizi izana eta Lapurdiko euskaran idatzitakoa, baiña hemengotik ere aski hurbil egonik. Batasun hauzi huni buru emateko horra bide bat erraza eta naturala, nere ustez. Bestela beti ibilliko gera orratzik gabeko mariñelak bezala galduak, txokokerietan sartuak, barraiatuak eta bata besteagandik geroago eta alden-duagoak.

Horrez ez du esan nahi (lehen ere esan dut) Axular gauza denetan eta itsu itsuan hartu behar dugunik. Hori ez da posible.

Herrialde eta hizkuntza denetakoek izan ohi dute aspaldiko autore edo liburu bat ere du eta bandera bezala. Ingelesek ba dute Shakespeare, italiarrek Dante, gaztelarrek Quijote, israeldarrek Testamentu Zaharreko Biblia, et. hab. Gu ere horrelako zerbaiten beharrean gera. Eta esan dudanez, Axular dugu egokiena.

Iturburuetara itzultzea: hori dugu gaurko kezka nagusienetako bat. Elizak eta Elizako Ordenek ere eginbehar hori egotzi diote bere buruari. Guk ere gure batasun istilluak erabaki nahi baditugu, gure antziñatasunari orai arte egin diogun baiño kasu gehiago egin beharko diogu.

Axularren «Gero», beste aldetik, gaur euskaltzale guztien eskuetan dago. Urte gutxiren buruan bi edizio berezi agertu baitira. Bat euskara hutsez 1954 an Zarautzen, gure euskaltzainburu maite Lekuona jaunaren ardurapean prestatua. Bestea erdal itzulpen ta guzti Barcelonan 1964-an.

Baiña ez da aski, nere ustez. Axular zimendutzat hartu nahi badugu, beste zerbait ere behar dugu euskaltzaleok. Hiztegi bat, alegia, haren hitzekin osatua. Aspalditxotik nabil ni lan huni lotua. Lan luzea da, baiña hirutatik bat gutxi gora behera egiñik dadukat: alfabetuko lehenbiziko zazpi letretako hitzak, alegia, egiñak ditut: a, b, d, e, f, g, h. Eta ez ditut hitzak bakarrik jasotzen. Hitz soillak gutxi esan nahi du bere inguru edo kontestutik aterata. Horregatik exenpluak ere erruz jasotzen ditut, hitzaren enplegua edo erabilkera ikas dedin. Gaiñera hitz bat zenbat aldiz eta zein pasartetan azaltzen den ere jakin araziko digu hiztegi horrek. Arantzazuko zenbait ikasleren laguntzarekin jaso ziran liburu osoaren hitzak fitxetan. Baiña orai fitxa horiek denak aztertzea, egiztatzea, ordenatzea



eta garbitan jartzea neronek bakarrik egin behar izaten dut. Soseguz eta arretaz egin behar den lana da. Baiña esan dudanez, hirutatik bat egiña dago.

Azterturik dauden zazpi letra horietan zenbat hitz azaltzen diren jakin nahi baduzue, aurki esango dizuet: 1668 (izen propioak ez dira kontu hunetan sartzen, jakiña). Hitzen maiztasunari begiratuta, batzuk behin bakarrik agertzen diren horietakoak dira (hapaxlegomena). Beste batzuk bi edo hiru aldiz, gutxitan edo dexente aldiz. Beste batzuk, berriz, maiztasun handikoak. Horri ere kasu egin behar zaio. Hitz bakan, meatz eta gutxi erabilliak, gaur gutxi edo batera ezagutzen ez direnak ezin dituzke maiztasun handikoekin berdindu edo mailla berean jarri. Zabalduenai, gehien erabiltzen direnei eman behar zaie lehen tokia. Hauk behar ditugu indartu, finkatu, hizkuntza nahi badugu bere oiñarrietan sendo ezarria eta erroztatua utzi.

Jakin beharrekoa dela uste dut Lafitte jaunak Euskaltzaindiko batzarre batean gogoratu zigun harako hura. Euskaltzaleok euskararen aberastasunaz sobera arroxko eta fier izaten gera. Gauza bera esateko makiña bat hitz dagoela euskarari eta hori ondasun anditza jo izan dugu. Ez ote dira, gero, aberastasun kaltegarriak? Lafitte jaunak, bada, hauxe gogoratu zigun: frantsesaren egoera XVI gn. mendean eta egungo euskararena berdin xamarrek direla. Frantsesak ba zuen orduan zer-nahi hitz gauzak esateko. eta hortik zera sortzen zan: elkarrekin ezin aditzea, hitz gehiegi zegoelako. Baiña zorionez autoreak etorri ziran murrizte lana egitera. Murriztu, soildu, kendu, baztertu, hitz beharrenak hautatu, horiek erabilli. horiek zabaltu, horiei indar eman. Bide horri jarraikiz indartu eta finkatu zan frantsesa. Gu, berriz, ibilli gera inun diren hitz bakan eta ezezagunenak berpizten eta zabaltzen eta lan hori egin da guztiok ezagutzen ditugun hitz nagusien kaltetan. Dakizuten bezala, Lafitte jaun bera dabil orai euskarak beharren dituen hitz nagusi horien hiztegi bat egiten.

Batasun kontu hunetan urratsik egin nahi badugu, beraz, hiztegiaren hauziari kasu egin beharko diogu. Eta hauxe da neri batzarre hunetan egotzi didaten saila: euskara batuan erabilliko diren hitzen forma. Forma esatean ez dut ortografia esan nahi. Ortografiaren puntua Mitxelena jaunak ukitu du. Berak ohi duen jakinduri eta maisutasunaz ukitu ere. Baiña ortografia erabaki ondoren, zein hitz erabilliko den, eta zein itxura, tankera edo formakin erabilli behar den jakiten ere ba dira lanak.

Nere barruti hau hobeki mugatzeko, esan dezadan euskal hitz zaharrez edo hizkuntzan aspaldidanik sustraituez hari naizela. Horietaz gaiñera, hitz berrien premian ere ba da gure euskara, beste edozein hizkuntza bezala edo gehiago. Hitz berriak, nahiz euskarak berak dituen gaietatik

eratuak, nahiz beste hizkuntzetatik hartu behar ditugunak. Baiña hitz berrien kontu hau beste norbaitek jorratuko du: Zatarain jaunak, alegia.

Euskal hitzez hari naiz ba. Euskara batuan erabilli behar diren hitzez eta hitz horien formaz.

Eta aurrera joan baiño lehen gogora ditzadan puntu nagusi batzuk. Lehenago Euskaltzaindiak erabaki zituenak dira, baiña gure hauzi hune-tan ezin utzizkoak.

Zer ta zein da euskal hitza guretzat? Euskarak aspaldidanik erabiltzen duena. Euskaldun guztiek edo gehienek erabiltzen duten hitza, beste gabe, onartu beharrekoa da. Gurea da eta gure hiztegieta toki bat zor zaio. Hitz baten jatortasuna bere antziñatasunaren ondorea da. Hitz hura nondik datorren, zer etimologia duen eta habar, hori beste kontu bat da. Linguistek azter eta argi dezatela hori ere, nahi badute edo ahal badute, baiña gure konturako axola guti du horrek. Hitz bat, nun-mahitik hartu izanagatik, gurean erroak egiña bada, gurea da, eta ez dugu hura baztertze-ko eskubiderik. Ez ote da lotsagarri (edo parregarri) gure hiztegiekin gertatzen dena? Askotan euskaldun jatorrek, euskaraz baizik ez dakiten gure gizon eta emakumeek maizenik eta egunoro aho-mihitan hartzen dituzten hitzak ez dira gure hiztegieta aurkitzen, eta orien lekuan euskaldun hutsek erabiltzen ez dituztenak eta ezagutzen ere ez dituztenak aurkitzen dira. Frantsesean edo beste hizkuntza landuetan hori gertatuko balitz, a zer irriak egingo lituzketen frantsesek berek edo hizkuntza horietako semeek! Oraindik denbora asko ez dela, Artetxe jaunak berari gertatua kontatu zidan. Norbaitek galdetu zion «alproja» hitzak ea zer esan nahi zuen. Euskal hiztegieta jo zuen. Alferrik. Han ez zan ageri, nahiz eta euskal hitz arrunta izan. Eta zenbat holako! Ba da herri-kantu bat: «Iruñeko ferietan». Ez da luzea. Hala ta guztiz ere, ba dira kantu hune-tan 26 hitz hiztegieta ez datozenak (Lafitte jaunak kontatua)...

\* \* \*

Euskaraz gauza bera adierazteko, askotan, hitz bat baiño gehiago dugu. Gehiegi ere bai dexente aldiz. Toki batean bat erabiltzen da eta bestean beste bat. Zer egin orduan? Hemen bi (edo hobeki esateko, hiru) kasu behar dira berezi.

Lehenbiziko kasua: gauza bat esateko erabiltzen diren hitzek ez dute elkarren artean senidetasunik. Ez dute itxuraz zer ikusirik elkarrekin. Esate baterako «jausi» eta «erori»: adierazpen berdiñekoak, biak jatorrak, euskaraz sustraituak eta hitzaren itxurari bagagozkio, desberdiñak, dife-

renteak. Hitz sail luzea aipa diteke kasu berean: abade/apaiz, lotsa/ahalke, aitzin/aurre, erbiñude/ogigaztai, amarau/armiarma, igel/ugarazio, edo mitxeletak dituen hainbeste izen: pinpirin/txinbeleta eta habar. Gaiso/eri, hordi/mozkor, ezer/deus, gibel/atze, arerio/etsai/izterbegi. Kasu hunetan daude hillabeteen izen asko ere: urtarri/ilbeltz, otsail/zezeil, irail/buruil/agor, azaro/zemendi, abendu/lotazil.

Bigarren kasua: Hitzak erro batekoak izanik ba dute elkarren eitea, baiña aldaketak gertatu dira tokitik tokira (meras variantes). Hitz bera dela bistan da, baiña hitz hori ez da berdin esaten: toki hunetan era batera eta beste horretan beste horretara. Hitz bera bai, baiña aldaketa askorekin. Ejenplu sail luzea ekar diteke hemen ere: berri/barri, beltz/baltz, gezur/guzur, eztaiz/ezteiz/eztegi, anima/arima, igerri/igarri, esan/erran, nabusi/nagusi/nausi, probetxu/protxu, beste/bertze, denpora/denbora, berdin/bardin, bazter/baztar, bider/bidar, pekatu/bekatu, handi/haundi, iñor/nehor, euskera/euskara/eskuara, burdin/burni, dena/dana... eta horrela aspertu arte luza genezake hunelakoen zerenda.

Hirugarren kasua: Hitz bera sentidu desberdiñakin erabiltzen deanean. Toki batean gauza bat esan nahi du eta beste toki batean beste gauza bat. Horrelakoak ere gertatzen dira gure euskaran. 'Begiratu'-ren sentidua ez da berdiña mugaz hemendik eta mugaz handik. 'Lepo' ez da gauza bera gipuzkoarrentzat eta bizkaitarrentzat, 'behatz' ere ez.

Zer egin oihan beltz hunetan? Nola hartu batasuneko bidea hainbeste desberdintasunen artean?

Lehenbiziko kasuan: bi edo hiru hitz adierazpen berdiñekoak, baiña gaiñerakoan erabat diferenteak ditugunean, hobe dugu bat bakarra eduki eta beruni lotzea. Zein hautatu, ordea? Euskaltzaindia ez da nor herriko hitz jator bat baztertzeko edo arbuiaitzeko, baiña erabillien eta zabalduen direnei lehen tokia eman dezaieke. Eta zabalduenak edo erabillienak zein diren jakiteko, euskara idatzari begiratu behar diogu, literario hizkera izkiriatua baita, mintzatua baiño areago. Batzuei min ematen die hitzen murrizte egin behar izate hunek, baiña hizkuntzaren biziak eskatzen duen gauza da. Gauza bat adierazteko hobe dugu hitz bat bakarra eduki. Gogora dezagun frantsesak egin zuen iñaustea. Kaltegarri diren aberastasunen zalekeri gehiegia izan dugula uste dut.

Batzuek, hitzen ugaritasun hau gorde nahiz, zera asmatu dute: bi edo hiru hitz adierazpen berdiñekoak direnean, bakoitzari zerbait bereizgarri erantsi, eta orduan ez lukete adierazpen guztiz berdiña izango: antzekoak, sinonimuak izango lirake, baiña bakoitza kutsu berezi batez hornitua legoke. Gizonak, ordea, ez du horrelako aginpiderik hizkuntza

bizi baten gainean. Guk ezin goberna dezakegu hizkuntza horrenbesteraiaño. Ez dago gure eskuan hitzen sentiduak gure nahierara aldatzea. Beraz, adierazpen berdiñeko hitzen artean bat hautatu, zabalduena, erabiliena, eta besteak pixka bat baztertu. Murrizte lan huni beharrezkoa derizkiot, ezpaita hemen beste biderik ikusten.

Bigarren kasua da hitz berbera itxura edo aldaketa bat baiño gehiagokin erabiltzen denean. Itxura, forma edo aldaketa horietatik bat behar da hautatu eta literario hizkuntzan hura bakarrik erabili. Hautatze hau egitea ez da beti gauza erraza izango. Kriterio bat baiño gehiago izan ditekete, gainera. Bazter aldeko eta erdi aldeko formen artean, erdi aldekora jotzea. Forma zahar eta berriaren artean, zaharra hautatu, et. hab. Beti kasu denetan zein hautatu behar den erabakitzea ez da erraza izango; baiña dextente aldiz bai.

Hirugarren kasua: Hitz batek sentidu desberdiñak dituenean, erdi aldeko literaturan finkatua dagoena hartu. Eta erdialde horretan batasunik ezpadago, erabiliena edo literaturan jatorrena dena.

\* \* \*

*Bodega* eta *Petaka* hitzetan ageri diren konsonanteen artean maiz egiten da trukatzea edo batetik bestera aldatzea euskaran. Jeneralean bodegakoak dirudite jatorragoak eta zaharragoak. Esate baterako jatorragoak dira bake, bekatu, denbora, aldare, dorre dolare, gidatu, giltza, beste hunako hauk baiño: pake, pekatu, denpora, altare, torre, tolare, kidatu, kiltza, etc. hab. Baiña batzuetan forma bat jatorra eta zaharra izanarren, utzi egin beharko da, bestea askoz gehiago zabaldua badago.

Muga dugu bereizle handia bi Euskalerrien artean, eta geroago eta gehiago, gainera. Gaurkoz eta kasu denetan mugaz hemendik eta mugaz handikoen artean batasun osoa erdiestea ez da erraza izango, baiña horretan enseiatu beharko dugu.

«O» letrak in bukatutako hitzetan, hitz horiek hitz berrien sortzaille gertzatzen direnean, «o» hura «a» bihurtzen da, baiña «o»-kin ere esaten dira hitz berri horiek zenbait aldiz. «A» duten formak dira jatorrenak, eta hauk hautatu beharko dira, gehienetan behintzat. Adibidez, astotik astakume, eta ez astokume, astakillo, ez astokillo, astabizkar eta ez astobizkar, astakeria, ez astokeria. Oillotik oillategi, ez oillotegi, eta habar.

Hemen ezin hasi gindezke orai euskararen hiztegi osoa eta euskal hitz denak bana banaka aztertzen, zein hautatu eta zein baztertu beharko

den jakiteko. Hauzi luzeegia litzake. Baiña bidea urratu behintzat egin beharko da. Axularren hitz zerrendatik hariko naiz.

Axularrek ba du ohidura (hitz elkartuetan) hiru konsonante eta iñoiz lau ere bai bata bestearen ondoren idazteko. Adibidez, hotztu, hitz-kuntza, hotzki, hotzberatu, hotztasun eta habar. Guk hunetan, euskal fonetikari jarraikiz, hoztu, hustu, hizkuntza eta abar idatziko ditugu horiek eta kasu berean dauden hitz guztiak.

Beste batzuetan, berriz, «l», «r» ala «n» letraren urrengo, berak «s» ala «z» bakarrik jartzen duenean, guk, gaurko euskal fonetikari jarraikiz, «ts» eta «tz» jarriko dugu. Esate baterako «entzun», ez «enzun»; «entzute», ez «enzute».

Axularren hiztegitik jasoak izango dira hemen aipatuko ditudan hitzak, baiña han dauden hitz denak ez ditugu aztertuko. Hitz batzuk zabalgo gutxikoak dira edo gutxiegi ezagunak. Beste batzuk, berriz, bat ere dudarik gabe eta dauden daudenean onartzekoak, zabalera eta maiztasun handikoak direlako. Guk dudazkoak bakarrik aztertuko ditugu: ikurpen bereko beste itzen bat dagoenean, edo hitz berberak toki batean ikurpen bat eta bestean beste bat daukanean, edo hitz batek beste variante batzuk dituenean. Hitzen zabalgoa eta aldaketak jakiteko, Azkueren hiztegiak eta Mitxelenaren «Fonética Histórica Vasca» liburuaz baliatu naiz.

\* \* \*

Eta hasteko, hor dugu «abade». Axularrentzat «abade», monjeen aita nagusia. Bizkaian, berriz, abade zera da: «cura», «sacerdote» eta Nafarroako zenbait lekutan «párroco» ere bai, uste dut. Euskara batuan Axularrek ematen dion ikurpenarekin xoilki erabilli beharko genduke hitz hau. «Cura» edo «sacerdote» esateko, hor dugu «apaiz». Eta «párroco» esateko, «erretore».

*Abre/abere.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Beharbada hemen bien-tzat izan ditekela lekua. Abere izango litzake «bestia» (animal en general); eta abre, «bruto». gaizki esan bat. Uste dut bereizkuntza hau ez dela nik asmatua, gutxi asko erabillia baizik.

*Absolbatu* eta *absolbazino* (= absolver, absolución). Huna hemen erdaratik hitz bat, baiña gurean lur hartua eta behar duguna. Forma zahar eta jator hau ezagutzen edo haintzat hartzen ez delako, erdal hutsak hartu behar izaten ditugu: «absolbidu», «absoluzio» eta habar. Gaztelaniaz *nión*, *ción*, *gión*, *sión* bukaera duten hitzak, Gipuzkoako euska-



ran *nio*, *zio*, *sio*, *jio* bukatzen dira; adibidez: «komunio», «orazio», «okasio», «erlijio». Lege horren arabera, absolbazino ere absolbazio izango litzake. Bizkaieraz, berriz, ñ sartzen da i eta o horien artean. Mugaz beste aldean batzuetan *ino* eta beste batzuetan *ione* bukaera aurkitzen dugu. Euskara batuan zein hautatu behar da? Bukaera modu bat behar litzake kasu guztietarako. Orazio, oraziño, orazione... Denak erabilliak, baiña beharbada lehenbizikoa, gipuzkoarra, erabilliena eta euskal fonetikaren lege jakin bati hobeki dagokiona: bokalen arteko «n» galtzeko joera baitu euskarak. Ikus FHV 148.

Gero *adimendu* ala *adimen*? Axularrek lehenbizikoa dakar. Eta berau uste dut dela jatorrena eta hedatuena (Azk. Dic.) «Adimendutsu» ere erabiltzen du Axularrek.

*Adio* ala *agur*? Axularrentzat «agur egin» zera da=saludar, eta «tributar veneración» ere bai. Baiña «despedir, dar una recomendación al partir», «adio egin» esaten du berak. Gure artean nahastea etorri da «agur» hori «despedir» esateko erabiltzen dugulako, baiña Gipuzkoan gaur eguneon ere hortarako, «agur» baiño gehiago erabiltzen da «adio». Komeni litzake «adio» gorde Axularrek ematen dion ikurpenarekin, eta «agur», berebat, «saludar» edo «venerar» adierazteko utzi.

*Afari/apari*. Zein hautatu? Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela hedatuena. Beraz, afari, afaldu, afal ondoan.

*Ageri* ala *agiri*? Axularrek lehenbizikoa dakar, eta berau da hedatuena (Azk. Dic.). Gero hor dugu agertu, arrunt ezaguna eta zabaldua; baiña Axularrek agerrian eta agerriz ere ba dakar, bi r-kin.

*Agian/ beharbada/ apika/ benturaz*. Axularrek lehenbizikoa eta azkenekoa erabiltzen ditu. Beharbada kasu hunetan denentzat dago tokia, antzekoak baitira, sinonimuak, ez berdiñak.

Gero hor dira *ahalke*, *ahalkesun*, *ahalketu*. Gure aldean ez dira erabilliak (Nafarroako alde batzuetan izan ezik). *Lotsa*, *lotsatu* esaten dugu guk. *Lotsa* baztertu eta horren ordezt *ahalke* hartzea ez da erraza izango guretzat; eta beste aldekoiei berdin gertatuko zaie «ahalke»-ren ordezt «lotsa» hartu behar badute. Zer egin, beraz? Beharbada, gaurkoz, biak erabilli. Eta geroak esango du.

*Ahantzi/ahastu*. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du, eta Euskalerri osoari begiratuta, bera da hedatuena. Euskara batuan ahantzi hartu beharko litzakela uste dut.

*Ahitu/ akitu/ aitu*. Hemen lehenbizikoa, «h» erdian duena uste dut hartu behar dela. Hau da Axularrek dakarrena, jatorrena eta euskara batuan erabiltzeko egokiena.

*Aho/ ago/ abo/ ao.* Axularrek lehenbizikoa dakar. H-dun forma uste dut dela egokiena, beste guztiak baztertuz.

*Aingiru/ aingeru.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Hemen «aingeru» uste dut dela zabalduena. Ikus FHV 79.

*Aipatu/aitatu.* Dударик gabe, lehenbizikoa da hedatuena.

*Aise/ erraz/ samur/ eroso.* Denentzat dago tokia. Sinonimuak dira, baiña ez berdiñak.

*Aitzin ala aurre?* Hemen ere istillu txar bat dugu. Sarkaldeko euskalkiek aurre, aurrera, aurrerapen eta abar esaten dute; eguzkialdekoek aitzin, aitzin-alde, aitzinamendu eta habar. Ez dut uste gaurkoz batak bestea bazterrera lezakenik. Biak erabilli eta geroak esango du.

*Aldare/ altara.* Lehenbizikoa da hemen hedatuena.

*Alfer/ alper.* Lehenbizikoa hemen ere.

*Altzairu/ galtzairu/ kaltzairu.* Hemen bigarrena uste dut hautatu behar dela, nahiz eta Axularrek lehenbizikoa ekarri. Ikus FHV 252.

*Amorio/ amodio/ amudio/ maitasun.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski hedatuena. Ikus FHV 228. Amorio eta maitasun ez dira berdiñak, eta biak gorde behar ditugu.

*Anaia ala anai? anaiatasun ala anaitasun?* Axularrek lehenbiziko formak dakarzki eta Euskalerrri osoari begiratuta, beharbada hedatuena dira. Gipuzkoan «a» orgánica hori errazki kentzera oituak daude. Ikus FHV 175, 176s, 222, 305.

*Anitz ala asko?* Hemen ere bitaratuak edo bereziak daude sarkaldeko eta eguzkialdeko euskalkiak. Ez dut uste gaurkoz hitz horietatik batak bestea bazterrera lezakeanik. Gaiñera, Axularrentzat «asko», «bastante» da, ez guretzat bezala, «mucho».

*Antsia/ axola/ ardura.* Axularrek lehenbizikoa eta hirugarrena erabiltzen ditu, erdikoa ez, baiña hala ere «axolduritu» enplegatzen du. Beharbada hiru hitz hauk antzekoak bai, baiña erabat berdiñak edo adierazpen berekoak ez dira, eta hirurak gorde ditezke.

*Antze ala trebetasun?* Axularrek lehenbizikoa dakar. Beharbada biak dira onartzekoak, erabat berdiñak ez izaki.

*Aparailu/ apareju.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Erdaratiko hitza da, baiña jator eta egoki euskaldundua. Berau uste dut hartu behar dela, eta ez bigarrena.

*Apez ala apaiz?* Axularrek lehenbizikoa dakar. Hemen ere eguzkialdera apez, sarkaldera apaiz esan eta eskiribatzen da. «Apaiz» da, noski,



zaharragoa eta jatorrizko itxuratik hurbillago dagoena. Ikus FHV 117, 229.

*Apo ala zapo?* Hemen ere, beste anitzetan bezala, bitaratuak gaude sarkaldeko eta eguzkialdeko euskaldunak. Lehenbizikoa da Axularrek dakarrena, eta berau uste dut dela zabalduena. Ikus Azk. Dic. Beraz hau hartu beharko litzake.

*Apostolu/ apostolo.* Lehenbizikoa.

*Arantze/ arantza.* Axularrek beti dakar «arantze», «batzarre», «baratze», «heriotze» eta habar. Hitz hauken bukaeran ere ez dago gure artean batasunik. Batak «baratz» jarriko dizu, besteak «baratze», besteak «baratza». Axularren jokaera izango litzake hoberena batasuna egiteko.

*Arazi/ erazi/ arazo.* Axularrek beti erabiltzen du arazi (galarazi, geldiarazi). Hemen ere Axularren jokabidea izango litzake egokiena, erazi, arazo eta horiek kenduaz.

*Ardandegi/ ardantegi.* Lehenbizikoa.

*Arima/ anima.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta gaur eguneon ere bera da hedatuena. Beraz, berau hartu beharko litzake. Ikus Azk. Dic.

*Arnegatu/ ernegatu.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena. Ikus FHV 164. Beraz bera hartu behar da. Eta horren senideak diren beste hitz hauk ere bai, noski: arnegari, arnegu.

*Arno/ ardo/ ardao.* Hiru forma hauk gutxienez (eta gehiago ere aipa ditezke) dauzka euskarak, «vino» deritzaion edaria izendatzeko. Zein hautatu? Axularrek «arno» dakar noski. Baiña Euskalerri osoari begirata, bigarrena uste dut dela zabalduena: «ardo», erdikoa. Ikus FHV 151.

*Artzai/ artzain.* Axularrek bigarrena dakar (hobeki esateko, arzain jartzen du berak; baiña gaurko euskal fonetikari jarraikiz «tz» jarri behar da). Hemen ere hedatuena «artzain» uste dut dela: beraz hau onartu behar da. Ikus FHV 144. Bukaerako zai edo zain hau beste hitz askoren sortzaille gertatzen da, eta denetan gorde behar litzake forma bera: ate-zain, mandazain eta habar.

*Arzipizpiku.* Hala dakar Axularrek «arzobispo» esateko. «Arzobispo» esatea baiño hobe genuke forma zahar huni lotzea.

*Arrai/ arrain.* Axularrek beti «arrain» dauka, erdarazko «pez» esateko. Berau uste dut dela formarik hedatuena. FHV 144. Arrai, gaiñera, beste gauza bat da (=afable), eta nahasterako bidea lekarke.

*Arrau/ arraun* (=remo). Axularrek lehenbizikoa dauka, eta berau da hedatuena. FHV 152. Hau hartu behar litzake, ba.

*Arrazoi/ arrazoin.* Axularrek arrazoin dakar eta berau da hedatuena. FHV 148. Hau hartu behar litzake, ba.

*Arropa/ erropa.* Axularrek lehenbizikoa dauka. Bizkaitar-gipuzkoarrek bigarrena erabiltzen dugu. FHV 156. Lehenbizikoa onart diteke, hedatuena baita.

*Arrosa/ larrosa.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da hedatuena. Azk. Dic. FHV 156. Axularrena har diteke, beraz.

*Arroxina/ erretxin* (=resina). Axularrek lehenbizikoa dakar; baiña hemen beharbada «erretxin» izango da formarik hedatuena. FHV 155. Azk. Dic.

*Aski* eta *asko*, biak ageri dira Axularren eta biek dute adierazpen berdin xamarra: «bastante». Asko izan=bastar. Guretzat, berriz, lehenbizikoak «bastante» eta bigarrenak «mucho» esan nahi du; eta bereizkuntza hau gorde beharrekoa dela uste dut.

*Asmo* ala *asmu*? Axularrek bigarrena dakar. Sartaldekoek lehenbizikoa erabiltzen dugu. Oso hitz arrunta da guretzat. Beharbada halako bereizkuntza bat ere egiña dago «asmo» eta «asmu»-ren artean. Asmo da «propósito», «proyecto»; asmu, berriz, «ingenio» edo «maniobra ingeniosa». Asmutsu ere hor dago (=sagaz, ingenioso).

*Astelegun/ astegun.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Beharbada hemen bigarrena da jatorrena eta hedatuena. Azk. Dic.

*Ate/ borta.* Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du eta bera da noski hedatuena.

*Atera/ atara/ etara.* Lehenbizikoa dakar Axularrek eta berau da hedatuena.

*Ateri/ aterri.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hedatuena.

*Atxakia* ala *aitzaki*? Axularrek lehenbizikoa dakar. Aitzaki uste dut dela hedatuena FHV 184.

*Atzeman/ atzaman/ atxeman.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hedatuena eta jatorrena. Azk. Dic.

*Aurkitu* ala *arkitu*? Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da zabalduea FHV 95. Ikus beherago «Ediren».

*Aurtiki/ jaurti/ jaurtigi.* Lehenbizikoa da zabalduea eta hautatzeak; Axularrek dakarrena, noski. FHV 101.

*Baimen/ baimendu/ baimendura.* Axularrek bigarrena dakar. Baiña «baimen» uste dut dela hedatuena. Azk. Dic.

*Baiña ala baiño?* Axularrek ez ditu behin ere nahastutzen. Harentzat baiña erdarazko «pero» bezala da (eta «sino» bezala ere bai); eta baiño, konparativua da betiere. «Hau hori baiño zuriagoa da». Gipuzkoan «baiña» eta «baiño» nahastuta erabiltzen dira; «baiña» behar den lekuan «baiño» sartzen baitute. Ez lirake nahastu behar.

*Baizen/ bezain/ bezin* (=sino). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hartzekoa. FHV 178.

*Bake ala pake?* Axularrek «bake» dakar eta berau da jatorrena. FHV 51, 218.

*Bakotx ala bakoitz?* Axularrek lehenbizikoa dakar. Baiña hemen bigarrena uste dut dela jatorrena eta zabalduena. Azk. Dic. Ikus bat-bedera.

*Balios ala baliotsu? ala balioso?* Axularrek lehenbizikoa dakar, eta orobat baliostasun (=valor, precio). Hunela bukatutako adjetivuek sailla osatzen dute Axularren euskaran: abarizios, biktorios, lorios, desiros, dudos, golos, gutizios, hiros... Adjetivuak formatzeko orduan hain urri eta lander ibiltzen geran ezkerro, beharbada kontuan eduki behar litzake forma hau. Hedadurari bagagozkio «balioso» uste dut dela hedatuena. Azk. Dic.

*Baratzuri/ baratzuri/ berakatz.* Axularrek lehenbiziko biak dakarzki. Aurrenekoa da, noski, zabalduena. Azk. Dic.

*Baratze/ baratza/ baratz/ ortu.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut hautatu behar gendukela.

*Barazkari/ bazkari.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Baiña gaur bazkari da hedatuena. Azk. Dic.

*Barkatu ala parkatu?* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski jatorrena eta hautatzekoa.

*Barur/ barau/ baraur/ baru.* Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña «barau» uste dut dela formarik hedatuena. FHV 97. Azk. Dic.

*Barraiatu ala barreatu?* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da, beharbada, formarik hedatuena. Azk. Dic.

Gero hor datoz *Barren, barrena, barrenalde, barrenkor*... Axularren euskaran denek dute zer ikusi «interior», «íntimo», «cosa de dentro» ikurpenarekin. Baiña hor daude «Barne» (hedadura handikoa. Az. Dic.) eta «barru» (bizkaitarra) ere. Bizkai aldean eta Nafarroa beheko zenbait lekutan «barren» ez da «interior» edo «cosa de dentro»; «cosa de abajo» baizik. Erdi aldeko literaturari segituz «barren» eta «barne» har-

tu behar lirakela uste dut eta «dentro», «interior» adierazteko hartu ere. FHV 165. Azk. Dic.

*Barride/ hauzo/ hauzoko* (=vecino, convecino, del mismo barrio). «Hauzo» da noski onartzekoa. Bai «vecino» eta bai «vecindad» ere esan nahi du. FHV 93.

*Bat bedera* (=cada uno). Adierazpen hunekin darabil hitz hau Axularrek, eta usu erabilli ere. Guk adierazpen horretarako «bakoitz» erabiltzen dugu. «Bat bedera» hedadura txikikoa izanik (Azk. Dic.), besteak («bakoitz» hitzak) onartzekoa dirudi.

*Batzarre/ batzar*. Axularrek «batzarre» dakar eta berau uste dut dela onartzekoa.

*Batzuek/ batzuk*. Axularrek biak dakarzk, baiña oker ez baldin banago, bereizkuntza bat daki egiten. Hunela esango du: «Batzuek egiten dute», baiña «Batzuk etorri dira». Agente denean, «batzuek»; bestela, berriz, «batzuk».

*Batzutan/ batzuetan*. Axularrek beti lehenbizikoa dakar.

*Bazko/ pazko*. Axularrek lehenbizikoa dakar. Sartaldeko euskaldunek «pazko» esaten dugu, baiña «bazko» da beharbada jatorragoa eta bai zabalduagoa ere (Azk. Dic.).

*Bazter/ baztar*. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena eta jatorrena. FHV 62.

*Bedere/ bederen/ bederik*. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña bigarrena da hedatuena. Azk. Dic.

*Begiratu/ behatu*. Axularrentzat «begiratu» eta «behatu» bi gauza diferenteak dira. Lehenbizikoak «cuidar», «proteger» esan nahi du; bigarrenak, berriz, «mirar». Sartaldeko euskaldunek «behatu» ez dugu erabiltzen eta heronen sentidua «begiratu»-ri eransten diogu. Eta mugaz handikoek «begiratu»-rekin esan nahi dutena guk «gorde», «zaindu» edo horrelako beste hitz batekin azaltzen dugu. Nola zuzendu nahaste hau? Izango dira lanak. Nolanahi ere «behatu» ezin da baztertu, hedadura handikoa baita. Eta «begiratu» ere ez, noski.

*Begitarte/ aurpegi/ arpegi/ bisaia/ musu*. Axularrek lehenbizikoa bakarrik dakar. «Aurpegi» eta «arpegi»-ren artean lehenbizikoa hartu behar da, zabalduena baita FHV 95. Gaiñerakoan lau hitz hauk ez dut uste erabat berdiñak direnik; ikurpen edo adierazpen antzekoa dutenak bai, baiña ez osotoro berdiña. Beraz, hirurak gorde ditezke.

*Beharri/ belarri*. Axularrek lehenbizikoa dakar eta mugaz handikoek hala idazten dute orai ere. Vokalen arteko «h» horren ordez sarri

sartzen dugu guk g, r edo l, hemen bezala. Hoberena litzake horrelako kasuetan beti «h» idaztea eta kito, mugaz handikoen ohidurari jarraikiz. FHV 221.

*Behaztopa/ behaztopa-harri/ oztopo.* Axularrek aurreneko biak dakarcki. Beharbada hemen ere ikurpena ez da erabat berdiña. Lehenbiziko biek «tropiezo» esan nahi dute; hirugarrenak «obstáculo». Eta hiruren-tzat dago tokia. Azkue-ren hiztegian «oztopo» ez da aurkitzen.

*Beheiti.* Axularrek elkarrekin joko zerbait duten hunako hitz hauk erabiltzen ditu: goiti=altura, beheiti=bajura, goititu=levantar, beheiti-tu=abajar. Forma horiek mugaz handiko aldean eta bai Nafarroan ere zerbait zabalduak daude. Baiña «goi» eta «behe» dira ene ustez hedatue-nak eta egokienak.

*Behera/ bera* (=abajo). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau hautatu behar da, duda gabe, osoa delako eta besteak beste ikurpen bat duelako (=mismo, blando).

*Behereko/ beko.* Hemen ere lehenbizikoa da hartu behar dena.

*Bekatore/ bekatari/ pekatari.* Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen bigarren forma litzake jatorrena.

*Bekatu/ pekatu.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski jatorrena eta onartu behar gendukena.

*Bekoki/ kopeta/ belar.* Beharbada hirurak dira onartzekoak, ikur-pena antzekoa bai, baiña berdiña ez izaki.

*Beldur/ bildur.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski zabalduena eta hautatu behar dena. FHV 63. Azk. Dic.

*Belaunikatu/ belaurikatu, belauriko/belauniko.* N-dun formak dira egokienak eta erabilienak. FHV 309. Azk. Dic.

*Beltz ala baltz?* «Beltz» da noski zabalduena. FHV 63.

*Benedikatu/ bedeinkatu/ bedeikatu.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Hemen ere bitaratuak gaude sortaldeko eta sartaldeko euskaldunak. Sar-taldekoek «bedeinkatu», eguzkialdekoek «benedikatu». Zein hautatu? Hu-netan, nik ez dakit, baiña jatorrago eta egokiago iruditzen zait «bedein-katu». «Benedizione» eta «bedeinkazio»-ren artean ere bigarrena hartuko nuke.

*Bere* (=su). Axularrek «bere» erabiltzen du, bai singularean eta bai pluralean ere; gipuzkoarrek azken kasu hunetan «beren» jartzen dute. «Beren etxeetan» = en sus casas. Axularrek hor ere «bere» esango luke. Baiña beste diferentzia handi bat nabari da «bere»-ren erabilkeran. Axu-larrek —eta berarekin batean mugaz beste aldekoek eta bai hemengo na-

farrek ere— «bere» erabiltzen dute jabaduna orazioaren sujetua denean; eta bestelako kasuetan ez dute «bere» esaten, «haren» baizik. Gipuzkoarrek eta bizkaitarrek, berriz, beti «bere» kasu denetan. Ejenplua: aitak bere semea maite du (kasu hunetan denok erabiltzen dugu «bere»). Baiña: Pedro ikusi al duzu? Bai. *Bere* etxean egona naiz. «Haren etxean» esango lukete hemen, bizkaitar eta gipuzkoarrek ez, beste denek. Ba dira Jainkoaren laudorio batzuk, gure Jauna agerian dela elizetan esaten direnak: «Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa: Bedeinkatua izan bedi *bere* izen santua», hala esango dizute Gipuzkoa eta Bizkaiko elizetan; Nafarroan, berriz, «Bedeinkatua izan bedi *haren* izen santua...» eta horrela dator laudorio sail guztia: denetan «bere» horrek «haren» behar luke izan; gero azkenengoan berriz, «Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa bere aingeru eta santuetan», hor bai, «bere» ongi dago. Uste dut Orixek ere salatu zuela «bere»-ren oker erabiltze hau. Batasunari jarraikiz uste dut hunetan euskaldun gehienek legea hartu behar gendukela guk, bizkaitar eta gipuzkoarrok.

*Berdin/ bardin*. Axularrek «berdin» erabiltzen du, eta hau da noski zabalduena eta hartu behar dena. Axularrentzat «berdin» hunek ba du beste sentidu bat ere: «al fin y al cabo», «en fin de cuentas» edo horrelako zerbait adierazteko ere erabiltzen du.

*Bertute/ birtute*. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du eta berau uste dut dela zabalduena.

*Bertze/ beste*. Axularrek «bertze» dauka. Hunetan ere bitartuak gaude sortaldeko eta sartaldeko euskaldunak. Mitxelenak dionez (FHV 363), «beste» da forma hedatuena. Hau hartu beharko litzake euskara batuan. Eta (jakiña) «bestela», ez «bertzela».

*Berri/ barri*. Axularrek «berri» dauka, eta hau da noski hedatuena. «Berriz», ez «barriz».

*Besta/ pesta/ festa*. Axularrek «besta» dauka eta berau uste dut dela jatorrena eta hautatu behar litzakena. Beste aldetik hor dugu «jai» ere. Uste dut «jai» eta «besta» bi-biak gorde behar direla. «Besta»-tik, berriz, «bestaburu», «bestale» eta habar sortzen dira.

*Bete*. (=llenar). Axularrek «bete» erabiltzen du, baiña gero, deribazioan, «betakor», a-kin. Deribatze forma jator hau ere gorde behar dugu.

*Bezala/ bezela*. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela zabalduena eta hautatu behar dena. «Bezalako», ez «bezelako».

*Bestitu/ beztitu/ meztitu*. Axularrek lehenbiziko biak erabiltzen ditu; bietatik bigarrena da, noski, jatorrena, z-kin esaten dena. Bizkaieraz meztitu/meztidu esaten da, baiña sentidu berezi batekin: «amortajar», ale-



gia. «Beztitu», berriz, «jauntzi»-ren sinonimu bezala, bizi-bizirik dago oraindik Nafarroa aldean, eta mugaz beste aldean ere baietz uste dut. «Beztitu» eta «jauntzi», biak gordeko nituzke.

*Bi/ biga/ bia* (=dos). Axularrek bai «bi» eta bai «bia» ere erabil-tzen ditu. «Bi» da noski forma zabalduena eta hautatzekoa. Beraz «bi-tan», ez «biatan».

*Bide-xidor/ bidetxior/ bide-zador*. Axularrek lehenbizikoa dakar. Hitz hunek ere hainbat variante ditu. Ikus Azk. Dic. Batasunarengatik Axula-rrek dakarrena har ditek.

*Biharamun/ biaramon/ bixaramon/ bixamon*. Axularrek lehenbizi-koa dauka eta berau uste dut dela jatorrena. Azk. Dic. FHV 335.

*Bihi/ ale/ garaun*. Hedadurari begiratuaz lehenbizikoa da beharbada hedatuena (bai mugaz beste aldean eta bai Nafarroan ere esaten baita). Hau hartu beharko litzake ba. Berau da Axularrek darabillena ere. FHV 222.

*Bildu/ batu*. Ez dira adierazpen berdiñekoak. Axularrek biak erabil-tzen ditu. Lehenbizikoa «recoger» esateko; bestea «encontrar» edo horre-lako zerbait. Biak gorde behar dira. FHV 345.

*Biluzi/ buluzi/ billuxi/ biloiz/ billos*. Axularrek lehenbizikoa da-kar eta bera uste dut dela jatorrena eta egokiena. Beraz, «biluzgorri», «biluztu».

*Bisaia*. Ikus Begitarte.

*Bitarteko/ ararteko*. Axularrak biak dakartzki. Sinonimuak diren ez-kero eta ez guztiz berdiñak, bientzat uste dut dagoela tokia.

*Bitiña/ ahuntzume/ antxume*. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen bigarrena uste dut dela hedatuena eta hartu beharrekoa. Azk. Dic.

*Bizitze/ bizitza*. Axularrak lehenbizikoa dakar eta beharbada berau da egokiena. Gorago esan genduen bezala, hitz mordoak dauka Axularrek -tze bukaera hunekin.

*Borondate/ borundate*. Lehenbizikoa.

*Bortxa/ indar*. Axularrek biak dakartzki. Ez dut uste erabat berdi-ñak direnik. Beraz, bientzat dago lekua.

*Bortz/ bost*. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña bigarrena uste dut dela hedatuena. FHV 363.

*Borrokatu/ burrukatu*. Axularrek lehenbizikia dakar eta berau da hedatuena eta hartu beharrekoa. Azk. Dic.

*Botere/ ahal*. Axularrak biak dakartzki. Ez dira guztiz adierazpen berdiñekoak, eta bientzat dago lekua.



*Bozkario/ boztario/ pozkari.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da hedatuena eta jatorrena. Azk Dic.

*Boztu/ poztu.* Lehenbizikoa.

*Brida/ draga* (=freno). Axularrek lehenbizikoa dakar. Berau har diteke eta bai berunetik heldu den «bridatu» (=frenar) ere.

*Bulkatu/ bultzatu.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Hemen ere bitaratuak gaude eta hedadurari begiratuaz gaitz da zein hartu behar litzaken erabakitzea. Azk. Dic.

*Burdina/ burni.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Gipuzkoa kendu ez-kero, berau uste dut dela Euskalerrri osoan erabillia. Beraz bera hartu behar da.

*Buraso/ guraso.* Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña Euskalerrri osoari begiratura, bigarrena da hedatuena; beraz, hartu beharrekoa. FHV 259.

*Buro/ birao/ birau.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela hedatuena, nahiz eta gipuzkoar eta bizkaitarrek bigarrena erabilli. FHV 74.

*Butun/ gutun.* Biak dira sortaldeko formak. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du, baiña gaur bigarrena uste dut dela hedatuena.

\* \* \*

*Damu.* Hitz hunek ez du toki denetan sentidu berdiña. Batzuentzat «arrepentimiento», beste batzuentzat «Daño» ere ba da. Baiña lehenbiziko sentidua uste dut dela zabalduena eta nagusia. FHV 187. Azk. Dic.

*Dastatu/ txastatu/ jastatu* (=probar, gustar). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hedatuena. FHV 187.

*Deabru/ demonio/ etsai/ txerren.* Axularrek lehenbiziko biak dakarzi. Izen hauk ez dira adierazpen berberekoak. Laurak har ditezke, beraz. «Deabru» hitzak ba du variante bat: «debru», baiña forma osoa da arruntena eta gorde behar dena. FHV 260.

*Debekatu/ bedekau.* Lehenbizikoa, noski. FHV 260.

*Debot/ debotu.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Mugaz beste aldekoek uste dut zuzenean frantsesetik hartzen dutela bukaera-molde hau; guk beharbada jatorrago: «debotu». Axularrek adberbioa ere «debotki» erazten du. Zein forma hartu behar da? Gizon debota, ala debotua? Bigarrena, ene ustez.

*Debozino/ debozio/ deboziño/ debozione.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Gorago esan genduan bezala, nik bigarrena hartuko nuke.

*Defendatu/ defenditu/ defendidu.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Nik ez dakit zein izango den hemen zabalduena: gure hiztegiatar jotzea alfer alferrik da ta. Erdikoa seguru asko.

*Deihadar/ deadar.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Berau uste dut dela forma jatorrena, hedatuena ezpada. FHV 176, 211.

*Denbora/ denpora.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da jatorrena. FHV 239.

*Desira/ desio/ deseo.* Axularrek lehenbizikoa dauka. Forma jator hau dugun ezkerro, hobe dugu berau erabilli, zuzenean erdaratik hartzen ibilli gabe.

*Deus/ ezer.* Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du. Hemen ere bitaratuak gaude euskaldunak. Zein hautatu? Beharbada gaurkoz biak beharko dira gorde.

*Dilindaka/ zintzilika/ dingilizka.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hedatuena. Azk. Dic.

*Disposatu/ disponitu/ disponidu.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da jatorrena eta hartu beharrekoa.

*Diti/ titi.* Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen bigarrena da askoz hedatuagoa. Azk. Dic.

*Diszipulu/ dizipulu.* Axularrek biak dakartzki, baiña bigarrena maizago, eta bera da euskal forma jatorra.

*Dohain/ doai/ doe.* Giputz-nafarrek bigarrena, bizkaitarrek hirugarrena eta mugaz beste aldekoek lehenbizikoa erabiltzen dute. Axularrek ere lehenbizikoa. Berau uste dut dela jatorrena. FHV 147.

*Dolu.* Damu-ren sinonimu bezala erabiltzen du Axularrek. Sortaldeko euskaldunen hitza da. Sinonimua den ezkerro, bientzat dago tokia.

*Dorre/ torre.* Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du, eta bera da forma jatorra. Nafarroan eta mugaz beste aldean erabillia. Azk. Dic.

*Dostatu/ jostatu.* Axularrek lehenbizikoa darabil, baiña bigarrena da zabalduena. Azk. Dic.

\* \* \*

*Ebaki/ ebagi.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da arruntena. FHV 231. Azk. Dic.

*Ebatsi/ ostu.* Axularrek «ebatsi» erabiltzen du. Eta berau erabiltzen dute euskaldunek, gipuzkoar eta bizkaitarrek ez, beste guztiek. Azkuek

dionez, «ebatsi» eta «ostu» sinonimuak dira, «hurtar» eta «robar» bezala. Hala bada, biak har ditezke. Azk. Dic.

*Edeki/ kendu.* Axularrek «edeki» dakar, baiña bestea da arruntena. Azk. Dic. FHV 156.

*Edertu/ ederztatu.* Bientzat dago tokia, ezpaitira adierazpen berekoak. Bata «hermosear» da, bestea «paliar», «colorear».

*Ediren/ idoro/ aurkitu/ arkitu.* «Ediren» eta «idoro»-ren artean, lehenbizikoa da zabalduena. «Aurkitu» eta «arkitu»-ren artean, «aurkitu». Orain, «ediren» eta «aurkitu» adierazpen berekoak ote dira? Ez dut uste. Sinonimuak, hori bai, «hallar» eta «encontrar» bezala. Beraz, bien-tzat dago tokia.

*Edozein/ edozoin* (=cualquiera). Lehenbizikoa da noski hartu beharrekoa.

*Eduki/ euki/ iduki* (=tener). Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da hedatuena. Azk. Dic. FHV 65.

*Egoitza/ egoera.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Beharbada ez dira ikurpen guztiz berekoak. Bata «morada, situación»; bestea «estado». Biak behar ditugu.

*Egorri/ igorri/ bidali/ bialdu/ bidaldu.* Axularrek lehenbiziko biak dakarzki, baiña «igorri» gehiago. Bi forma horietatik «igorri» da, noski, hautatzekoa. «Bidali», «bialdu» eta «bidaldu»-ren artean, «bidali» da zabalduena. Eta «igorri» eta «bidali»-ren artean, zein hautatu behar ote da? «Bidali» da, noski, Euskalerri osoari begiratuta, hedatuagoa; baiña «igorri» ere hedadura handikoa da; gipuzkoar eta bizkaitarrek ez, beste guztiek erabiltzen baitute. Beharbada erabat berdiñak ere ez dira eta bien-tzat izan ditezke tokia.

*Egotzi/ aurtiki.* Axularrek biak dakarzki. Biak gorde behar dira, antzekoak bai, baiña berdiñak ez diren ezkerro.

*Eguerdi/ eguardi/ eberdi.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da noski forma jatorra eta hartu behar dena.

*Egun.* Hitz hau Euskalerri osokoa dugu. «Día» da beronen sentidu nagusia. Ba du beste sentidu bat ere, arras zabaldua, batez ere sortaldean: «hoy» hitzarena. Axularrentzat «egun» bai «día» eta bai «hoy» ere ba da. Bi sentidu horiekin hartuko nuke nik.

*Ekin.* Axularrentzat «hasi» edo horrelako zerbait esan nahi du; hapaxlegomena bezala azaltzen da. Sartaldeko euskaldunentzat beste zerbait da: lehiatsuki jardun, iraupenez, temaz eta setaz eta atxikimendu handiz

lan bati lotzea. Uste dut beste aldean erdi hilla eta ezezaguna dela hitz hau. Guretzat, berriz, ezin utzizkoa.

*Elaberriti/ berritsu/ barritsu.* Axularrek lehenbizikoa dakar. «Berritsu» eta «barritsu»-ren artean, «berritsu» hartu behar da, noski. «Elaberriti» eta «berritsu», berriz, erabat berdiñak ez dira ta, bientzat uste dut dagoela lekua.

*Elur/ edur.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski zabalduena eta hartu beharrekoa.

*Eliza/ eleiza/ elexa.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da noski zabalduena eta hartu behar dena.

*Elkar/ elgar/ alkar.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena. Azk. Dic. FHV 69.

*Eltzaur/ intzaur/ intxaur* (=nuez). Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da Nafaroa behean eta Lapurdin erabiltzen dena. Baiña hemen hirugarren forma da beharbada jatorrena eta egokiena. FHV 285.

*Eltze/ lapiko.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena.

*Eman/ emon.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena.

*Emazte.* Axularrentzat gure «emakume» bezala da. Guretzat, berriz, senardun emakumea esan nahi du. Bigarren sentidu hau da arruntena. Azk. Dic.

*Emazurtz/ umezurtz.* Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen ere bigarren forma da hedatuena eta hautatzekoa. Azk. Dic.

*Enplegatu.* Erruz erabiltzen du Axularrek Guk «erabili»-rekin aski dugula uste dugu, baiña beharbada bientzat dago lekua.

*Enseiatsu/ saiatsu/ entseatu.* Axularrek lehenbizikoa dauka. Mugaz hemengo aldera erdikoa dago zabaldua eta beharbada bera da hartu beharrekoa. Azk. Dic.

*Entzun/ aditu.* «Oir» esateko entzun enplegatzen du Axularrek; «entender» esateko, berriz, «aditu». Bereizkuntza hau gorde behar gendukela uste dut, nahiz eta Gipuzkoan nahasita egon gauza hauk, askok «entenditu» esaten baitute «aditu»-ren ordeaz, eta «aditu» «entzun»-en ordeaz.

*Erabaki/ erabagi.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da zabalduena.

*Erain/ erein.* Axularrek biak dakartzki, baiña bigarrena uste dut dela zabalduena. Azk. Dic.

*Erauntzi/ erantzi* (=desvestir). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela zabalduena, nahiz eta gipuzkoar-bizkaitarrek «erantzi» esan. FHV 98.

*Erdara/ erdera.* Axularrek lehenbizikoa dakar, eta Euskalerri osoari begiratuta, bera da zabalduena. Azk. Dic.

*Erdietsi/ jadietsi/ jadetsi/ jaretsi/ iritxi* (=alcanzar, obtener). Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du eta usu erabili ere. Axularrek darabilen forma hau uste dut dela jatorrena eta bai zabalduena ere. FHV 341. Azk. Dic. «Iritxi» hitzak ba du beste sentidu bat, «erdietsi»-k ez duena, eta Gipuzkoan oso arrunta: «llegar».

*Ere/ bere/ be.* Lehenbizikoa.

*Ereztun/ eraztun.* Axularrek «eraztun» dakar eta bera da zabalduena. Azk. Dic.

*Er(h)i/ behatz/ atzamar* (=dedo). Hemen ere ba dugu nahastea eta katramilla! «Atzamar» bizkaitarra da bakarrik. «Behatz», Bizkaian «dedo del pie», Gipuzkoa eta Nafarroan «dedo», Zubero eta Behe-Nafarroan «dedo pulgar», Lapurdin «uña». Er(h)i, berriz, Nafarroa goiko eta behekoan, Lapurdin eta Zuberoan enplegatzen da, eta beti «dedo» esateko. Uste dut hau dela jatorrena, egokiena eta zabalduena. Azk. Dic.

*Eri/ gaiso* (=enfermo). Axularrek lehenbizikoa dakar, eta adierazpen huneekin bera da noski zabalduena. Azk. Dic.

*Ero/ zoro.* Lehenbizikoa hedatuago, baiña bigarrena ere aski hedatua. Alde batzuetan bereizkuntza egiten dute: ero=fatuo, necio, eta zoro=loco. Berez eta jatorriz, «zoro» «vértigo» da. «Loco» esateko, zein hautatu? Hedaturari begiratuaz, lehenbizikoa.

*Eritoki/ gaisobera/ gaisoti* (=enfermizo). Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hirurak ere nahiko zabalgo txikikoak dira. «Erikoi» eta «erikor» izango dira beharbada egokiagoak. Azk. Dic.

*Eritu/ gaisotu* (=enfermar). Lehenbizikoa. Azk. Dic.

*Eritzi/ iritzi/ eritxi/ eretxi.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela egokiena. FHV 106.

*Erne/ ernai.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da zabalduena. Azk. Dic.

*Erori/ jausi.* Lehenbizikoa. Azk. Dic.

*Erraberritu/ berritu/ berriztatu* (=renovar). Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena. Azk. Dic.

*Erran/ esan.* Euskalerri osoari begiratuta, lehenbizikoa uste dut dela hedatuena. Azk. Dic.

*Errax/ erraz/ errez/ errex.* Axularrek lehenbiziko biak dakarzki. «Erraz» da noski hedatuena eta hartu beharrekoa. FHV 117.

*Erregela/ erregla.* Lehenbizikoa.

*Errenkura/ arrenkura* (=queja). Axularrek «arrenkura» dakar eta berau har diteke. Azk. Dic.

*Erresuma/ erreinu.* Axularrek lehenbizikoa dauka eta Euskalerrri osoari begiratuta berau da hedatuena. Azk. Dic.

*Errezibitu/ hartu.* Axularrek erruz erabiltzen du «errezibitu». Guk «hartu»-rekin estali nahi ditugu haren enplegu guztiak, baiña nik uste dut bientzat dagoela tokia.

*Erro/ sustrai/ zain.* Antzekoak bai, baiña ez dira erabat berdiñak, eta hirurentzat dago tokia. Axularrek bigarrena ez, beste biak bai bada-karzki.

*Erromeria/ pelegrinazio.* Axularrek lehenbizikoa dauka. Beharbada bientzat da tokia. Gaur halako bereizkuntza somatzen dugu bien artean.

*Errota/ bolu/ eihera.* Lehenbizikoa da noski hedatuena eta Axula-rrek dakarrena.

*Errotor/ erretor/ erretore/ parroku.* Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña «erretore» da seguru asko forma jatorrena eta bai hedatuena ere.

*Errumes/ behar/ behartsu/ probe.* Gaur eguneon «erromes» «pere-grino» esateko behar dugun ezkerro, besteekin geldi gindezke.

*Eskale/ eskeko.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da heda-tuena. Azk. Dic.

*Eskalera/ eskaler/ eskillara/ zurubi.* «Eskalera» uste dut dela heda-tuena. «Zurubi» eta «eskalera» ez dira gauza bera, eta hedaduraz ere beste aldeko hitza da «zurubi», baiña bientzat egon diteke lekua.

*Eskapatu/ itzuri.* Axularrek askoz maizago erabiltzen du lehenbizi-koa. Bientzat uste dut dagoela tokia, erabat berdiñak ez diren ezkerro.

*Eskiribatu/ eskribitu/ izkiriatu/ izkiribatu/ idatzi.* Axularrek lehen-bizikoa dakar. Zatarain jaunak dion bereizkuntza egin diteke hemen (hobeki esateko, egiña dago): «eskiribatu» izango litzake letrak paperean ezartzea; «idatzi», berriz, «redactar» edo horrelako zerbait.

*Eskola/ ikastola.* Zabaleria eta erroztatze aldetik lehenbizikoa da hau-tatu behar dena. Baiña hemen ere bereizkuntza bat egin diteke edo erdi egiña dago. «Ikastola» hitzak ba du sentidu bat oso zeatza: euskal eskola. Baiña «escuela» abstraktuki edo jeneralean esan nahi dugunean, orduan hor dugu «eskola».

*Eskuin/ eskui/ eskuma/ eskubi/ eskoa/ eskoï.* Variante asko ditu hitz hunek. Zein hartu? Nik lehenbizikoa hartuko nuke, Axularrek da-karrena, alegia, bera baita hedatuena. FHV 149.



*Esnatu/ iratzarri/ itxartu.* Axularrentzat «esnatu» zera da: «abundat en leche». Gaur Gipuzkoan batez ere «despertar» adierazteko erabiltzen da. Dirudianez, hitz hau sentidu horretan «ernatu»-ren variante bat besterik ez da. FHV 352, 294. Uste dut «iratzarri» hautatu behar dela. Eta «esnatu» hobe dugu Axularrek ematen dion sentidurako utzi. Izan ere «iratzarri» da Euskalerrian zabaldiena «despertar» esateko. Azk. Dic.

*Esperantz/ itxaropen.* Axularrek lehenbizikoa dakar, eta erruz erabiltzen du, gainera. Bera da noski hedatuena eta Euskalerrian sendo eta sakon erroztatua dagoena. «Itxaropen» zabalgo txikikoa da, baiña beharbada gorde diteke halako bereizkuntza batekin. «Espero» eta «itxoin» ere ezpaitira gauza bera, Zatarain jaunak agertu digunez.

*Esperientzia/ aztura.* Axularrek biak erabiltzen ditu. Baiña ez dira gauza bera. Erderazko «experiencia» esateko, «esperientzia» erabiltzen du berak. «Aztura», berriz, «índole, modo de ser» edo horrelako zerbait da Axularrentzat.

*Espiritu/ izpiritu/ gogo/ arima.* «Gogo» eta «espíritu» ez dira gauza bera, noski, eta bientzat dago tokia. «Espíritu» eta «arima» ere antzekoak, bai, baiña berdiñak ez dira. «Espíritu» hitzak ba du beste variante bat literatura zaharrean: «izpiritu». Baiña «espíritu» da forma hedatuena, eta beraz hau da hautatu behar dena.

*Estali/ estaldu.* Axularrek beti «estali» esaten du, eta hau da noski forma jatorrena eta hedatuena. Azk. Dic.

*Estropu/ ixtripu* (=accidente). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela forma zabaldiena. Lhande, Dic.

*Estudiatu/ ixtudiatu.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da forma hedatuena.

*Eta/ ta/ da.* Axularrek beti jartzen du «eta» osorik. Beharbada ohi-dura hau denok hartzea izango litzake hoberena.

*Etorri/ jin.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da noski hedatuena.

*Etsai/ arerio/ izterbegi.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da arruntena.

*Etzan/ etzin/ etxun.* Axularrek lehenbiziko biak dakartzki, baiña «etzan» askoz maizago. Bera hartu beharko litzake, hedatuena baita. FHV 192.

*Euskaldun/ eskualdun/ euskeldun.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da jatorrena eta hedatuena.



*Euskara/ eskuara/ euskera.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera uste dut dela forma jatorrena. FHV 99.

*Exenplo/ ejenplu/ ejemplo/ exenplu.* Axularrek lehenbizikoa dakar. U-kin bukatua da, beharbada, forma jatorra.

*Ezagutu/ ezautu.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da noski forma arrunta.

*Ezdeus/ ezteus.* Axularrek biak dakarzki, baiña —oker ezpanago— bigarrena maizago. Hala ere, lehenbizikoa uste dut dela jatorrena eta edatuena. Azk. Dic.

*Ezkata/ eskama.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Bera da, noski, forma jatorra eta hartu behar litzakena. Azk. Dic.

*Ezko/ argizagi.* «Cera» esateko «ezko» da hitz jatorra eta zabalduena. «Argizagi» ere aski zabaldua dago, baiña alde batzuetan «cera» eta beste batzuetan «astro» esan nahi du. (Ikus Lhande, Azk. Dic.) «Cera» esateko «ezko» hautatu behar genduke.

*Ezkondu/ esposatu.* Axularrek lehenbizikoa dakar. Biak daude erroztatuak eta adierazpen berdiña ez duten ezkerok, bientzat dago tokia.

*Eztei/ eztai/ eztegu.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta uste dut bera dela hedatuena. FHV 103. Azk. Dic.

\* \* \*

*Falta/ huts.* Axularrek biak dakarzki eta uste dut bientzat dela tokia.

*Falseria/ gezur.* Biak.

*Fama/ ospe/ izen on.* Denak behar ditugu.

*Familia/ pamili.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da hedatuena.

*Fede/ siñismen.* Biak.

*Feria/ peri/ eria.* Lehenbizikoa.

*Fida izan/ fido izan* (=fiarse). Axularrek biak dakarzki, baiña maizago lehenbizikoa. Bera da forma jatorra eta orai ere erabilikia. (Lhande).

*Fidantza/ fidantzia/ konfiantza/ uste on.* Axularrek lehenbiziko biak dakarzki, baiña maizago bigarrena. Hitz hau ere ez dut uste baztertzekoa dugunik.

*Fidatu/ fiyatu.* Lehenbizikoa.

*Fiko/ piko/ iko.* Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen, dirudianez, bigarrena da hedatuena. FHV 264.

*Filosofo/ filosofu/ pilosopo.* Axularrek lehenbizikoa dakar. «U» bukaeraduna har diteke.

*Fin/ pin.* Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski hedatuena.

*Fite/ laster/ arin/ azkar/ aguro/ laister.* Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du. «Laster» eta «laister»-en artean, «laster» da hedatuena eta hartu beharrekoa. Beharbada beste guztientzat ere ba da tokia.

*Fits/ izpi.* Biak.

*Flakatu/ mehatu/ argaldu/ makaldu.* Uste dut denentzat dela tokia, ezpaitira berdiñak.

*Frankia/ ugaritasun.* Biak.

*Franko/ ugari/ asko/ anitz.* Denentzat dago tokia.

*Freskatu/ freskotu (=refrescar).* Lehenbizikoa.

*Frogantza/ frogā/ proba* eta berdin *frogatu/ probatu.* «Frogantza» eta «frogatu» uste dut direla forma jatorrak, baiña Euskalerrri osoari begiratuta ez dakit zein forma hautatu beharko litzaken. Axularrek bai, «frogantza» eta «frogatu» erabiltzen du.

*Fruitu/ frutu.* Axularrek «fruitu» dakar. Euskalerrri osoari begiratuta, beharbada berau da forma jatorrena eta hedatuena. Lhande, Dic.

\* \* \*

Jaunak: Ikusten duzuenez, hau luze doa. Hunek ez du azkenik. Euskal hiztegi osoa aztertu beharko nuke eta hemen ez dago horretarako astirik. Baiña jokaera edo jokoaren erregelak erakutsi nahi izan dizkizuet. Batasuna egiteko ezarri diren oiñarriko puntuei jarraikiz, zer hiztegi muela erabilliko den euskara osatu horretan: hori zan da nik agertu nahi izan dudana. Kasu denetan zein forma hartu behar den erabakitzea, ez da erraza, baiña beste askotan bai. Nik, egia esan, susmo bat dut edo duda bat: horrenbesteraíño goberna ote dezakegun guk hizkuntza? Guk lege horiek emanarren, literario hizkuntzak kontuan hartuko ote ditu? Geroak esan beza.

Jakite-lanetarako —eta beste edozein iztegitarako oinarri gisa ere bai— bear-bearrezkoa dugu erabateko iztegia («general» esan nai dut), ango eta emengo euskalkietako itzak eta itzen aldaerak jasoko dituen eta, oraingoak ez ezik, baita antziñako euskal-ondasunak eta ondakiñak bilduko dituen. Oso-osoa ez bada ere, orrelako zerbait ba dugu aipatu ditudan iztegiengan. Orien osatze eta zuzentzeari ezin obeki deritzat, baiña ez dut uste iztegi oriek berberak, dauden daudenean, euskerara bihurtu bearrik daukagunik. Zer aurreratuko genduke orrenbestez, iztegi oriek darabiltzatenak erderaz bai baitakite?

Iztegia bear duten euskaldunak idazleak, izlariak eta, jakiña, irakurleak eta entzuleak dira. Orientzat iztegiak gidari bearko du izan, bide-erakusle, egunoroko izkera baiño goragoko batera gidari, naiz goragokoak, nonnai gertatzen den bezala, beheragokoan finkatua eta errotua izan.

Gidaria baldin bada, eta Euskaltzaindiaren izenpean dabillen iztegia gidaritzat dute artuko, ez du aukera, autuera, irakurlearen eskuetan utzi bear, ezin bestean baizik, orretarako baita Euskaltzaindi. Ezin ditzake iztegiengan, beraz *itz guztiak* ezar, ez ditu erabat ipiñi bear eta, nai balu ere, eziñezko lana artuko luke.

Ez Azkue'k ez inork ez ditu euskal-itzen aldaera guztiak sartu, erdalzalerik amorratuena ere ez ditu iztegiengan itzez eta izkribuz erabiltzen diren erdal-itzak erabat onartu, garbizalerik porrokatuenak ere ez ditu asmatu izan diren itz berri guztiak bereganatu.

Aldez aurretik, bada, mugak landatu bear: zein eta zenbat itzen aldaera jasoko ditugu iztegiengan? Itz zaharrak eta zaharkituak ere bai? Egungo eguneko erderetatik artu ditugun eta artzen ari geran itzak noraiño artuko ditugu ontzat eta zein itxuratan? Itz berriak ere, zein eta zenbaiteraiño?

Galdera oek, erabat, erantzunak bearko dute egon iztegia egiten —ez gaiak biltzen, gaiak antolatzen baizik— asi baiño lehen: alaz ta guztiz ere, itzak banan-banan ikertu-ala, auziak eta istilluak sortuko dira, nai-ta-ez.

Aldez aurretik erantzunak egon bear duten beste galderak, teknika-aldekoak dira: ze eratan egingo dugun itzen euskal-biurrera, gramatika-aldetik nola azalduko ditugun,

adibideak nola eta nondik artu bear diren, abezez nola jarriko ditugun ordenan eta orrelako beste milla.

Ez dut orrenbestez esan nai iztegi-lan au bertan-behera utzi bear lukeanik Euskaltzaindiak. Ez du utzi bear, baiña ezin as ditek besterik gabe iztegia idazten; ez orrenbeste saltsa garbitu gabe dauzkan bitartean. Gai-bilketan, ordea, gaiak fitxetan ipintzen eta abar, bereala asi bear luke, lan ori ere bear-bearrezkon baita.

Nolakoa bear lukean izan iztegiak? Aukeratzaillea, neure iritziz, autatzaillea, ohea makurragotik bereziko duena, eskoletan, liburuetan, aldizkarietan, itzaldietan erabilli bear litzakean euskera jaso eta ikasiaren mugarri eta eredu izan ditekera, iriña eta zaia, garia eta belar gaiztoak bereizten dakiena.

Batasunera bidean dabillena, itz batean. Euskera batua ez dagoen ezkerre, ezin bat dezake Euskaltzaindiak indarrean, indarka ibiltzeko ez baitu indarririk aski. Alfer-lanean ari bearrean, obe du egungo egunean nabari diren joeren arabera izkuntza idatzi eta ikasiaren ereduak finkatzen asi, astiro-astiro besterik eziñean, korrika eta lasterka ahal balitz, baiña beti oraingo euskeraren eta euskaldunen bearrek eta premiek erakusten dioten bidean dabillela.

Aita Mujika'ren iztegi ederrari egotzi diogu zenbaitek ez duela bear ainbat bereizkuntza egin. Zer egotziko liokete Euskal-Akademiari, ez euskaltzale bakoitz bati, Akademia orok berezko duen eginbearrari uko egingo baldin balio. Beste alde batetik, ezin agin dizaioke bizkaitar bati gipuzkeraz mintza dedin edo giputz bati bizkaieraz, bai ordea bizkaitarrei, giputzei eta euskaldun orori berea duen izkeran euskeraren onean, ez kaltean, izango den moduan erabil dezan izkuntza.

L. MITXELENA

## EUSKALTZAINDIKO NERE LENDABIZIKO LAGUNAK

Gure orduko Euskaltzaindia, begi aurrean ba-neuka bezala daukat gogoan. Bilboko gure aretoan, ango mai luze ta zabal batean nola egoten giñan esango dizuet, bakoitzaz bi itz esanez, maiean zer toki izaten giñuan aipatuz.

Maiaren erdi-erdian Resurrekzion Maria Azkue jauna, euskaltzainburua. Batzar ordurako bere tokian zuti jarririk, mordoxka jolasean geundenei deitzen zigun esanez:

Jaunak ordua dugu: Ta bakoitza zegokion tokian jartzean: «Aitarene eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean as dezagun batzar au, edo batzaraldi au». Bukaezan, berdintsu. Gure batzarreak non-nai izan arren, eztut gogoan Azkue jaunak iñoiz uts-egin zigunik. Besteok utsegin gentzaken, edo noiz-beinka uts-egiten genun, ark iñoiz ere. Buru aundiko gizona, soñeko buruaren tamañez, baño aundiagokoa bere adimenaz, eta gogoz; lanerako asperkaitza, ta euskerari oso-osorik emana. Ain jakintsua izan arren, apala ta gozoa zan gurekin beti. Ta ni bezalako ez-jakiñari, or bildutako deus-ez bat batzarerra ba-zakarren, begitarte ta xalotasun pizgarritz artzen zion.

Azkueren eskuñetik, geienean Julio Urkixo jauna zegoan. Au ere batzarretarako zintzoa giñun. Asieratik antxe zan. Azkue jaunarekin batera Euskaltzaindiaren tantairik oberena ote giñun nago. Eusko Ikaskuntzaren aldizkari bikañaren Zuzendaria, aundiki ta jakintsu, lurbira guzian ezaguna ta aintzat artua zalako, itzal aundia egiten zion Euskaltzaindiari, naiz berak beti erderaz itzezin, eztakit, ba, euskeraz lau itz esan ote zizkigun.

Onen ondoan Eleizalde'tar Koldobika jauna izaten zan, zijoan bakanetan. Bakanetan esan dut, Gaizteizko bere irakasgoaz batzuetan, eta geienetan bere gaxotasunaz maiz utsegiten zigun batzarretara. Au bai euskaldun jatorra bizkaieraz. Azkeneko egunetaraño etzuan lanik utzi. Nere lagun maitetatik, lendabiziko Jaunak eraman ziguna, auxe izan zan.

Etzegarai'tar Bonifazio. Onek ere erderari eltzen zion gure batzarretan, euskeraz ere ba-zekin, noski, baño. Aurreko bien antzera, au beren lagun lankide ta kutuna izanik, gizon aundia giñula eztut esan bearrik.

Olabide Erramun Aita, Jesusen Lagundikoa. Euskeraz idazteko ain bikaña izanik, au genun beste bat izketarako bildurti zana ta lau itz euskeraz nekez josten zituana. Euskaltzaindian sartu nintzenean neri erantzunez egin zigun itzalditxoaz landara, eztaukat gogoan beste ezer ari entzunik. Baño bitartean, ixil-ixillik, Itun Zar-Berriak zegiskigun.

Jesusen Lagundiko beste Aita bat, aipamen aundikoa, Pier Lhand giñun. Gogoan daukat, bein baño geiagotan, batzarrea asi ondorean agertu zitzaigula gure aretoko atetan, bere pipa aundi, kirten makurra, esker eskuan zuela, eta bere begi urdinxka ta argiz guziok menperatuz, urbildu izan zitzaigula esanez: ¡Agur Yaunak, agur t'erdi! Irri-parrez ta bere eskuña luzatuz joaten zala bere tokira. Honek bai itzegiten zigula beren euskalki eztitsuan. Paris'ko bere mintzaldi lanaz eta ango auzoetan siñiste-gabe ta siñiste-etsai ta langille tartean zerabilzkin eginkizunaz itzeten zigula, gogoan dut. Bere euskal-frantzerazko itzegi ta ainbat lan euskeraz ta frantzeraz emandakoak dasai-gute nor zan bera.

Azkue jaunaren ezkerraldetik egoten ziranak: urbillena. Arturo Kanpion jauna. Gure kondairagille ta Naparroaren eskubideen eustzalle azkarren au ere, euskeraz nekez egiten zuana giñun, naiz berak alako Euskal-izkinde ederra egin izan. Bere adin aundiz, larogei urteak beteak zituan-eta, baita beste ajeen batez ere, nai zuken guzian etzitzaigun batzarretara joaten; baño zidoaienean guzion pozgarri zan, guzion aita bezala begiraten bai-genion. Belarria eskuz luzatuz eta bere iritziak erderaz, baño zeatz emanez, asko laguntzen zuan Euskaltzaindian.

Urrena, Lakonbe jauna. Paristik zetorkigun illabeteoro, non-nai batzarreak izan. Gudaldi aundian eskuñeko besoa galdu ta, besamotz, ezkerreko eskuz baliatzen zan luma sakeletik ateratzeko ta idazteko: artarako ortzetan askatzen zuan luma idazten asteo. Euskar liburu zar zenbaiten berriak ematen zizkigun eta nai giñuzkenei erosi ta ekarri ere bai. Urkixo jaunaren adiskide berezia zan.

Intzagarai Erramun Apaiz jauna. Uste dut parrokiko eginkizunaz-eta, Bilboko batzarretara zenbait aldiz bakarrik joaten zitzaigula. Donostiako Argia'ren idazle ta olerkari genun.

Eguzkitza Apaiz jauna. Ona gizon sendoa, soñez, buruz, euskal-gaietaz. Itz gutxi egingo zituan, berak zakarren txosten edo lantxoaz landara. Noiz beinka lantxo politik eramaten zizkigun, guzion jakingarri. Eztakik argitaratu ote diran. Euskaltzaindiaren euskal-jaietan, berau giñun eliz-izlari argi ta mamitsua.

Euskaltzaindiko maiaren beste aldetik; lenik Landareche Martin jauna. «*Eskualduna*»ren Zuzendari berrogei ta geiago urtez izana. Adin aundikoa, ixil ta apala. Bätzarrerik etzuan galduko ta beroietan bere alderdiko euskal gauzen gora-berak azaltzen zizkigun bare-bare. Bestelako lanik etzuan ekarri izan noski.

Altube'tar Xeber jauna. Azkue ta Eguzk'itza jaunekin batera onetxek ematen zizkigun euskerari dagozkion xeetasunik aundienak. Euskera piztu, aberastu, txukundu ta edertzeagatik gure lagun azkar onek zenbat lan egin zuan, nik bezin ongi ezagutzen duzute noski; bere liburuak aupalari.

Jaunak zeruan ongi sarituak izango ditula nago, egun batez beren artean artu niñuen lagun bikain guzi oiek.

Barkatu, baño, ezin dezaket aipatu gabe utzi, gure batzarretara joaten zitzaizkigun euskaltzain-urgazle zenbait.

Bilboko batzarre geienetan Gregorio Maidagan Apaiz jauna. Au asieratik. Ondo-rean berriz beti, Nikolas Ormaetxea (Orixo) jauna. Azkueren idazkaritzan lan egi-ten zuten biek. Baita ere Martin Oyartzabal Apaiz jaunak. Aurreagotik eta beti, gure-kin izaten zan Nazario Oleaga jauna. Donostiko batzarretan, noiz beinka, Ambrosio Zatarain jauna, oraingo Zatarain'en aita; eta Martin Lekuona, apaiz jaun, nerekin batera Euskaltzaindian euskal-jaia prestatzen lan egiten zuana. Zerura iges egin zigutenetatik, nere buru urriz, aipatu gabe gelditzen zaizkitenak askoz geiago dira, aipa-tuak baño.

Zorionez oraindik bizi zaizkigunetatik Ibargutxi'tar Yon Uguts eta Manterola'tar Gabirel apaiz jaun, ainbeste euskal lan eder egin digutenak: Galtzadunetatik Odon Apraiz jauna ta Estornes jauna, Donostian, eta.

(Iruñean 1968 urteko abenduan egin zan batzarrean irakurria.)

INTZA'R DAMASO

#### NUEVOS MIEMBROS DE NUMERO

José Miguel Barandiaran, 1965-VIII-27.

R. P. Policarpo de Iraizoz, 1968-XII-4.

#### NUEVOS MIEMBROS DE HONOR

Ramón Menéndez Pidal, 1968-II-23.

Odón Apraiz, 1968-XII-4.

Juan Cruz Ibarguchi. 1968-XII-4.

Gabriel Manterola, 1968-XII-4.

#### NUEVOS MIEMBROS CORRESPONDIENTES

1965-IX-24

R. P. Francisco Altuna, S. J.

José Antonio Arcocha.

R. P. José Azurmendi, O. F. M.

R. P. Emiliano Barandiaran, carmelita.

Iñaki Barriola.

Juan José Beloqui.

Iñaki Beobide.

Antonio Bilbao.

R. P. Félix Bilbao.

Jean Curutchet.

Jean Louis Davant.

Jean Baptiste Dirassar.

Pierre Duhour.

Toribio Echebarria.

Carmelo Echenagusia

Jesús Elosegui.

Jacques Etcheverry.

Juan Garmendia.

Salvador Garmendia.

R. P. Angel Goenaga, S. J.

Ignacio Goicoechea.

Juan Goicoechea.

R. P. Juan Goicoechea, S. J.

Xabier Guercño.

Mikel Lasa.

R. P. Luis María Mugica.

José Olaizola.

Jesús Oleaga.

Josu Oregui.

Rudolf de Rijk.

Gabriel Zapiain.

Manuel Ziarsolo.

#### 1966-XI-25

Jacinto Carrasquedo Olarra.

José María Echaburu.

Juan Angel Echevarría.

Bernardo Estornés Lasa.

Eñaut Etchamendy.

Jean Baptiste Etcheberry.

Patrik Farrell.

Roger Idiart.

Luis Jauregui.

Xabier Lete.

José Luis Lizundia.

Telesforo Monzón.

Juan Oñatibia.

Francisco Xabier Quintana

Ramón Saizarbitoria.

Claudio Sagarzazu.

Ibon Sarasola.

Miguel Javier Urmeneta.

#### 1967-I-27

Milagros Bidegain.

#### 1967-VIII-25

Jesús Acha.

Xabier Amuriza.

Francisca Arregui.

Juliana Berrojalbiz.

Pedro Berrondo.

Pierre Bordaçarre, «Etxahun».

Karmele Esnal.

Jacinto Fernández Setien.

Arantza Idiazabal.

Michel Itçaina.

Antoinette Lacarra.

Emilio Larre.

#### GURE HILAK

Blas Fagoaga.

R. P. Felipe de Murieta.

André Tournier (1965-VIII-27-ko agirian).

R. P. Salvador Michelena, O.F.M. (1965-XII-31-ko agirian).

Miguel Arruza (1966-V-27-ko agirian).

Sauveur Arotçarena (1966-VII-29-ko agirian).

Cirilo Arzubiza (1966-VII-29-ko agirian).

Martín Oyarzabal (1966-X-23-ko agirian).

Vicente Saralegui (1966-XI-25-ko agirian).  
 Andima Ibinagabeitia (1967-XI-24-ko agirian).  
 R. P. Emiliano Barandiaran (1967-XII-20-ko agirian).  
 M.<sup>a</sup> Paz Ciganda (1968-I-26-ko agirian).  
 Pierre Duhour (1968-II-23-ko agirian).  
 Juan Miguel Seminario Rojas (euskaltzaina) (1968-IV-26-ko agirian).  
 Toribio Echebarria (1968-IV-26-ko agirian).  
 Ramón Menéndez Pidal (ohorezkoa) (1968-XII-4-ko agirian).  
 Vicente Amezaga (1969-V-30-ko agirian).  
 José Olaizola (1969-VII-10-ko agirian).  
 Ricardo Arregui (1969-VIII-ko-agirian) (Batzarrera zetorrela hil zan uztailaren 10-ean).  
 Juan Cruz Ibarguchi (ohorezkoa) (1969-IX-21-ko agirian).

## ACADEMICOS DE NUMERO

Antonio Arrue, Oquendo, 4, 4.º SAN SEBASTIAN.  
 José Miguel Barandiaran, «Sara», ATAUN (Guipúzcoa).  
 Louis Dassance, Ingénieur agronome, 64 USTARITZ (France).  
 R. P. Xabier Diharce, Abbaye Notre Dame de Belloc, 64 URT (France).  
 Guillaume Eppherre, Aumônier, Collège St. Bernard, 64 BAYONNE (France).  
 Eusebio Erquiaga, García Rivero, 4, 3.º deha. BILBAO.  
 Juan Gorostiaga, Trinidad, 5. ALGORTA (Vizcaya).  
 Jean Haritschelhar, «Elorrieta», Route de Lamigotte, 64 ANGLET (France).  
 R. P. Dámaso Inza, PP. Capuchinos, Extramuros. PAMPLONA.  
 R. P. Policarpo de Iraizoz, Curia Generale dei Fratři Minori Capuccini, 70 via Piemonte 70. ROMA (Italia).  
 Angel Irigaray, S. Esnaola, 11. 1.º SAN SEBASTIAN.  
 Alfonso Irigoyen, Avda. José Antonio, 38. 2.º izda. BILBAO-13.  
 Federico Krutwig, 10, Avenue Louis Barthou, 64 BIARRITZ (France).  
 Antonio M.<sup>a</sup> Labayen, San Francisco, 35. pral. TOLOSA (Guipúzcoa).  
 Pierre Lafitte, Petit Séminaire, 64 USTARITZ (France).  
 René Lafon, Villa Ptaki, 92 bis, Cours Tartas, 33 ARCAÇON (France).  
 Pierre Larzabal, Curé de Socoa, 64 CIBOURE (France).  
 Manuel Lecuona, Colegio Berrospe. ANDOAIN (Guipúzcoa).  
 José M.<sup>a</sup> Lojendio, Guetaria, 2, pral. SAN SEBASTIAN.  
 Juan San Martin, Mekola, 6, 3.º EIBAR (Guipúzcoa).  
 Luis Michelena, Goiko Kalea, 6. RENTERIA (Guipúzcoa).  
 José María Satrustegui. URDIAIN (Burunda) (Navarra).  
 R. P. Luis Villasante, Santuario de Aránzazu. OÑATE (Guipúzcoa).  
 R. P. Antonio Zavala, S. J., Colegio de San Ignacio de Loyola, Ategorrieta. SAN SEBASTIAN.



## ACADEMICOS DE HONOR

Odón Apraiz, Plaza del General Loma, 3, 1.º VITORIA.

Isaac López Mendizabal, Avda. Sancho El Sabio, 7, 6.º izda. SAN SEBASTIAN.

Gabriel Manterola, Presbítero. CEANURI (Vizcaya).

## ACADEMICOS CORRESPONDIENTES

Jesús Acha, Manuel Iradier, 68, 3.º VITORIA.

María Dolores Aguirre, Urbietta, 5, 2.º SAN SEBASTIAN.

Eugenio Aguirreche, Santuario de Aránzazu. OÑATE (Guipúzcoa).

Jacques Allières, 32 bis, Raymond IV. TOULOUSE (France).

R. P. Francisco Altuna, S. J., E. U. T. G., Mundaiz. SAN SEBASTIAN.

José Luis Alvarez Emparanza, 28 Place Morichar. BRUSELAS (Bélgica).

Xabier Amuriza, Párroco de GUIZABURUAGA (Vizcaya).

Agustín Anabitarte, Gral. Primo de Rivera, A, 2.º SAN SEBASTIAN.

Pierre Andiazabal, Petit Séminaire. 64 USTARITZ (France).

R. P. Marcelo Andrinua, PP. Pasionistas. EUBA (Vizcaya).

R. P. Lino Aquesolo, PP. Carmelitas, Amara. SAN SEBASTIAN.

José Antonio Arcocha, San Ignacio, 25. ONDARROA (Vizcaya).

Jesús M.ª Arenaza, Gran Vía, 82, 2.º izda. BILBAO-11.

Gabriel Aresti, Alcázar de Toledo, 16, 2.º, tercer grupo. BILBAO-12.

Francisca Arregui, Matia-Trasera, Goikoetxea 1.º C. SAN SEBASTIAN.

José Arteche, Biblioteca de la Diputación de Guipúzcoa. SAN SEBASTIAN.

Fernando Artola, Avda. de J. Ugarte. FUENTERRABIA (Guipúzcoa).

José M.ª Aspiroz, Párroco de LESACA (Navarra).

Miguel Angel Astiz, Correo, 14, 3.º dcha. BILBAO-5.

Julene Azpeitia de Ezcauriaza, Grupo Juan de Iciar, Larresoloeta, chalet 3. DURANGO (Vizcaya).

R. P. José Azurmendi, O. F. M., Franciscanerkloster-Hörsterplatz, 5. 44 MÜNSTER (Alemania).

R. P. Salvador Barandiaran, S. J. Colegio San Francisco Javier. Apartado 1. TUDELA (Navarra).

Iñaki Barriola, Villa Isturiz, Ayete. SAN SEBASTIAN.

José Basterrechea, Sangüesa, 13, 1.º izda. PAMPLONA.

R. P. Isidoro Bazarrica, PP. Benedictinos, Santuario de ESTIBALIZ (Alava).

Alessandro Baussani, Universitate. ROMA (Italia).

Juan José Beloqui, Villa Nere Kayola, Ategorrieta. SAN SEBASTIAN.

Iñaki Beobide, Narrica, 31, 3.º SAN SEBASTIAN.

R. P. Imanol Berriatua, PP. Franciscanos, Iralabarri. BILBAO.

Hno. Valentín Berriochoa (N. Alzola), Colegio San Marcial. IRUN (Guipúzcoa).

Juliana Berrojalbiz, Rodríguez Arias, 29. BILBAO-11.

- Pedro Berrondo, Gral. Lersundi, 6, entlo. izda. SAN SEBASTIAN.  
Antonio Berrueta, Pío XII, 16, 6.º b. VITORIA.  
Milagros Bidegain, Sanchoenea, 9. RENTERIA (Guipúzcoa).  
Antonio Bilbao, Apartado 357. BILBAO.  
R. P. Félix Bilbao, PP. Franciscanos. FORUA (Vizcaya).  
Pierre Bordaçarre, «Etxaun». 64 TROIS-VILLES (France).  
Karl Bouda, Haydustr 6. ERLANGEN (Alemania).  
Joseph Camino, Aumônier de l'Enfance, 9, rue des Prébendés. 64 BAYONNE (France).  
Julio Caro Baroja, Ruiz de Alarcón, 12. MADRID.  
Américo Castro.  
Jacinto Carrasquedo Olarra, Secundino Esnaola, 7, 6.º SAN SEBASTIAN.  
Jean Curutchet. 64 HELETTE (France).  
Jean Chabagno, «Chotro» Eznazu. 64 LES ALDUDES (France).  
Pierre Charriton. 64 HAZPARREN (France).  
Jean Louis Davant, Collège Hazparren. 64 HAZPARREN (France).  
Pedro Díez de Ulzurrun, Médico, San Antón, 43. PAMPLONA.  
Pedro Díez de Ulzurrun, Presbítero, Parroquia de San Agustín. PAMPLONA.  
Jean Baptiste Dirassar, Basque Eclair, 4 Place de la Liberté. 64 BAYONNE (France).  
Pierre Duny-Pétré, «Héguitoa». 64 SAINT JEAN DE PIED DE PORT (France).  
José M.º Echaburu, Villa Ongi Etorri, Barrio Amute. FUENTERRABIA (Guipúzcoa).  
Jon Echaide, Paseo de Colón, 33, 4.º izda. SAN SEBASTIAN.  
Nemesio Echaniz, Víctor Pradera, 79, 2.º izda. SAN SEBASTIAN.  
R. P. Aurelio de Echarri Aranaz.  
José Echeandia, Párroco de Santa Ana. DURANGO (Vizcaya).  
Carmelo Echenagusia, Monasterio del Refugio, Zabalbide, 104. BILBAO-6.  
Juan Angel Echevarría, Iturribide, 13 bis centro. BILBAO-6.  
Péter Echeverría, Residence 1855, Sierra Lage Ln. RENO (NEVADA) (USA).  
R. P. Francisco Echeverría, Catholic church, KUANGHSI, HSINCHU HSIEN, TAIWAN (Formosa).  
Ignacio Eizmendi, Nuestra Señora del Pilar, 10. ZARAUZ (Guipúzcoa).  
Jesús Elosegui, Tafalla-enea, 8-1º izqda. Falda de Ulía. SAN SEBASTIAN.  
Karmele Esnal, Zabaleta, 50, 5.º SAN SEBASTIAN.  
Bernardo Estornés Lasa, Secundino Esnaola, 13. SAN SEBASTIAN.  
Eñaut Etchamendy, Professeur agronome. 64 BEYRIE SUS JOYEUSE (France).  
Jean Baptiste Etcheberry, Aumônier. 64 BAYONNE (France).  
R. P. Etchehandi, Abbaye Notre Dame de Belloc, 64 URT (France).  
Jacques Etcheverry, Chambre de Commerce, 1, rue Victor Hugo. 64 BAYONNE (France).  
Pierre Eyheramendy, 64 JURANÇON (France).  
Patrik Farrell, «Darragh», 41 Nutley Lane. DUBLIN-4 (Irlanda).  
Jacinto Fernández Setién, Presbítero. LAZCANO (Guipúzcoa).

R. P. Victoriano Gandiaga, PP. Franciscanos, Santuario de Aránzazu. OÑATE (Guipúzcoa).

Justo Gárate, Perú, 678. MENDOZA (Argentina).

Marcelino Garde, Presbítero. RIPODAS (Navarra).

Juan Garmendia, Juan José Prado, 2-5.º centro. SAN SEBASTIAN.

Salvador Garmendia, Institution Saint-François, 64 MAULEON (France).

R. P. Angel Goenaga, S. J., E. U. T. G. Mundaiz, SAN SEBASTIAN.

Ignacio Goicoechea, Apartado 2. SAN SEBASTIAN.

R. P. Juan Goicoechea, S. J., Santuario de Loyola. AZPEITIA (Guipúzcoa).

Juan Goicoechea. Presbítero. ARBIZU (Guipúzcoa).

Xabier Guereño, Avda. del Ejército, 18, 3.º dcha. BILBAO-14.

Pierre Guilsou, 48, Bd. Serurier. PARIS XIX (France).

Marcelin Heguiaphal, Pastoralier. Cheraute, par 64 MAULEON (France).

Jean Hiriart-Urruty, Grand Séminaire, BP 850. BUJUMBURA (Burundi).

Nils M. Holmer, P. O. Box, 40. LUND (Suecia).

Mariano Iceta. ELIZONDO (Navarra).

R. P. Joseba Inchausti, PP. Franciscanos, Santaló, 80. BARCELONA-6.

Roger Idiart, Petit Séminaire. 64 USTARITZ (France).

Arantza Idiazabal, Plaza Urbia, 1-3.º. RENTERIA (Guipúzcoa).

José M.ª Iribarren, Sarasate, 13. PAMPLONA.

Michel Itçaina. 64 CAMBO (France).

Luis Jauregui, Capellán de las MM. Carmelitas Descalzas, Avda. del Generalísimo, 38. ZARAUZ (Guipúzcoa).

Michel Itçaina. 64 CAMBO (France).

Antoinette Lacarra.

R. P. Ignacio Larrañaga, Obispo de Pingliang, PP. Capuchinos. FUENTERRABIA (Guipúzcoa).

Emilio Larre. 64 HAZPARREN (France).

Mikel Lasa, Plaza Elcano, 1. GUETARIA (Guipúzcoa).

José Manuel Lasarte, Presbítero. LEIZA (Navarra).

Juan M.ª Lecuona, Seminario Diocesano. SAN SEBASTIAN.

R. P. Gabriel Lerchundi, Abbaye Notre Dame de Belloc. 64 URT (France).

Xabier Lete, Casa Arbelaitz-enea, General Mola, 14. OYARZUN (Guipúzcoa).

José Luis Lizundia, Astola-Matiena. ABADIANO (Vizcaya).

José Antonio Loidi, Farmacia, Paseo de Colón, 93. IRUN (Guipúzcoa).

Gerardo López de Guereñu Galarraga, Nueva Dentro, 76. VITORIA.

R. P. Fernando Mendizábal, PP. Franciscanos, Santuario de Aránzazu. OÑATE (Guipúzcoa).

José Juan Bautista Merino Urrutia, San Ignacio, 3. ALGORTA (Vizcaya).

Marie Jeanne Minaberry, Journaliste. 64 USTARITZ (France).

Jon Mirande, 106, Boulevard Davout. PARIS XX (France).

R. P. Justo M.ª Mocoroa, PP. Escolapios, Alda. Recalde, 19. BILBAO-9.

- Telesforo Monzón, Boulevard Thiers. 64 SAINT JEAN DE LUZ (France).
- R. P. Luis M.<sup>a</sup> Mugica, PP Sacramentinos, Buen Pastor, 6, 3.º B. BILBAO-7.
- R. P. Plácido Múgica, PP. Jesuitas, Santuario de Loyola. AZPEITIA (Guipúzcoa).
- Jean Narbais, Residence du Parc des Sports. 64 BAYONNE (France).
- Jesús Oleaga, Elcano, 18-ent. dcha. BILBAO-8.
- R. P. Ignacio Omaechevarria, PP. Franciscanos, Paseo de Atocha. SAN SEBASTIAN.
- R. P. Santiago Onaindia, PP. Carmelitas, Larrea. AMOREBIETA (Vizcaya).
- Juan Oñatibia, Villa-Zugasti. OYARZUN (Guipúzcoa).
- Josu Oregui, Paseo Urdangarín. VERGARA (Guipúzcoa).
- Dominique Peillen, 140. Avenue de París. 94 VINCENNES (France).
- Xabier Peña, Pérez Galdós, 6, 1.º izq. BILBAO-10.
- Jaime Querexeta, Presbítero. ELORRIO (Vizcaya).
- Francisco Xabier Quintana, Camino de Trauco, 1, 3.º. BILBAO-7.
- Rudolf de Rijk, Molenbeekstraat 22. AMSTERDAM-Z (Holanda).
- Ramón Saizarbitoria, Larramendi 23, 3.º. SAN SEBASTIAN.
- Claudio Sagarzazu, Tiendas. FUENTERRABIA (Guipúzcoa).
- Etienne Salaberry, Petit Séminaire. 64 USTARITZ (France).
- Carlos Santamaría, Buen Pastor, 13. SAN SEBASTIAN.
- Ibon Sarasola, Duque de Mandas, 37, 1.º. SAN SEBASTIAN.
- Manuel de la Sota, Etchepherdia, Au Phare. 64 BIARRITZ (France).
- Dominique Scubelet. 64 HAZPARREN (France).
- Juan Thalamas Labandibar, Gral. Primo de Rivera, B-1.º. SAN SEBASTIAN.
- Norbert Taur, Vinohradská, 126. PRAGUE 3 (Tchecoslovaquie).
- Francisco Tirapu, Plaza San José, 1. PAMPLONA.
- Antonio Tovar, Castellana, 76. MADRID-1.
- Miguel Javier Urmeneta, Paseo de Sarasate, 5. PAMPLONA.
- Ignacio Urquijo, Embajador de España en ECUADOR.
- Thomas Uthurry, 9, rue des Prébendés. 64 BAYONNE (France).
- Antonio Valverde, Zubieta, 38 3.º. SAN SEBASTIAN.
- Madeleine de Yaureguiberry, «Sibasia». Sibas par 64 TARDETS (France).
- Pedro Irizar, Lagasca, 54. MADRID-1.
- Joaquín Zaitegui, Catedral, Cobán Alta-Verapaz. GUATEMALA C. A.
- Gabriel Zapiain, La Roca, 7. SAN SEBASTIAN.
- Ambrosio Zatarain, Zubieta. 40, 2.º. SAN SEBASTIAN.
- Manuel Ziarsolo, Alda. San Mamés, 11, 4.º. BILBAO-10.
- Agustín Zubicaray, Cruceño, 38. ONDARROA (Vizcaya).
- Aniceto Zugasti, Euskalerria, 12-3.º dcha. SAN SEBASTIAN.

## MIGEL ARRUTZA EGIA

Euskaltzain laguntzaile hau ere, il zitzaigun 1966 gnko. maiatzaren 12-an. Bilboko seme izanik, euskalduna zan mutikotan. Geroago, aita il, ta amagandik berezi bizi izan baitzen zenbait urtetan, euskera ahanzi egin zitzaion; ta ogei urte zituela, berriro saiatu arbasoen mintzoa ikasten. Gero, ilarte guztian, euskal-irakasle izan zan. Aldi batean, Bilboko bigarren mailako Instituto delakoan, Bizkaiko Diputazioaren laguntzapean. Gerra ondorean, bere etxean, batipat.

Langilea izan zen euskal-alorrean, eta hainbat idazlan agertu zituen egunkarietan eta aldizkarietan, bizkaieraz geihenbat, ta azkenaldian, izneurtuak ere bai. «Euskal-ikasbide laburra» gertu zuen, izkera bizitik zuzenean ikasteko asmatua. Itzulpen batzuek ere, egin zituen. «Arrugain» izenordea erabili ohi zuen. Irurogei ta amasei urte zituela joan zitzaigun. Goian bedi.

*E. Erkiaga*

## ZIRILO ARZUBIAGA (1874-1966)

1966 urteko uztailaren 14-an hil zan Zirilo Arzubiaga apaiz jauna.

Otxandion jaioa zan 1874 urteko ekainaren 22-an.

Zorrontzan ikasi zuen latina fama aundiko apaiz batekin, don Jorge, arabarra bera. Billerlekoa. Goizean eskribau bati laguntzen omen zion bizimodua ateratzeko eta arratsaldetan egin ikasketak. Hala iru urtetan. Gero Gazteizeko Seminaria joan zan.

Meza berria Otxandion eman zuen eta Resurrezio Maria Azkue jaunak egin zuen sermoia egun hartan. Felipe Arrese Beitia-k bertsoak kantatu zituen.

Karanza-n urte bi egin zituen San Esteban-en erretore.

Orozko-n beste urte pare bat San Martin eleizan.

Zorrontzara joan zan andik 1903 urtean don Jorge-ren orde (orduan huelga aundi bat omen zegoen Bilbon eta trenak ezomen ziran Zorrontzara eltzen eta oinez joan omen zan menditik, mutil bat lagun zuela) eta 1937-rarte egon zan bertan. *Jaungoikozale* sortu zanean sekretario egin zuten eta denbora guztian, 1937 urtean Inglaterra-ra joan zan arte, lanean ekin zion.

Inglaterra-tik ostera egin ondoan erë nolabait lan berean iraun zuen hil arte, Bilbon Santa Klara monjen kapellau zala.

Dato guzti hauek berari galdetu nizkion bizi zala. Etzizaion gustatzen bere izenik ager zedin eta eznituela orduan jakineraziko esan nionean eman zizkidan.

## AITA KANDIDO IZAGIRRE O.F.M. IL DA

1967-ko Irailaren 12-an Arantzazun il zan. Luis Mitxelenak, berri triste au jakiñarazi nionean, onela erantzun zidan: «Euskal dialektologorik onenetakoa galdu dugu, Bonaparte-ren antzekoa, bista mikroskopikoa zorrotzago zuena, Schuchardt-ek esango zukean bezala, makroskopikoa baiño».

Aita Kandido Urretxuan jaio zan, 1913 urtean, Ipiñarrieta jauregian, ain zuzen ere. Apaiz ikasteak frantziskotarretan egin zituen. 1928 urtean praille sartu eta 1937-an meza berria eman zuen Mutikoen latin irakasle izandu da, bai Foruan eta bai Arantzazun.

Euskalkien berezitasunak eta toki jakin bateko euskera modua aztertzen gaillurtu zan. Lan mueta ortarako bear diren arimako doaiez ornitua zegoen: pazientzia, irau-pena, zeaztasun gose andia. Dozena erdi bat txosten utzi digu Boletínean, Euskera-n eta Anuario del Seminario Julio de Urquijo agerkarietan. Erronkari, Ultzama, Altsasu eta Tolosako euskera moduaz dira txosten oiek; baita Oñatiko liñagiñen iztegitxoa ere eman zuen.

Baiña aren obra nagusia, aren bizitzako zati andi bateko lana, bukatu gabe gelditu da: Arantzazu inguru ontako euskera moduaren azterketa oso eta sakona. Txartelak eundaka utzi ditu, gure baserrietako agure eta amona zaharrei artutako gaiekin. Egunen batean gai guzti oiek argia ikusiko al dute!

Gizon umilla eta ixilla zan, ezer gutxikin bizitzen ikasia (Gaurko egunean ez da jakinduri makala!). Txori-zale aparta ere ba zan, eta makíña bat gauza zekian oietaz. Arantzazuko baserritarrek ez dute berealakoa abaztuko Aita Kandido. Euskeraren aitzakiz adiskide min egin baitziran berarekin.

AKI letrekin izenpetzen zituen bere lanak (Aita Kandido Izagirre).

Goian bego gure Aita Kandido maitea!

A. Luis Villasante

## ANDIMA IBIÑAGABEITIA IDOYAGA (1907-1967)

Euskaltzaindia'ren laguntzaille zan Andima Ibiñagabeitia'ren il-berria izan dugu Caracas'tik. Aspalditik erbesteturik, azken urte auetan Venezuela'ko uri nagusian bizi zen. Berakin euskerak langille leial bat galdu du eta guk adiskide on bat.

Bizkaiko Elantxobe'n jaioa zan 1907'ko ilbeltzaren 26'an. Batxilerra Tudela'n estudiatu zuen. Gero, eleiz ikastaroak: Humanidadeak Loyolan; filosofia, matematikak eta izadi-jakintza Oña'n; Teologia, Ius kanonikua eta abar Marneffe'n (Belgique).

GAZTETXO asi zan euskeraz idazten, Loyolan Humanidadeak ikasten egoan denbora aretan, eta geroztik euskerazko aldizkaririk geienetan idatzi du, batez ere «Euzko-gogo», «Euzko-Deya», «Gernika», «Alderdi», «Egan» eta abar. Eta, Caracas'en asi berri zen «Eman...» aldizkariaren euskerazko saillaren zuzendaria. Iñoiz, Elentxu, Norbait eta Idoyaga izenordeekin argitaratu zituen bere lanak.

Erderaz, *Aprenda el vasco en 60 horas* idatzi zuen, aspaldi Zarautz'ko Itxaropenak argitara emana. Eta, bere euskerazko liburuak: *Euskera irudi-bidez* (Euskera básico), Paris'en 1953'an; Bergili'ren (Virgilio) *Unai-kantak* (Bukolikon) eta *Alor-kantak* (Georgikon) euskeratu zituan, Bilbon 1966'an argitaratuak izan dira Bergili'ren *Idaz-lanak osorik* izenezko liburuan, Aita Onaindia'k itzulitako *Enearena*'kin batean. Bena-vente'ren *Abere indarra* (La fuerza bruta) antzerkia euskeratu zuan, 1951'an Guatemala'ko «Euzko-gogo»n argitaratua.

Ovidius'en *Maita-bidea* eta beste zenbait lan euskerara itzuliak argitara gabe jarraitzen dute.

Euskera eta euskal literaturaren irakasle egin izan du Paris'en eta Caracas'en. Paris'en, bere ikasleak izan ziren J. Mirande eta D. Peillen, beste zenbaiten artean. Andima, gizon jakituna eta apala genuen, ezagutzera eldu ziran guztiak maitatua eta ar-emana izan dugunok ere ez gutxi; ain zabala ta maitalea bai zen bere biotza. G. B.

*J. San Martín*

### JULIAN BARANDIARAN KORTAZAR «AITA EMILIANO» (1904-1967)

Markiñan, abenduaren 13-an il zan Euskaltzaindiaren laguntzaille zan Julian Barandiaran jauna, karmeldarra, praille izenez Jesus Aurtzoaren Aita Emiliano.

Aita Emiliano Gipuzkoako Eskoriatza errian sortu zan 1904-ko epaillaren 9,an. Nafarroako Milafrankan, Markiñan, Gazteiz'en eta Bilbon egin zituan bere eleiz-ikasak.

1921-ean asi zan «Euskal Esnalea»n euskeraz idazten. Geroztik aldizkari askotan idatzi izan du, batez ere «Karmel», «Olerti» eta «Zeruko Argia»n.

Argitaratu berri dugu bere *Euskal musikolari bikañak* (Itxaropena Argitaldaria-ren «Kuliska Sorta»n 65-a). Izan ere musika zuen bere doaietarik bereziarena. Karmeldar ikastetxeetan ikasitakoaz gaiñera Monserrat, El Escorial, Madril eta Gazteiz'en egin zituan bere ikastaroak. Ortik zuen Maestro de Canto Gregoriano titulua irabazita. Baita ere, badu erderazko liburu bat *Psallite Sapienter* (Compendio de Música), 1956-an argitaratua.

Euskeraz argitaratu dituan liburuak, auek dira: *Andre Mari Euskaletzeko mendietan*, Bilbao, 1952; *Andre Mari gaztediaren eskuetan*, Zarautz, 1954; eta aurtan argitaratu duen *Euskal musikolari bikañak*.

Argitaratu gabeen artean gelditzen dira: *Andre Mari gaztediaren biotzetan*, *Andre Mari Mirarietan*, Gar-Mar'en «Sugerencias» euskeraz (I Atala). Baita ere itzuliak zituan San Juan de la Cruz'en *Cántico espiritual* (Gogo-abestia) eta *Llama de amor viva* (Maitasun-sugar bizia).

Oiez gaiñera, urteetan zear bildutako Euskal-esakera sail ugari xamar bat zuen, eta oraintxi Euskaltzaindiari emandako *Eresi Ikasbidea*.

Euskerazko zenbait artikulutan maiz erabili dituan izenordeak dira: Olagoiti, Zapal eta Julen.

Azken urte onetan Euskaltzaindiaren billera guzietara agertzen zan, ta azaroaren 24-an ikusi genun azkenengo aldiz gure adiskide apal eta zintzoa. Euskeraganako maitasunak etzun neurririk beregan eta Markiñan euskerazko ikastolak jartzeko lanetan bizkor ibili zan. Beraz, euskerak eta guk adiskide on eta leial bat galtzen dugu. G. B.

*J. San Martín.*



## PIERRE DUHOUR (1890-1968)

Euskaltzaindiko laguntzaille zen, 1966-an izendatua. Itzali da, 78 urte zituela.

Beskoitzen sortua, luzaz armadako mariñel ibilirik, Hazparnerat ezkondu zen. Hor bizi izan da geroztik. Alargundua aspaldi huntan, utzi ditu lau haur (seme bat eta iru alaba).

Eskualtzale porrokatua, 50 urtez anitz aldizkaritan eta anitz idatzi izan du. Bere lumez lagundu ditu bereziki: *Eskualduna*, *Herria*, *Gure Herria*, *Almanaka*, *San Frantses*, *Etxea*.

Liburu ttipi bat ere agertu izan du: *Erromako itzulia*.

Asko fedezale eta eskualtzale batasunetakoa zen. Pausatu da 1968-ko urtarrilla-ren 18-an.

P. Larzabal.

## TORIBIO ECHEVARRIA IBARBIA (1887-1968)

Cacaras'en apirillaren 18,an il zan Toribio Echevarria, 1965-etik Euskaltzaindiaren laguntzaille zana.

Eibarren jaioa zan 1887-ko apirillaren 27-an. Autodidakta bazan ere jakinduriz ondo ornitua zan Toribio. Bere lenengo ogibidea grabadore izan zan damaskiñau lanetan. Ta, here ikastaroak buka gabeak ziranez, maillaz-mailla igoaz joan zan, Eibarko udaletzeko sekretaritzaz eramatek, ALFA-ren sortzaille eta zuzendari (langilleen alkartasuneko kooperatiba bezala) izatetik Espainiako Campsa-ren buru izate-raiño. Orduko eibartar sozialisten buruetariko bat izan zan.

EUSKERA'n ikusi zuten argia, bere lanetarik, *Flexiones verbales de Eibar*, VIII-IX. 53/130 orrialdeetan (1963-64); eta, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, X-XI, 1/658 or. (1965-66).

Euskeraz idatzitako lanak: *Ibiltarixanak* (Arrate'tikuen izketango alegiñak), bertsoz eta izlaur, 495 orrialdeko liburua, Zarautz, 1967. Eta argitara gabea du bertatik kanpora gelditu ziran zenbait lan, *Ondakiñak* izenarekin aurtengo urtarrillan bildu zituanak egille berak (lan onen kopia bat nere eskuetan daukat). Biak Eibarko euskeraz idatziak.

Erderaz ere zenbait lan idatzi zituan. pentsaerak eta kritikak oiñarri dituala. Auek dira: *Metafisica a Urcola* (munduaren izateari buruz zituan iritziak), México, 1966. *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo* (politikazko iritzi ta gertaeraz ornitua), México, 1966. *El Hijo del Hombre* (Nazaret'eko Jesus'en bizitza Ebanjalioak oiñarri arturik eta gaurko Kristautasunari aburuz), México, 1966. *Tres ensayos* (Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración), México, 1967. Eta oiez gaiñera beste lan luze bat utzi du argitaratzeko, *Viaje al país de los recuerdos* izena duena, bi tomotan, bere gaztaroko istorioak eta esperientziak kontatzen dituana. Baditeke laister argitaratzea beste lanak argitara zituan Mexico'ko Impresiones Modernas, S. A. dalako etxeak.

Toribio, bai ideaz eta bai egintzaz, bere asmurik onenak eskeiñiaz igaro da mundutik. Tamalez, bere zartzarora erbesteraturik pasatu bear izan zuan, orrenbeste mai-

tatzen zuan Eibar'ko txokotik urruti, an bere bizia bukatu arte. Bere oroitzua emen zuanez, ilburukoan, *Ibilarixanak* liburuaren irabaziak Eibar'ko ospitalerako utzi ditu. Azken borondatea ere olakoa izan du gizonak.

Bere bizitzaren berri zeatzagoak eta ugariagoak eman nituan EUSKERA, VIII-IX, 53/57 or., *Flexiones verbales de Eibar* en presentazioan eta *Ibilarixanak* liburuaren («El Diario Vasco», 28 de abril, San Sebastián, 1968), eta neronek *Toribio Etxe-*

Eriotza ondorengoak ikusi Carlos Santamaria'ren *Aspectos - Un viejo luchador* («El Diario Vasco», 28 de abril, San Sebastián, 1968), eta neronek *Toribio Etxebarria'ren berri beltza Caracas'tik* («Zeruko Argia» 270 zenbakia, loraillaren 5-ekoa, 1968).

Munduak ain urri ematen dituan gizonetariko onek damutu bearrezko gauza guxti izango zuan bere harnean, ta bai kontzientzia nunnai zabal eta lasai agertzekoa.

Erlijio problemak bizi guztian kezkatu zuan gizon onek ez dakigu azken itzik jaso al izan duan, baiña zerurik bada an izango da iñor izatekoan.

J. San Martín.

#### RAMON MENENDEZ PIDAL (1869-1968)

1968-ko azaroaren 14-an hil zan Madrilen Ramón Menéndez Pidal jauna. Euskaltzain laguntzailea zen 1919-tik eta aurtengo otsaileko biltzarrean euskaltzain ohorezko izendatua.

Coruñan jaioa zen, 1869-ko epailaren 13-an. Filosofia eta Letrak estudiatu zituan Madrilen eta 1893 hartu zuen dotoradutza. 1899-tik katetratiku Madrilgo Unibersidadean. 1901-ean hartu zuen lankide Real Academia Espainolak. Akademia honen zuzendari izendatu zen 1925-ean, eta bera hautatzen iraun zuen 1936-ra arte. 1947-an berriz izendatu zen Akademia honen buru eta heriotzara arte iraun du zuzendaritzan. 1916-an Academia de la Historiak bere elkargoan hartu zuen.

Jaso dituen saririk aipagarrienak ditugu: «Feltrinelli» 1952-an, «Juan March» literaturakoa 1956-an, «Balzan» 1964-an eta Lanaren urrezko medaila 1965-ean.

Bere idazlanak ugariak dira, liburutuan baditu ehundik gora idatziak. Bere liburutegia milak liburuekin aberastu zuen. 1914-an *Revista de Filología Española* sortu zuen eta bere inguruan bildu zituen garaiko hizkun'zalaririk entzutetsuenak, batez ere erromanistak.

Lanik aipagarrien artekoak ditugu: *La leyenda de los infantes de Lara* (1896), *Crónicas generales de España* (1898), *Poema del Cid* (1908-1911), *Orígenes del español* (1926), *La España del Cid* (1929), *Los españoles en la Historia* (1947), *Los españoles en la Literatura* (1949), *Romancero hispánico* (1953), eta abar.

Beti izan zuen gure hizkuntzarentzat begirapen ona eta zenbait estudio ere eginak ditu han-hemen argitaratuak, beretarik hoberenekin bilduma bat osatu zuen *En torno a la lengua vasca* (1962) izenez. Baina liburu honez gainera batitu beste lan batzuek ere euskal kulturarentzat interesgarriak: *Roncesvalles*, *Vitoria y Las Casas*, *El idioma español en sus primeros tiempos*, *Toponimia prerrománica hispana*, eta abar. Beregaitik gure eskerrik hoberenak zor dizkiogu. G. B.

J. San Martín.

## BIZENTE AMEZAGA ARESTI

Hau ere, bizkaitarra genduen, Algortan jaioa, 1901 uztailaren 4-an, eta Venezuelako Caracasen ila, 1969 otsailaren 5-ean.

Legegizon egin zen Salamancan, eta izkuntzazale bilakatu, ingeles, frantses, griegu, latin eta euskera ikasi bait zituen.

Atzerrira jo zuen, eta Montevideon eta Caracasen irakasle jardun. Instituto Americano de Estudios Vascos delakoa sortu ta Venezuelako euskal-jatorriko gizon asko aztertu zituen istori-lanetan. Shakespeareren «Hamlet» eta Juan Ramon Jimenezen «Platero y yo» euskeraz eman zizkigun. Esquilo, Plinio, Descartes eta Cervantes idazleen lanak ere itzuli zituen.

Laguntzaile izendatu zuen Euskaltzaindiak eta haren izkera, geroago ta jatorrago ta atseginago zen. Jaunarengan atseden beza haren gogoak.

*E. Erkiaga*

## JOXE OLAIZOLA JOAN ZAIGU

(G. B.)

IRUROGEI TA BI URTE SANTA MARIA'KO ORGANU-JOILLE  
EUSKALTZAINDIKO LAGUNTZAILLETAKOA

Donostia'k eta Euskalerrri osoak, gizon aundia galdu du. Bere larogei ta sei urte-ekin ere, azkenerrarte tinko ikusi izan degu Donostia'ko kaletan. Ez otzak, eta ez beroak eragiten zion etxe-zuloan sartuta egoteko.

Joxe Olaizola, bere bizar tajutuarekin, gure erriko apaingarri bat bezela ikusten genduan gure artean. Ba-zirudian betiko emen geldituko zitzaigula; baiña gaitz zital batek jo zuan azkenerrako ta gaixo-aldi luze ta kristauki eramanak, or kendu digu bizien artetik.

Etzan gaurkoa gizona, 1883'garren urteko ilbeltzaren 27'garrenean jaioa Ernani'n, bereala nabarmendu zan musika-saillean. Bere etxean aurrena, bere amaren eta anai-arreben artean, erakutsi zuan musikarako zekarren gaitasuna.

Asierak, Ernani'n bertan izan zituan, Manuel Zendoia maixu argiaren begipean. Gero Erriko Etxeak zeukan Akademian jarraituko zuan. Ba zan aldi aretan Donostia'n, Euskalerrria kalean, «Amigos del País»koak sortutako «Erti Ederretako Akademia». An jarraitu zuan gure gizonak bere musika-ikasgua. Etxe artako maixu sonatuak izan ziran, Alfredo Larrotxa, Manuel eta Jerman Zendoia, Bonifacio Etxeberria ta Gregorio Anton del Saz, beste batzuen artean. Ba zuten bertan pedalier eta bi zerrenda-tekla zituan organua, ta an ekin zion Olaizola gazteak bere saiaketak moldatzen.

Etxe aretan ba zan ere, Abesbatza bat, «La Coral» izenekoa. Asieran, Etxeberria zuten gidari. Abesbatz ura kantarien erabakiz sakabanatu zan eta aren ordezt, «Orfeon Donostiarra» izeneko taldea sortu zuten. Abesbatz berria bere lenengo urtetan Lasala, enparantzako «Unión Artesana»n biltzen zan bere saioetarako. Oñate, Sainz eta Luzuriaga'ren ondoren, Sekundino Esnaola'k artu zuan taldearen gidaritzan. An zebillen tartean, maixu gazte zan gure Olaizola'tar Joxe. Au, solfeotarako maixu izendatu zuten. Tartean zebiltzan orduan Manuel Arruti tenorra ta gero gidari izango zan Sekundino Esnaola abots sendotakoa.

Saioetan, pianoko lana Olaizola'ren gain jartzen zuten. Ala sendotu ta bikaindu zan abesbatz berria. Baiña Olaizola gazteak, beste zaletasuna ere ba zekarren bere barruan: organurako griña bizia. 1905'garren urtean Kaieko San Pedro'ren elizan artu zuan lenbizi ango organista kargua.

Aldi aretan Santesteban Maixua zan Santa Maria'ko organu-joille. Ezbearren bat gertatu zitzaion Maixuari ta Isidoro Bengoetxea, apaizburuak, Olaizola'ri dei egin zion utsunea bete zezan. Santesteban sendatu zanean, Olaizola'k bigarrenaren lekua artu zuan organu artan. Il zan gerotxoago Maixua ta besterik gabe. Olaizola jarri zuten Santa Maria'ko organu-joille.

Artarako leiaketa bat eratu zuten aurrena. Iru ziran alki artarako eskea egiñak: Buenabentura ZapiRAIN, Juan Maria Ugarte, apaiz jauna ta gure Olaizola. Nagusi, gure Olaizola gelditu zan, eta andik aurrera legez izan zuan Santa Maria'ko organu-joillearen lanbidea. Kargu aren jabe, 1906'garren urteko urrillaren 11'garrenean egin zan.

Urrengo urtean, Abuztuko Andre Mari Jaietan, aditzera eman zuan bere lenengo abesti aitagarria: «Assumpta est Maria» izeneko abestia. Remijio Peña baritonuak abestu zuan bere bakar-kantua. Orkestako lagun izan ziran egun artan, besteen artean, Zuaznabar aita-semeak. Au gerora, Donostia'ko alkate izatera elduko zan.

Arrazkero, gure Joxe'k etzuan arnasarik artu bere lan ugarian. Eliz-Abestietan eta Euskal-doiñuetan geroago ta aberatsago izan zun bere emana. Usandizaga, Aita Donosti ta Aita Otaño, bere lagun izan zituan aldi artan. Nork konta ditzake gerora Olaizola Joxe'ren lanak, eta leiaketa sariak?

Gogora ekartzekoa izango da ere, gure gaztearen leia «Euskal Txistularien Elkartea» sortzeko. Lan bikaiña egin zuan gero, Zabalo anaiekin, Antekera Azpiri, Gregorio Muxika, Pepe Mendizabal, Jose Agirre, Zaldua ta Aita Donosti'rekin batuta, «SASKI-NASKI» agerraldiak prestatzen. Alakorik eztegu ezagutu beifñere, ez len eta ez gero.

Etzan oiekin agortu gure gaztearen lana. Euskal-Antzerkian ezagunak dira bere egiñak. Nork eztu ezagutzen bere «Oleskari Zaarra»? Kantu ta itzak tajuz sortuak zituan eta arrera bizia egin zion gure erriak maixuaren sorkari oni.

Ainbeste euskal-kanta ezin zitezkean saririk gabe gelditu. Ala artua izan zan Eusaltzaindian, bere laguntzailleen artean.

Erriko Etxean, bi aldiz izendatu zuten bigarren alkate. Bere sasoian erosi zan Artikutza. Orduko erabaki arek eman dio Donostia'ri orain onen ederki etortzen zaión etxetako ura.

Ainbeste aldetatik bere erriaren alde lan egin duan gizona, ezin zitezkean gure miñik gabe galdu. Joan zaigu bizienartetik. Baiña or gelditu da guzión oroitzan. Bere anaiak diran Manuel Maria ta operatako kantari sonatu izana dan Gabriel'i, ta beste senidetarteko guziei, gure samin-agurra bialtzen diegu. Eusaltzaindia'k batez ere, goraldau nai du gizon bikaín onek bere erriaren alde egin duan guzia. Bego gure oroitzan Olaizola Maixu Aundiaren erakusbidea. Eredü bikaiña benetan guzizontzat.

Jaunak ordain ederra eman bezaio betiko bizitzan!

## INDETERMINAZIOARI DATXEKON ADITZA SINGULARREAN

Frase bat indeterminadua dalarik, aditza, berboak singular dalakoan doa. Gaurregun, askok eta askok plural dalako hortan ematen dute, beste askok singular dalako hortan. Zenbait euskaikitan, eta beharbada denetan, bizirik diraute oraindik, honelako esanok: «gizon horrek gauza asko *daki*»; «perian jende asko *zan*»; «gaur ferian arraultza asko saldu *da*»; hamaika gauza ikusi *degu* Tolosalde hortan»; «arrantzaleek arrain asko ekarri *dute*»; «edozein gauza bota *diot* aurpegira»; «zenbat peza balio *du?*»; «pekatu asko egin *dut*, jauna»; «*eztut* gizonik ikusi»; «orain *dala* urte asko»; «zenbat kanika *dago* hor»?; eta honelako millaka eta millaka.

Numeralekin, gutxi asko, galdurik edo dago Bizkaia-n, Gipuzkoa-n eta gure ustez, Lapurdi-n ere bai. Ez Zuberoko-n ez eta Baxenabarre-n ere. Adibidez, guretzat gutzit arkaikoa dan honelako asko entzuten da eskualde hartan: «Bi ardi galdu da mendian». Bai Gipuzkoa-n ere; «zenbat pagatu duzu?» «Bost peza pagatu du».

Gure ustez, puntu honetan ere, ahal dalarik, beharko genuke batasuna egin. Gauza erreza da: orazioa indeterminadua denean, berboak singularrean eman eta kito!

*Aditz indeterminazioa*

Nork ez du entzun honelakorik bai Gipuzkoa'n bai Bizkaia'n:

|                                  |                       |
|----------------------------------|-----------------------|
| txoria harrapatu dut ... ..      | harrapa zak hori.     |
| eskua sakelan sartu dut ... ..   | sar hadi hor!         |
| harria kendu dut ... ..          | ken hadi hortik!      |
| ogia hartu dut ... ..            | har zak!              |
| izugarritzakoa gertatu da ... .. | zeruan gerta dedilla. |

Aita gurea esaten dugunean, honelaxe diogu: *barka* zaizkiguzu gure zorrak... *libra* gaitzazu... eta ez *barkatu* eta *libratu*.

Askotan entzun dugu honoko otoitz txiki eta polit hau: «Jainkoak egun on eta berri on deigula; berri onez, *berri* gaitzala».

Puntu hontan egiazki berezia agertzen da gure hizkuntza. Euskal literatura zaharrean bizi bizirik iraun du; egungo egunean, bizi bizirik dirau mugaz beste aldeko, Euskal Herrian. Hemen asko galdu da. Ez erabat. Ez diteke galtzen utzi!

*Nola erabili behar dan*

Har dezagun aditz bat: «sar, sartu». *Sartu*, partizipio da; *sar* berriz, erroa, muiña. Noiz esan behar da *sartu*, partizipioa alegia? *Aditzaren egiña, esan nahia, gertatu danean, erabiltzen da partizipioa*.

«Eskua sakelan sartu dut». Bai, hala da, eskua sakelan sarturik dut jadanik.

«Ogia ekarri dut». Noiz ez dakit, baiñan ekarri dut. Aditzaren forma, egiazkoa da, reala.

Noiz esan behar da *sar*, erroa alegia? Aditzaren egiña, esan nahia, eginkizun, gertakizun dagoenean.

«Eskua sakelan *sar* nezake». Hots, oraindik ez dut sartu, eginkizun da beraz.

«Gero *etor* diteke». Oraindik ez da etorri, etortzeko dago, etorkizun alegia.

*Partizipioa, modu indikatiboan erabili behar da, besteetan, erroa*

Partizipiorik gehienak, *tu* dalakoan bukatzen dira. *Tu* hori kenduaz erroa sortzen da.

Jarraitu ... .. jarrai.

Sartu ... .. sar.

Galdu ... .. gal.

I-tan bukatzen diran partizipioak, *i* hori kenduz gertatzen da erroa.

Ikusi ... .. ikus.

Eskeini ... .. eskein.

Ekarri ... .. ekar.

Baiñan, *busti, senti, jeiki, ilki, iraungi*, eta *jalgik*, ez dute *i* hori galtzen.

Jaiki naiz ... .. jeiki naiteke.

Busti da ... .. bus zitekean.

*A, e, o, l, n-z* bukatzen diranak ere ez dute aldakuntzarik. Adibidez: *bete dut eta bete dezake; jaio da eta jaio liteke; hil nuen eta hil nezakean; egon naiz, egon nintekean.*

*Zenbait ohar.*

*Ahal.* Berbo honek erroa behar du.

*Sar* ahal baledi.

*Ikus* ahal dezan.

*Ikas* ahal dezadan.

*Nahi.* Nere eskuetan ez dudan zerbait gertatzea nahiko nuke, baina ez da gauza segurua gertatuko danik. *Erroa* behar du beraz.

*Nahi* baduzu *etor* dedin.

*Zeruan sar* dedin nahiko nuke.

*Ohi.* Aditzaren egiña behin eta berriz gertaturik danez gero, partizipioa behar da.

Leize zuloan *gertatu* ohi da.

*Arrapatu* ohi dute.

*Gertatu* ohi da.

*Behar.* Partizipioa eskatzen du beti, gure ustez.

*Bi aa-z, bi ii-z, bi oo-z* hasten diran hitzak.

Horrelako hitz asko da euskeraz. Mugaz haindikoez horrela idatzi izandu dituzte eta oraindik ere esan eta idazten dituzte. Gure artean, nahaspilla zerbait izan bada ere, askok mugaz bestaldekoek bezala idatzi izan dute. Entzun berriz, danetatik entzuten da. Egia da askotan *zar* esaten duguna, baiñan egia ere da, *zahr, ohol, ahaztu* eta abar ere beste askotan esaten ditugula.

Behar beharrezkoa da, puntu hontan eginik zegoen batasuna apur ez dezagun.

Hemen, Baiona-n egin zan Biltzarrerakoan presentatu ziran hitzak:

|                   |                    |
|-------------------|--------------------|
| ahaide            | mahain/mahai       |
| ahal izan         | mahats             |
| ahalge            | mehe               |
| aharra            | mihi               |
| abate             | naharo             |
| ahantzi/ahaztu    | nahasi             |
| ahari             | ohol               |
| bihi              | ohore              |
| beheko/beheti     | ohoin              |
| ihintz            | xehe/txehe/txehetu |
| lehen (astelehen) | zahar              |
| leher egin        | haatik             |

### A edo e eufonikak

«Nindeken, gindezken, zekidaken, zekiguken, nun, genun, nezaken, genezaken, nezaioken, nenkarke, dula, dun, eta abar eta abar... orain askok horrela esaten ditugu, idatzi ere bai sarritan. Baiñan orain arteko idazle gehienek, beti eta beti honela eman dituzte berbo forma hoiek: nindekean, gindezkean, zekidakean, zekigukean, nuan-nuen, genuan-genuen, nenkarkean, genekarkean, duala-duela, nuana-nuena... eta cte.

Tartean sartzen dugun *a* edo *e* eufonika deritzagu. Komeni litzake, hemendik aurrera horrela idaztea, eta beste zera hoiek, «niin, nun, non-eta» zakuan betiko sartzea.

### Lokalismoak

Garbi dago gure ustez, euskeraren batasuna nahi dugunok, ezin genitzakeala onar.

Zein lokalismo? Orain arte euskal literaturan erabili diran hitzen edo aditzen formei ezertxo ere erasten ez dien hitz edo berbo formak. Ba da holakorik euskal herrietan: gaba, habek, bostian, harekila, hemendikan, amak esan do, hemendio, etxetio, kristauba, premiya, ikusiyaz... eta abar. Egia da herriak horrelako asko erabiltzen duela, esaten duela, baiñan egia ere da, euskal literatura zaharrean eta oraingoan ere, ez dutela sarrerarik ia izan. Horiek eta honelako beste asko, horrela idatzi dira: gaua, hauek, bostean, harekin, hemendik, amak esan du, etxetik, kristau-giristinoa, premia-premiña, ikusiaz.

«Tikan eta rikan» eta horrelakorik Gipuzkoa-ko puska haundi batetan esaten dira, bertsolariek maiz darabilzkite, bai mugaz bestaldeko eta hemengo autore zaharrek ere idatzi dituzte, baiñan, batasunaren izenean, hobe zitekean naski, orain berri, denontzat agertu dan liburuan gutxiago erabili baziran, «tikan», hori batez ere.

Beste alde, egia da lokalismo horiek, dauden daudenean, erabil ditezkeala. Noiz? Joxe Migel Barandiaran apaiz jaunak eman digu ejenplorik onena. Herriaren ipuiak, esaerak eta aztikeriak biltzen ibili dalarik, herriak eman dizkion bezelaxe bildu eta zabaldu nahi izan ditu.



Joan San Martin jaunak, «Zirikadak» eta «Eztenkadak» eskribitu zituanean, Eibar-en erabiltzen ziran hitz eta aditz forma askoz baliatu zan. Hori oso ondo baitago!

Bada beste gauza bat ere. Oraindik ere, lekuan lekuko asko da, beste lekuetan oso gutxi erabiltzen diranak, baiñan, berboei-eta zerbait berririk erasten dietenak. Gipuzkoa-ko eskualde batean, asko esaten dira forma hok: «goazemak, goazeman, goazemazu, goazemazue». *Goazen* «vamos» bada, *goazemak* «vámonos tú» baita, eta *goazemazute* «vámonos ustedes», eta beraz, «goazen» horri zerbait baiño gehiago erasten baitio.

«Goazemak eta goazemazuei» buruz esan duguna, beste anitz hitzez eta formez esan diteke. Behar baitira berpiztu!

*S. Garmendia.*

### JAZINTO CARRASQUEDO OLARRA 1965 URTEKO «TORIBIO ALZAGA» TEATRO SARIAREN IRABAZLE

Epai-maia'koak ao batez erabaki dute saria «Laratzean sua» iru ekitaldi dituan Teatro lanari ematea, besteak baño obegotzat jotzen dutelako. Egillea. Carrasquedo Olarra jauna da. Orobat erabaki dute aipamen berezia merezi dutela beste iru antzerki-lan auxkek: 1. «Nor errudun?», Xabier Gereño jaunarena. 2. «Brokel jauna», J. Antonio Arkotxa jaunarena. 3. «Biotzaren neurria», Pedro Sarriegi jaunarena.

Donostia'n, 1965 agorraren 24'n. Antonio M.<sup>a</sup> Labayen, Agustin Zubikarai, Gabriel Aresti.

### GABRIEL ARESTI 1965 URTEKO «LIZARDI» POESIA SARIAREN IRABAZLE

«Euskal-harria» lanarekin irabazi zuen Gabriel Aresti-k «Lizardi» saria. Iru boto izan zituen. Luis Maria Mujika-k boto bat «Nire errostatik» lanagatik eta Antonio Bilbao Monasterio-k beste bat «Bi ta bi lau ta bi... zortzi»-gatik. Juradua: M. Lekuona, P. Lafitte, J. San Martin, N. Etxaniz eta M. Lasa.

### MANUEL MATXAIN 1965 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN IRABAZLE

Honela erabaki zan:

1. Manuel Matxain, Salbatore Mitxelena zanari jarritako bertsokatik, kontuan izanik gañera beste sorta on asko aurkeztatu dituela.

2. Inozenzio Olea, eiztariari jarritako amalau bertsogatik.

3. Jesus Lete «Ibai-ertz», asto bati jarritako amasei bertsogatik.

4. Gillermo Albizu, bildots bati jarritako amalau bertsogatik.

Juradua: J. M.<sup>a</sup> Satrustegi, Aita A. Zavala, Basarri, Bordari, A. Irigoyen, J. San Martin, Juan Mari Lekuona eta A. Arrue.

# IÑIGO URROZ DE HEREDIA GERNIKA ENSAYO SARIETAN AURENA ETA SABINO ALONSO IPUJETAN

Gernika ensayo eta ipui sarietara aurkeztatu ziran euskerazko lanak ikusteko izandatu zan juraduak erabaki du:

Urrengo sari auek ematea ensayoetan:

1.º Iñigo Urroz de Heredia-ri «Euskaldun ospetsu batzuen gizatasuna» lanagatik

2n. Aita Gaizka Barandiaran S. J.-ri «Zugaitz gurgarriek Ixrael'en»-gatik.

Ipujetan:

1.º Sabino Alonso Ariño-ri «Txomin'en nekaldiak» ipuiagatik.

2n. Jose M.º Etxaburu-ri «Maitasunaren arantzak»-gatik.

3n. Manuel Ziarsolo «Abeletxe»-ri. «Aretxa, ezkurraren semea»-gatik

Juradua osatu dute Euskaltzaindiko Antonio M.º Labayen, Agustin Zubikarai eta Xabier Gereño Jaunak.

Sariak Gernika-ko Ayuntamentuaren etxean eman dira 1966 urteko urriaren 31-an.

## DOMINIQUE PEILLEN 1966 URTEKO DOMINGO AGIRRE NOVELA SARIAREN IRABAZLE

Domingo Agirre novela saria Bizkaiko Aharro Kaxak sortu zuen Euskaltzaindiarekin bat eginik eta aurtan Dominique Peillen-i eman zaio «Itzal herrian» deritzan novelagatik.

Juradua osatu dute Eusebio Erkiaga, Antonio Arrue eta Rikardo Arregi jaunak.

Dominique Peillen Parisen jaioa da guraso zuberotarrengandik.

Oso ezaguna da euskal letretan eta lehendik ospea duena. Beste novela sari bat ere irabazia du.

## IBON SARASOLA 1966 URTEKO «LIZARDI» POESIA SARIAREN IRABAZLE

«Ez bat, ez bi, ez...» lanagatik irabazi zuen Ibon Sarasola-k 1966 urteko «Lizardi» poesia saria.

Juraduko egin zuten G. Aresti, Bordari eta N. Etxaniz-ek.

## INOZENZIO OLEA 1966 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN IRABAZLE

Inozenzio Olea-k irabazi zuen 1966 urteko «Xenpelar» saria «Nere jaiotetxea» bertso sortagatik.

Bigerren, irugarren eta laugarren sariak Matxain, Lete eta Salaberria-ren artean partitu ziran, danak berdin.

Juraduko A. Arrue, Bordari, A. Irigoyen, A. Valverde, A. Zatarain eta Aita A. Zavalá izan ziran.

### JUAN ANTONIO LETAMENDIA «KIRIKIÑO» SARIAREN IRABAZLE

«Kirikiño» ipui sariketa «Joxe Proletario» titulua duen lanak irabazi zuen. Egilea: Juan Antonio Letamendia. Lehen-sariaz gainera aipamen berezia egin zitzaion Xalbador Garmendia, Anastasio Albizu eta Jose Basterretxea-ri.

Juraduko izan ziran A. Arrue, A. Irigoyen eta J. San Martin. Epaia 1967 urteko otsailean eman zan.

### EUSKAL-HERRIKO BERTSOLARIEN AZKEN TXAPELKETA NAGUSIA DONOSTIAKO ANOETA FRONTOIAN 1967 URTEKO GARAGARRI- LAREN 11-AN

Uztapide atera zan txapeldun, Xalbador bigarren, Lopategi irugarren eta Lazkao-txiki laugarren. Auspook argitaratutako liburuan ikus diteke txapelketa honen berri zeatz eta meatz eta baita aldezaurretik egin ziran txapelketena ere.

### AGUSTIN ZUBIKARAY 1967 URTEKO «TORIBIO ALZAGA» TEATRO SARIAREN IRABAZLE

Aurten «Toribio Alzaga» teatro sariaren irabazle Agustín Zubikaray Ondarroa-koa izan da «Gizon on eta andre erre?» obragatik. Erabaki duen juradua Piarres Larzabal, Iñaki Beobide eta Gabriel Aresti-k osatu dute.

Agustín Zubikaray-ren nortasuna erakutsi beharrik eztago, oso ezaguna baita gure artean.

Sari au eta «Domingo Agirre» novela saria Bizkaiko Ahorro Kaxak sortuak dira Euskaltzaindiarekin bat eginda eta txandaka ematen dira, urte bakoitzean bat. Beraz, datorren urtean novela saria tokatzen da. Asmoa dago sari auek diruz jasotzeko —oraingoa amar milla pezeta izan da— eta oinarriak libreago uzteko luzeerari dagokion kontuan.

Urrengo teatro sarirako, guñera, aurrentzako gaia eskatuko da. Zeatz jakiñera-ziko dira oinarriak.

### 1967 URTEKO «LIZARDI» POESIA SARIA

Juraduko ziran A. Arrue, I. Goikoetxea eta J. San Martin-ek, eldu ziran iru lanak ikusita, saririk ez ematea erabaki zuten.

1968 urtekora lanik batere etzan agertu.

### MANUEL MATXAIN 1967 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN IRABAZLE

1968 urteko martxoaren 29-an erabaki zuen juraduak urteroko sariketa nola eman:

Manuel Matxain-i lehen saria.

Jesus Lete-ri bigarrenena.

Martin Oreja-ri irugarrena.

Gillermo Albizu-ri laugarrena.

Juraduko izan ziran Xabier Amuriza, Juan Garmendia eta Pedro Berrondo.

1968 URTEKO «TXOMIN AGIRRE» NOBELA SARIA TXILLARDEGIREN  
ELSA SCHEELLEN NOBELARI

Euskaltzaindiak bi urterik behin eratzen duen «Txomin Agirre» izeneko nobela saria, aurtén, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» idazle famatuari eman zaio bere *Elsu Scheelen* izeneko nobelagaitik.

Juraduko, Gabriel Aresti, Salbador Garmendia eta Ibon Sarasola izan dira.

Sari hau, urtero Bizkaiko «Caja de Ahorros»-ak ematen duen diruarekin egiten da, urte batean «Txomin Agirre» izeneko nobela saria eta bestean «Toribio Alzaga» izeneko teatru saria. Beraz, aurtén genduan «T. Agirre»-rena, eta hain zuzen ere, aurtén, Euskaltzaindiaren urre-etzeiak dirala ta, «Caja de Ahorros»-ak ematen duenarez gain beste 10.000 pezeta jarri ditu Euskaltzaindiak bere kutxatik eta 20.000 pezetako saria da.

Zazpi nobela presentatu dira. Beretariko lau biziki onak juraduaren iritziz, eta *Beste izakia* eta *Igesa* izenekoen aurretik gelditu da *Elsa Scheelen* «Txillardegi»-rena.

Bijoaz gure zorionak idazle bizkorrari.

J. S. M.

## KALONJE 1968 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN IRABAZLE

P. Berrondo, Jon Garmendia eta Xabier Amuriza juraduko ziranak lehen-saria Kalonje-ri ematea erabaki zuten. Bigarrena Ayerbe-ri; irugarrena Salabarria-ri eta laugarrena Lete-ri.

AGUSTIN ZUBIKARAY 1969 URTEKO «TORIBIO ALZAGA» TEATRO  
SARIAREN IRABAZLE

Aurtengo «Toribio Alzaga» teatro saria Agustin Zubikaray-k irabazi du «Mendu zaarrak» lanarekin. Juraduko egin dute I. Beobide, P. Berrondo eta P. Larzabal-ek. Lau lan aurkeztatu ziran sariketara.

BODAS DE ORO DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
LOS PRIMEROS PASOS DE SU FUNDACION

El día 5 de septiembre de 1918, durante el Primer Congreso de Estudios Vascos celebrado en la Universidad de Oñate, bajo el patrocinio de las Diputaciones vascas, se llegó al acuerdo de crear un organismo de investigación y tutela del euskera, dividido en dos secciones: sección de investigación, cuyo objeto sería el estudio de todos los problemas de lingüística euskérica en todas sus ramas; y sección de labor práctica, cuyo objeto sería la tutela y restauración del idioma vasco en todos los órdenes sociales, publicaciones, ayuda a los establecimientos docentes que implanten la enseñanza del vascuence, oficinas de traducción, consultorio de corporaciones, etc.

A ese fin se nombró una ponencia que, dentro del plazo señalado por la Asamblea, redactaría las bases para someterlas a las Diputaciones vascas. En esta conclusión está el origen de la Academia de la Lengua Vasca, según consta en la página 487 del volumen *Primer Congreso de Estudios Vascos* (Bilbao, 1919-1920). A los pocos meses aprobaron el proyecto las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya.

En la primera reunión celebrada en la Diputación de Guipúzcoa, el 11 de septiembre de 1919, los académicos numerarios designados en el Congreso de Oñate: Resurrección María de Azkue, Arturo Campión, Luis de Eleizalde y Julio de Urquijo, hicieron la elección de otros miembros numerarios para componer Euskaltzaindia. En tal ocasión correspondió a la elección de los señores: Eguzquiza, Inzagaray, Landerreche, Lhande y Olabide.

Aquel mismo año de 1919, Azkue es elegido presidente por mayoría de votos y Eleizalde secretario. Y dentro del mismo año, en reunión del mes de octubre, fueron nombrados honorarios: Schuchardt, Vinson y Uhlenbeck; más 44 miembros correspondientes, de los que viven actualmente Manuel Lecuona (el hoy presidente de esta corporación), Isaac López Mendizábal (hoy miembro de honor), Ramón Menéndez Pidal (presidente perpetuo de la Real Academia de la Lengua Española), Juan Cruz Ibarguchi, Gabriel Manterola y Odón Apraiz. (1)

En 1920 se integraron como numerarios Severo Altube, R. P. Dámaso de Inza (su nombre de pila Miguel Olasagarre) y Georges Lacombe. Hoy, sólo vive el R. P. Inza, misionero en Chile.

Todo lo relativo a la constitución y a las primeras reuniones está recogido en el primer *Euskera* (tomo I, núm. 1, 1920). Según se cuenta en dicha publicación, la idea de creación de la Academia se remonta a 1886, a raíz de la proposición hecha por Arístides Artiñano en las Fiestas Eúskaras de Durango, cuya comunicación llevaba por título *Proyecto de Academia Vascongada*. Más tarde, siendo presidente de la Diputación de Vizcaya Adolfo Urquijo, se realizó un proyecto de constitución, cuyas bases servirían posteriormente.

Más tarde, en enero de 1918, el diputado vizcaino Cosme Elguezabal presentó una moción que tuvo su eco, y había de servir de base fundamental durante la proposición en el Congreso de Oñate. Apenas tuvo alteraciones de importancia aquella proposición del señor Euguezabal, en la cual se leía, entre otras ideas eficaces: «Esa Sección (la lingüística) es por sí misma tan importante y trascendental, que requiere tanta suma de energías y dispendio de fuerzas espirituales y económicas. ¿Cómo hemos de globalarla con otra que a mi juicio es de más urgencia, como la conservación del Euskera? Propongo que sean dos instituciones completamente distintas, una que ahora salga de aquí, la otra que se encargue del estudio filológico del euskera, que sea como la Sección de Estudios Vascos». «Todos conocen a hombres que se interesan por la ciencia pura de la lingüística, sin pensar para nada en cuestiones de orden práctico: estos hombres son los que tienen preparado el espíritu para esta labor. Los demás, los apóstoles, los que no consideran la lingüística como un fin en sí misma, los que la consideran como un medio práctico, son los que se encargarán de la labor que corresponde a la Sección B (tutelar). Como son independientes no pueden dañarse mutuamente».

Bajo estos conceptos comenzó a funcionar la Academia de la Lengua Vasca.

---

(1) Ramón Menéndez Pidal y Juan Cruz Ibarguchi fallecieron después de escrito este artículo.

## LOS CINCUENTA AÑOS DE SU LABOR

Como reza el artículo primero de sus estatutos: el fin de esta Academia es velar por el idioma vasco, atendiendo tanto a su cultivo popular y literario como a su investigación filológica.

La Academia cuenta con 23 miembros de número, cantidad fija ésta que se va ocupando por vacantes; son de número ilimitado los miembros honorarios y correspondientes, y tiene en la actualidad un miembro de honor y poco más de un centenar de correspondientes. Los de número cuentan con voz y voto, y los demás únicamente con voz. Los numerarios han de ser vascos de naturaleza e idioma. No obstante, la Academia puede dispensar del primero de estos dos requisitos, cuando, a juicio de la misma, concurran en los candidatos méritos especiales. Circunstancia ésta que hasta la fecha no se ha dado.

Es de rigor que todas las reuniones privadas de la Academia se celebren en vascuence.

Desde 1920 hasta 1936, publicó en su primera época el Boletín *Euskera*, donde se recogen estudios, trabajos y actas de la Academia. Su segunda época comenzó en 1956 y se viene publicando normalmente.

En octubre de 1953 se publicó un cuaderno, como primer intento de continuación del antiguo *Euskera*, y donde se recoge el índice de publicaciones de Euskaltzaindia y se da cuenta del estado en aquel momento.

*Euskera* recoge los trabajos de investigación, así como los acuerdos tomados durante el transcurso de su existencia, llegando a la unificación ortográfica y a un acercamiento para la unificación de un euskera literario por encima de las divisiones dialectales.

Aparte del Boletín *Euskera* ha publicado numerosas obras, tanto de estudios lingüísticos, de literatura, como de divulgación. Entre las mismas descuellan: *Morfología Vasca* (1925) y *Gipuzkera osotua* (1935), de R. M. de Azkue; *Erderismos* (1930), *El Acento Vasco* (1932) y *La Vida del Euskera* (1935), de S. Altube; *Usauri* (1930) y *Donostia* (1933) —ambas merecieron el premio literario Schuchardt, convocado por la Academia—, de A. Anabitarte; así como las reimpresiones de obras antiguas como la cuarta edición de *Gero* de Axular (1954), *Testamentu berriko kondaira* de Lardizabal (1957), *Olerkiak* de Arrese-Beitia (1954), etcétera, aparte de otras obras modernas y algunos textos antiguos que vieron la luz en *Euskera*, ha patrocinado numerosas publicaciones.

El plan más serio de publicaciones, en el momento actual, constituye las reediciones del *Cancionero popular vasco* (mil y una canciones, con letra y música) recopilado por Azkue, en dos volúmenes, con un apéndice documental efectuado recientemente por varios miembros de la Academia. Una antología de cuentos del mismo autor, así como el dar a luz tres obras inéditas del mismo Azkue. Todo ello, dentro de las bodas de oro, en honor a su fundador y primer presidente.

Se publicarán también algunos vocabularios de especialidades, por ejemplo: Aritmética, Geometría, Geografía, etc. Que unidos a vocablos de necesidad diaria, vocabulario urbanístico, constituirá un cuerpo unitario a formar un diccionario moderno, para las necesidades cotidianas y para estudios dentro de las exigencias de hoy. En ello trabaja un equipo de académicos aplicando el sistema de investi-



gación operativo. Este equipo está en contacto directo con otro que prepara y selecciona textos para escuelas.

Pero el trabajo de mayor envergadura consiste en la edición de un gran diccionario vasco-español-francés, mejor dicho, el *Diccionario* trilingüe que editó Azkue en 1905-1906, en dos tomos. Que en esta ocasión será en tres tomos, corregido y ampliado el anterior (considerablemente ampliado) bajo la experta dirección del lingüista Luis Michelena, digno miembro numerario de esta Academia y catedrático de la Universidad de Salamanca. Es muy posible que el primer volumen vea la luz el próximo año.

Los concursos literarios que convoca la Academia ya son tradicionales en las letras euskéricas; a aquel premio «Schuchardt» de antaño le han sucedido los premios «Domingo de Aguirre» de novela, «Toribio Alzaga» de teatro, «Lizardi» de poesía y «Xenpelar» de bertso-paperak (hojas volantes de bersolaris). Además, organiza los campeonatos bienales de bersolaris («Bertsolari Txapelketa»).

### LOS CUATRO PRESIDENTES EN SU HISTORIAL

Resurrección Marfa de Azkue y Aberasturi fue el primer presidente de la Academia, que se ocupó de su dirección desde 1919 hasta 1951, fecha de su fallecimiento.

Azkue nació en Lequeitio el 5 de agosto de 1864. Es sin duda el hombre a quien más debe la lengua vasca.

Cursó estudios de náutica en Lequeitio y bachillerato en Bilbao. Estudió Teología en Vitoria (1885) y Sagrada Escritura y Derecho Canónico en Salamanca (1888). Estudió música en Bruselas y en el Conservatorio de Colonia (1909). Profesor de euskera en el Instituto de Bilbao desde 1888. Editó la revista *Euskal-zale* desde 1897 hasta 1899.

Miembro de número de la Real Academia de la Lengua Española.

La mayoría de sus trabajos, aparte de libros, vieron la luz en *Euskera* y en la *Revista Internacional de Estudios Vascos*.

Sus obras más importantes: *Diccionario Vasco-español-francés* (2 tomos), Bilbao 1905-1906. *Cancionero Popular Vasco*, Barcelona, sin año. *Morfología Vasca*, Bilbao 1925. *Euskalerraren Yakintza* (Literatura popular del país vasco), obra bilingüe (en 4 tomos), Madrid 1935, 1942, 1945 y 1947.

Solamente un par de obras de las cuatro citadas dejan bien justificada la laboriosidad de la obra de un hombre en su vida. Pero a esa su gigantesca obra hemos de añadir una larga lista de narraciones, novelas, óperas, zarzuelas, estudios, ensayos, etc. Algunos de cuyos títulos son: *Euskal Izkindea*, *Gipuzkera osotua*, *Txirristadak*, *Bein da betiko*, *Ardi galdua*, *Sasi eskola*, *Bizkaitik Bizkaira*, *Ortzuri*, *Urlo*, *Eguzkia nora*, *Attaren bildur*, *Katalintxo*, *Seaska utsa*, *Lamiak Euskalerrian*, etcétera.

Su personalidad se ha estudiado ampliamente en *Azkue jauna zanaren gorazarrez*, (*Euskera*, tomo II, Bilbao 1957). Donde se recogen los siguientes trabajos: conferencias de N. Oleaga y A. Arrue sobre su vida y su obra; Maidagan, *Dedicación del homenaje*; Ibarguchi, *Azkue euskerálogo*; Olaizola, *Azkue músico*; Mañá-



ricúa, *Azkue sacerdote*; con la publicación de bastante correspondencia inédita del mismo Azkue.

*Don Resurrección María de Azkue lexicógrafo, folklorista y gramático*, por Luis Michelena, Julio Caro Baroja y Antonio Tovar. Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya. Bilbao 1966.

\* \* \*

Ignacio María Echaide Lizasoain fue nombrado presidente al fallecimiento de Azkue, es decir, desde 1952 hasta su propio fallecimiento en 1962.

Echaide nació en San Sebastián el 1 de diciembre de 1884 y murió en la misma ciudad en noviembre de 1962. Ingeniero Industrial, director de la red telefónica de Guipúzcoa. Director del Seminario de Filología Vasca «Julio Urquijo».

Es autor de numerosas obras en castellano y vascuence sobre técnicas de telefonía y estudios lingüísticos principalmente. Sus obras euskéricas más importantes: *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (1929); *Subtjijación, Prefijación y Composición en el idioma Euskaro* (1911); *Tratado de sintaxis en el idioma Euskaro* (1912); *El verbo vascongado* (1923); *Sobre el origen y parentesco del pueblo Euskaro y su idioma* (1935); *Desarrollo de las Conjugaciones Euskaras Perifrásticas y Sintéticas, respetuosas y familiares* (1943).

Colaboró en *Euskal-Esnalea*, *Euskera*, *Boletín de la R. S. V. A. P.*

Su vida y su obra se recogen en la revista literaria euskérica *Egan*, año 1962, páginas 169-172; y en el *Boletín Euskera*, tomo VII, págs. 350-353, 1962.

\* \* \*

José María Lojendio Irure, tercer presidente, que ocupó el cargo de la dirección los años 1964-1966, nació en San Sebastián el 10 de octubre de 1910.

Estudió el bachillerato en San Sebastián, licenciatura de Derecho en Valladolid y doctorado en Madrid y París.

Miembro del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo». Presidente del Tribunal Tutelar de Menores de Guipúzcoa.

Fundador y primer secretario de la entidad de escritores en euskera, creada en 1930 entre los congregantes de la juventud católica San Luis Gonzaga, con el nombre de «Luistar Euskal Idazle Bazkuna» (L.E.I.). Y por aquel tiempo colaboró con artículos en vascuence en las publicaciones *Junior*, *Gure mutillak*, *Argia*, *El Pueblo Vasco*, etc. A veces bajo el seudónimo de *Bidasoro*, *Matia Polloe* y *Mazkelet*.

En postguerra ha colaborado en *Egan*, *Euskera* y *Aránzazu*.

\* \* \*

Manuel Lecuona Echebeguren, actual presidente, ocupó el cargo en diciembre de 1966.

Nació en Oyarzun (Guipúzcoa) el 9 de marzo de 1894. Cursó sus estudios en el Seminario Diocesano de Vitoria. Profesor en el mismo Seminario desde 1917

hasta 1936. Le cuenta la Academia entre sus primeros miembros correspondientes de 1919. Fue nombrado miembro de número en 1950.

Ha colaborado en vascuence y castellano en numerosas publicaciones del país sobre temas de etnografía, historia, arte y literatura.

Sus obras más importantes en castellano: *Métrica vasca* (1918), *La poesía popular vasca* (en el «V Congreso de Estudios Vascos», 1930), *Literatura oral euskérica* (1935), *Del Oyarzun antiguo* (1959), *Literatura oral vasca* (1964).

En vascuence: *Gabon Kantak* (1933), *Iesu aurraren bizitza* (1948), *Gorozi-ka'tik Gurutzia'ra* (1952), *Zigor* (1963), *Bi antzezki ta itzaldi bat* (1965).

Ha dirigido la traducción al euskera de la Liturgia.

Se encargó de la edición y prólogo de la cuarta edición del *Gero* de Axular, publicado en 1954 a expensas de la Academia de la Lengua Vasca.

## PRESENTE Y FUTURO DE EUSKALTZAINDIA Y DEL EUSKERA

La residencia de la Academia continúa desde sus comienzos en Bilbao (Ribera, 6). Últimamente se ha abierto un secretariado para la delegación guipuzcoana en la Diputación Provincial, en San Sebastián.

Su publicación *Euskera* sigue dedicándose casi exclusivamente a la investigación lingüística. Mantiene especial interés en la preparación de la nueva edición, revisada y aumentada, del *Diccionario* de Azkue, bajo la dirección del distinguido filólogo y digno miembro de número don Luis Michelena, que constituirá el documento fundamental en el terreno de la lexicografía.

Pero su mayor preocupación actual, a la vista de la paulatina pérdida del vascuence, es contribuir a la conservación y propagación de la lengua. Sin la cual esta Academia no tiene razón de ser. En 1966 elevó una petición al Ministerio de Educación y Ciencia para dar acceso en la región a las escuelas nacionales e Institutos al euskera. En septiembre de 1967, una comisión de la Academia se entrevistó con el señor Ministro de Educación, de quien recibieron impresiones alentadoras.

Hace bastantes años que manifestó nuestro eminente lingüista doctor Michelena: «Una lengua no oficial difícilmente subsistirá en el mundo de hoy si no dispone del mínimo de medios necesarios para su conservación. En segundo lugar, esta desaparición no supondría un provecho para nadie y sí un empobrecimiento para todos».

Por cierto, los resentimientos que provoca la humillación lingüística no favorecen a la hermandad de los pueblos.

Para superar su empeño es preciso el esfuerzo de todos los vascos. Difíciles son las rutas a seguir. La Academia de la Lengua Vasca puede aconsejar normas orientativas, pero a la hora de ejecutar, a la hora de vigorizar nuestra lengua, necesita de todos. Porque la capacidad y poder facultativos de Euskaltzaindia son muy limitados. La supervivencia del vascuence, por la que esta Academia asume una gran responsabilidad, es tarea de todos. Su pérdida —escribía hace unos años José Miguel de Azaola— sería una verdadera catástrofe, además de suponer una dilapidación injustificable, ya que los vascos del siglo XX no tienen el menor

derecho a privar a sus descendientes de la herencia riquísima de su idioma vernáculo, que constituye el exponente más calificado y el fruto más rico del genio de la raza.»

Como aconsejó aquel gran vascófilo que tanto honró a Euskaltzaindia, Julio de Urquijo: «...es preciso que los trabajos y esfuerzos existan y que todos y cada uno de nosotros, aislada y colectivamente, coadyuvemos al resurgimiento del idioma».

A este respecto tenemos un buen ejemplo de cooperación y desarrollo incremental con las campañas de alfabetización, organizadas por la Academia, para enseñar a leer y escribir a los vascos parlantes (necesidad imperiosa, porque a los vascos no se nos ha enseñado nuestra lengua en las escuelas), está dando resultados óptimos en algunas zonas de Guipúzcoa, y es necesario propagar por toda la superficie de habla euskérica. Que además de enseñar a leer y escribir se dan nociones de literatura vasca.

Pues también es preciso decir que existe una literatura vasca tradicional, «más bella y original de lo que se suele decir», como dijo el profesor Lafón, de la Universidad de Burdeos.

A su vez, la literatura moderna ha alcanzado un desarrollo insospechado, y hoy se cuenta con buenas publicaciones y extraordinarios cultivadores de las letras.

Comprendemos que la labor a realizar para vitalizar nuestra lengua es una tarea larga y dura, pero no desalentadora. Todo euskaldun consciente debe aportar su grano de arena.

Las discordias mantenidas antaño de si interesa o no la salvación del euskera para el desarrollo cultural de nuestro pueblo, ya no se discute entre personas que se precian de cierta cultura. Pues desde entonces, la ciencia lingüística y la sociológica han evolucionado de manera favorable a la defensa de todas las comunidades por muy pequeñas que éstas sean. La Academia confía en los modernos conceptos y en el tesón del pueblo vasco.

*Juan San Martín*

Secretario de la Academia de la Lengua Vasca

## EUSKAL - AKADEMIAREN AGIRIAK

Donostian, Diputaziñoaren jauregian, 1965-I-29.

Bildu dira: Lofitte jauna buru, San Martín, Villasante, Haritschelhar, Larzabal, Satrustegi, Labayen, Arrue, Zavala ta Irigoyen euskaltzaiñak. Juan Maria Lekuona, Artola, Zubikaray, Julene Azpeitia, Artetxe eta Valverde urgazleak.

Mitxelena, Lojendio eta Anai Berriotxoak ezin etorria adierazo dabe.

Aurreko batzar-agiria irakurri da eta ontzat artu da. Arruek berba egin dau zenengo bertsolarien txapelketez. Diño Donostiko txapelketea dala-ta, oraindiño kontu guztiak zeatz egin barik badagoz be, eun eta ogei milla peseta sartu dirala Euskaltzaindiaren izenean bankuan eta zeatzasun guztiak eginda gero geiago sartuko dala. «Centro de Atracción y Turismo»-kin izan ditugun artu-emonen barri be emon dau. Diño bertsolarien sariketetan juradu ibilli diranen artean bazkari bat egin leitekeala eta ontzat artu da. Diño, gaiñera, dirutza orretarik zati on bat bertsolarien arazoetarako itxi leitekeala. Esaterako, Mitxelena bersolariari aita jako eta bosteun peseta emon leioz meza eta olangoetarako. Batuta dagozanari ondo irudituten jakle. Eskerrak

emon bekiez erregaluak bialdu dabezanai eta Anoeta-ko Frontoari. Tolosa-n egin zan Gipuzkoako azken txapelketa nagusia eta bertako Ayuntamentuak egin zituan prestamenak. Irabazietatik erdia emongo ei deuskue. Batzarrekoak oso pozik artu dabe bertolariak egin dan lan andia eta lan egin dabenai eskerrak emotea erabagi dabe.

Ondarroako sarien gaiñean berba egin da gero. Erabakiak oneik dira.

Poesia saria: «Bear zaitut laga». Egillea: Antonio Bilbao Monasterio.

Teatro saria: «Historia triste bat». Egillea: Salvador Garmendia.

Mariñel giroko narraziñoa: «Amonatxo zaarrak eta ur txakurrak». Egillea: Agustín Zubikaray.

Baserri giroko narraziñoa: «Arnobarrengo Iñaxio». Egillea: Tene Muxika.

«Domingo Agirre apaiz»: «Domingo Agirre-ren eliz-itzaldiak». Egillea: Aita Luis Villasante.

Ondarroako Ayuntamentuari jakinerazi jakon eta abenduaren 20-an egin zutuezan sari emoteak lore-jokoetan.

Gero Erkiaga-ren karta bat irakurri da. Bere eretxia azaltzen dau poesia sariaz eta difio poema sarituaren funtsa ta muña eztala itxasoa, eskatzen zan moduan, olerkariak itxasoa aipatzen badau be. Bere berben barri agirian jartzen da.

Gero liburuaren argitaraldi barriaz, zadorlariak itxi dituen agiriak irakurri dira. Gipuzkoako Ahorro-Kaxak Euskaltzaindiari 70.000 peseta itxi deusaz, korridu barik, liburu saldu-ala, sei illabeterik sei illabete zorra al dan moduan kitatzekotan. Diru orregaz guztiz ordaindu da Barcelona-ko Juan Flors argitaratzaileagaz gendun zorra. Gaiñera, 10.000 peseta emon ditu, euneko 20 kenduaz erosi dituen 50 aleakaitik. Gipuzkoako Diputaziñoak 100 ale erosi ditu bere aldetik eta Bizkaikoak, barriz, 75.

Anai Berriotxoak bialdu dauen nota bat irakurri da eta agertu diran Kuadernuen barri emoten dau.

Bilboko iru euskaltzainen eskutitzak (Aita Akesolo, Erkiaga eta Gorostiaga-renak) irakurri dira, zadorlariak egin eutsiezana erantzunaz, Euskaltzaindiaren batzar-karguak dirala-ta.

Juan San Martin-ek Julene Azpeitia egiten ari dan silabarioaren barri emon dau eta Julene Azpeitia-k itaun batzuk egin ditu zelan aurrera jarraitu. Atsegin andiagaz entzun jako esan dauen guztia eta lan ederra egiten ari da guztien eretxiz.

Gero zadorlari ordezkotzaren egitekoek eta sariaz berba egin dabe bilduak. Erabagirik artu barik, urrango batzarreko itxi da gaia, orduan luzatu barik erabagi dedin.

Urrango batzarrean lenengo tratatu bear dan gaia «zadorlari ordezkotza: egitekoak eta saria» da.

Oi dau otoi zagaz asi ta amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburordea* (1)

P. LAFITTE

*Zadorlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostia'n, Diputazioaren jauregian, 1965-II-26.

Bildu, dira: Arrue, Haritschelhar, Irigoyen, Labayen, Larzabal, Lekuona, Lafitte, San Martin, Mitxelena, Satrustegi, Aita Villasante eta Aita Zavala euskaltzainak, eta Aresti eta Zatarain urgazleak. Berriotxo Anaia, Lojendio'k eta Zukasti'k ezin etorria adierazi dute.

(1) Euskaltzainburuaren faltaz euskaltzain zaharrenak egiten du mahaipuru bere orde eta sekretarioarenean euskaltzain gazteenak.

Azken batzarreko agiria onartu da, eraskin, batekin: San Martin eta Zubikarai'ri Aita Akesolo, Erkiaga eta Gorostiaga'rekin mintzatzeko egotzi zitzaizen eginbidea aipatuaz, alegia.

Zadorlariak, bere ustez agiri orri dagokiolako, irakurri du jaso berria duen Donostia'ko C.A.T.-ko buruzagi ordearen eskutitza: bertsolari txapelketaren azken saioan bildu zen dirutik C.A.T.-ri eldu zaien partearen garbitasuna eskatzen du. Zadorlariaren iritziz, obe genduke pakebidea arkitu. Arrue'k, ilbetzeko batzarrean esandakoari dago-kala, ezer eman bearrik ez dagoela dio, ez zaielako ezer agindu eta Euskaltzaindiak berak egin dituelako lan guztiak, laguntzarik gabe. Alaz ere Euskaltzaindikoan iritzia bestelakoa balitz, ez dio erabakiari gogor egingo, bere iritzia argi ta garbi gelditzen bada. Bi lagun autatu dira, F. Artola eta zadorlaria, C.A.T.-koekin mintza ditezten, dotenaren arabera zer egin ditekian urrengo batzarrean agertzeko.

San Martin'ek, berak eta Zubikarai'k azken batzarreko erabakia beteaz Gorostiaga, Erkiaga eta Aita Akesolo'rekin mintzatu ondoan, oek esandakoa onela agertu dio Euskaltzaindiari:

1. Gorostiaga euskaltzainak, berari dagokionez, onako azalpen au nai du agirian ager dedin: Zenbait euskaltzainek agindu ziotela, duela bi urte, Irigoyen eta Uriarte jaunak, biak, euskaltzain egitea. Gero, Belokekok batzarren aurrekoan, Donostia'n bertan, biak baztertzea erabaki zala, bitartean sortu ziren istilluak zirela bide. Alaz ere, ordea, Beloken (bera aurrean ez zalarik, pasaportetik gabe zegoela ez baitzan beretzat joateko baimenik izan), bata izendatua izan zan eta bestea, ez. Ez da kontuak eskatzearren ari, gauzak dauden bezala uzteko prest baitago, erabakiak bere iritziz bear bezala artu ez zirela agertzearren baizik.

Orrezaz gaiñera, Gernika'n biltzea erabaki zan bein, Donostia'n bildu giñan batean, eta gero batzar-lekua aldatu, iñori aditzera eman gabe zergatik.

Zer dala-ta ez daki, baiña, orrela zebiltzanezkero gauzak, aspaldi ikusten zuela Euskaltzaindiaren interesak ez zetozela bat bere iritziekin.

Puntu oek azaldu nai ditu agirian, orrela adierazteko jokabiderik onenak, bere ustez, baztertu izan direla eta orrexegatik ez dela agertu, azken aldi onetan, Euskaltzaindiaren batzarretara.

Eta azalpen au agirian sartuko delakoan, Euskaltzaindiko guztiei adierazi nai die dauden bazala uzten dituela auziak, gertatuari amor emanaz. Borondate onez beteaz dago aurrerantzerako, batzar-erabakiak eta araudia ondo eramatekotan.

2. Iurion (Gorostiaga, Erkiaga eta Akesolo'ren) iritzian, bi urte onetan ez da araudia ondo bete, ez eta zenbait eskeintza ere.

3. Erkiaga gertu dago, San Martin'ek eta Zubikarai'k egin zioten gogor-aldia-gatik batipat, euskaltzain izateko; oraingoz, ordea, ezin ar dezake ezertariko kargurik.

4. Aita Akesolo'k naiago du, iñor ez geiago mintzearren, urgazle izan, eta ez euskaltzain oso. Prest dago, orratik, liburuzain izateko.

5. Erkiaga'k eta Akesolo'k eskatzen diote Euskaltzaindiari beren izendapen agiria, araudia beteaz, izkribuz bidal dakien.

Itz oek agirian agertzea ao batez erabaki da: esaera bat edo beste leundurik, emen dauden bezala, ordea, eta iru Euskaltzain orien baieztokorekin.

Larzabal'ek dio, eta guztiak bat datoz, aurki egin bear gendukeala Bilbao'n batzarren bat.

Bereala, deiak adierazi duen gaiari ekin zaio eta, iritziak bat ez zetozen ezkerre, izkutuko botoetara jo da. Galderak, bai ala ez erantzutekoak, bi izan dira: 1) Irigoyen autatu bear al da Euskaltzaindiaren bulego-buru? 2) Illeroko irabazia izango al du kargu orretan? Bi erantzunak baieztokak izan dira: bietan, zazpi lagun agertu dira alde, iru aurka eta boto zuri bat.



Orrezaz gaiñera, ao batez erabaki da Irigoyen'ek bear duela zenbait sari orain arte egin dituen lanen ordainetan. Sari ori zenbatekoa izango den eta aurrerantzeko lanen irabazia eta sariak zein izango diren Irigoyen'ekin tratatzeko iru laguneko batzordea auta bedi. Bertiz ere bozak izan dira eta izendatuak onako lagun oek: Aresti, San Martin (zazpifia boto) eta zadorlaria (sei). Bera aurrean ez zegoela izan da izketa eta artu dira Irigoyen'i zegozkion erabaki oek.

F. Yarza jaunak bidali dizkio Euskaltzaindiari, Donostia'ko Apezpikutegitik, argitara berriak diren euskerazko Epistola-Ebanjelioen lehen zatia eta Bataio-Azken. igurtziarekiko idazkiak emendik aurrera Liturjian erabil ditezten itzuliak. Euskaltzaindiaren eskerrak eta zorionak eman bekizkio, berari eta lan eder orretan ibilli diren guztiei.

Azkenik, gai oni beroni datxekola, Larzabal'ek aditzera ematen du Ibardin'go lepoan izan den euskal-eliz-barrutietako elizgizonen bilkura eta, orrezaz gaiñera, beste zenbait: Marie-Jean Minaberry'k eraman duen Heleta'ko teatro-sariketa eta Baiona'n asi berriak diren euskal-irakastaldiak. Haritschelhar'ek, berriz, Paris'en «Commission pour l'étude des langues régionales» deritzan elkargoarekin izan dituen ar-emanak. Irigoyen'ek, gero, aipatu ditu Bizkaï'ko gora-beherak liturjia berriari buruz, jakin dituen araura. Bere bidean omen dijoa dana.

*Euskaltzainburuordea*  
MANUEL LEKUONA

*Zadorlaria*  
LUIS MITXELENA

Donostia'n, Diputazioaren jauregian, 1965-III-26.

Bildu dira, Irigaray buru delarik, Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi, Aita Zavala eta Aita Villasante euskaltzaiñak; Aresti, Artola, Zatarain eta Zugasti urgazleak. Ezin etorria gaztigatu dute alde z aurretik Arrue, Lojendio eta San Martin euskaltzaiñak.

Azken batzarreko agiria irakurri da, baiña, garaiz zabaltzeko astirik izan ez den ezker, onartzea urrengo batzarrerako utzi da. Orri dagokala, bildu direnek, Aita Ake-solo'ren naia ikusirik, berak gogo duen bezala urgazle izan dedin, ez euskaltzain oso, erabaki dute. Liburu-zaintzarako, ordea, araudiak euskaltzain izatea bear dela dion ezker, azter bedi gai ori urrengoan.

Zadorlariak dio, agiri orri dagokala, mintzatu direla Donostia'ko C. A. T.-koekin bertsolari-txapelketaren azken-saioko diru kontuez, baiña ez dela oraindik eskabide zeatzik egin.

Gero, deiak dionaren arabera, zadorlari... ordezkotzaren irabaziaz mintzatu dira, Irigoyen'ek aldegin ondoren. Batzordeko diren San Martin eta zadorlariari irugarren lagunak, Aresti'k, egin dion eskutitza irakurri da. Erabakiak oek izan dira:

1. Illeroko irabazia bost mila pezeta izango du, urtean amalau illabete kontatzen direla. Beraz, guztira, 70.000 pezeta urtean.

2. Irabazi ori otsailletik aurrera artuko du, il ortako irabazia barrenean dela.

3. Bai Euskaltzaindiak bai zadorlari ordezkoak, bakoitzak bere aldetik, indarra ken dizaioke egiune oni, orrela baderitzate. Lau illabeteko epea finkatzen da orretarako, batak naiz besteak, egiune ori desegin edo aldatu nai balute, besteari alde z aurretik aditzera emateko.

Irigoyen'ek, urren, Gero-ren argitaraldi berriaren gora-beherak azaldu ditu, eta *Euskera* aldizkariarenak. Orain, zenbaki bakarra agertuko da, 1963-64 urteetakoa, bestetan agertu diren Euskaltzaindiko sarrera-itzaldiak sartu gabe; urrengoa, 1965-koa, osorik Toribio Etxebarria jaunak prestatu duen Eibar ko itzegia izango da.

Euskaltzaindiko berrien diplomak ere ekarri ditu, baiña ez bear diren guztiak, urgazleentzakoak bukatu egin baitira. Orretarako, berririk egin bear baldin bada, lhen bezalakoak bear duten izan ala aldatuak aipatu da. Berriz azter bedi gai ori datorren batzarrean.

Irigaray mintzatu da lehenbizi nai-ta-ez bear dugun buruzagiaz eta gero literatura berriaz, onek ekarri dituen ondorenez eta egin berriak diren itzulpenez. Satrustegi'k dionez, Nafarroa'n gauzak, zabarkeriaz, ez dira bide onetik abiatu: Euskaltzaindiak egin bear luke zerbait onezaz, bere ustez. Guztion iritiz, Nafarroa'ko euskaltzain-urgazleek ikusi bear dute zer eta nola egin ditekian eta, orretarako Euskaltzaindiaren izena erabil dezakete.

Zatarain'ek radioen araudi berriak, asko kenduaz, euskal-saioei egin dion eta egitera dioakion kaltea aipatu du.

Zadorlari ordezkioak, azkenik, aditzera eman ditu Lizardi-sariaren eta bertso-paperean sariaren gora-beherak. Onek, guztion iritiz, izen berezia bear luke eta «Xenpelar-saria» izendatzea erabaki da. Oñarriak orainarte bezelakoak izan bitez eta lanak bialtzeko epea aurtengo azaroaren 20-a, sari biak berdin.

Oi den otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

A. IRIGARAY

*Zadorlaria*

LUIS MITXELENA

Donostia'n bildu dira, 1965 IV-30-ean, Diputazio-jauregian, Arrue, Haritschelhar, Iharcé, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Lekuona, Mitxelena, Satrustegi eta Aita Zavalá euskaltzainiak, eta Arregi, Artetxe eta Santamaria laguntzailleak. Irigaray euskaltzainia izan da buru.

Azken bi batzarretako agiriak, otsaillekoa eta martxokoa, onartuak izan dira.

Izendapen-agiriez dio Irigoyen'ek, zaharrak litografian egiñik zeuden ezkerreko, erabat berriak egin bearko direla orain. Orretarako, bildurik daudenek erabaki dute: 1) agiri berrietan *rr* agertuko dela *r*-ren ordezkio, eta *j*, *y*-ren ordezkio; 2) antziñako *urgazle*, *deduzko* eta *zadorlari*-ren lekuan, *laguntzaille*, *oborezko* eta *idazlari* erabiliko direla aurrerantz, *lankide* lehen bezala utzirik. Urrengoan ikusiko da zein itz ipiñi bear diren, oriezaz gaitia.

Kerexeta apaiza eta Aita Baztarrika'ren eskutitzak irakurri dira, laguntzaille-izendapena dela-ta eskerrak emanaz.

Barcelona'ko Editorial Planeta-k euskerazko erri-izenen zerrenda bat nai luke. Erantzun bekio prestatzen ari gerala eta datorren batzarreko Irigaray'k eta Satrustegi'k bilduko dituzte Nafarroa'koak, Irigoyen'ek Bizkaia'koak, Mitxelenak Gipuzkoa'koak, eta Dassance'k Bidasoaz arunzkoak. Izketaldia izan da gero bilduma oriek egiteko iritzien gaitia.

Auñamendi argitaratzaileak egin duen eskea azaldu da. Erdal-euskal itzegi bat antolatzeke Euskaltzaindiak, eskuz, aspaldidanik egiña daukana aztertu nai duten ezkerreko, eman bekie baimena epe baterako, lehen Aita Muxika'ri eman zitzaion bezala, berak Bilbao'tik jaso ta itzultzekotan.

Aresti laguntzailleak Euskaltzaindikoaren artean zabaldu duen eskutitza irakurri da, batez ere Euskaltzaindiaren buruzagioaz. Ori dela-ta irakurri ere dira San Martin eta Aita Villasante'ren eskutitzak, ezin etorria agertuaz biak, beste iritziez gaitia. Villasante'k dio ez diola egoki irizten bere buruari buruzagiaren lekuan agertzeko.



Irigaray'k eskatu duenaren arabera, erabaki da, aurrenik, Lojendio'gana jotzea lhenbizi eta ari eskatzea, Euskaltzaindiaren onerako, buruzagitza ar dezan, epe jakin baterako, Barandiaran jauna euskaltzain egitea ere guztiok onartu dute, baiña orretarako berarekin mintzatu ondoren. Eta, Gipuzkoako apezpikuak eta apaizek egin dioten omenaldia dela bide, bidal bekizkio Euskaltzaindiaren zorionak.

Zadorlariak aipatu du San Martin'ek Euskaltzaindiari egin dion eskea aurtan irugarren aldiz egiten den P. Aldazabal'en oroikarriako. Or egingo den aurren euskal-sariketarako babesa eman bedi.

C. A. T.-koekin dugun auziaz, berriz ere aiekin mintzatzea erabaki da, ea konponentarik izan ditekian. Tratatu dutenaren berri emango dute batzordekoek datorren batzarrean.

Satrustegi'k, gero, Nafarroa'ko euskal-liturjiaren gora-beherak aipatu ditu. Lehen illun ikusten zituen gauzak, baiña bide onean doaz orain, Urmeneta jaunari eskerrak, batez ere. Elizan eta elizatik kanpo (*Diario de Navarra* ere mintzatu da gai onezaz) ahalik bizkorren jokatzeko asmoetan dira. Berri oek biziho pozgarri izan dira bildurik daudenentzat.

Iratzeder'ek Euskaltzaindiari, esku-erakutsizat, Belloc-eko Beneditanok argitara dituzten liturji-lanak ekarri dizkio. Eskerrak eta zorionak ematen zaizkio.

Irigaray-k asi du izketa euskal-liturjiak gure izkuntzarentzat duen ondore larriaz.

Irigoyen'ek gaztigatu du bukatu dela Xenpelar-sariko bertso paperentzat luzatu zen epea. Bidali dituzten bertsoak aztertuko dituzte, sariak emateko, onako Euskaltzaindiko oek: Artola, Arrue, Irigoyen, J. M. Lekuona, San Martín, Satrustegi eta Aita Zavalak.

Irigoyen'ek Bilbao'n, urteoro bezala, egingo den aur-sariketaren berri eman du. Egin bedi bestetan bezala.

Labayen'ek, azkenik, Euskaltzaindiaren diru-laguntza eskatu du Orixe euskaltzain zenaren illobi berrirako. Ontzat artu da ao batez laguntzea. Labayen'ek berak esan beza zenbatekoa bear litzakean, bere ustez.

Oi diren otoitzekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

A. IRIGARAY

*Zadorlaria*

LUIS MITXELENA

Donostian, Diputaziñoan, 1965 maiatzaren 28-an.

Bildu dira: Dassance, buru, Mitxelena, Lafitite, Labayen, Villasante, Satrustegi, Larzabal, San Martín, Haritschelhar, Irigaray, Zavala eta Irigoyen euskaltzainak, Etxaniz, Arregi, Artola, Lekuona, Mujika eta Zatarain laguntzailleak.

Lojendio, Arrue, Lekuona, Aresti eta Zubikaray-k ezin etorria adierazo dabe.

Arrue-k jakinerazo dau gaifera Asteasu-tik eskabide bat artuko dala Pello Errota bertsolaria zanari egin gura jakon omenaldirako laguntasuna emon daigun. Ontzat artu bedi datorrenean.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da. Gauza bat dago falta dana Piarres Larzabal be egon zala batzarrean. Orain agiri onetan ipiñita zuzenduta gelditzen da.

Marino Urrutia eta Lopez de Gereñu jaunak eskerrak bialdu dituez egin jakiezan izendapenakaitik.

Jose Migel Barandiaran-ek gureari erantzunaz zuzendu dauen karteak irakurri da. Eskerrak berak emon bear deuskuzala guri.

Azpeiti-ko Oargi-koak karta bat zuzendu deuskue. Jai batzuk egin nai dituez euren errian Karmelo Etxegaray zanaren omenez, aurtan eun urte diralako jaio zala. Uztailaren 8-an asi eta 11-an amaitu gura dira Euskaltzaindiak be parte arturik. Laguntasun ori eskatzen deuskue. Ontzat artzen da.

Labayen-ek diño Orixe zanaren illobi barrirako Euskaltzaindiak bost milla pesetaz lagundu leikeala. Emon bediz.

Idazlariak, Lekeitio-n igaz sortu zan Azkue euskal katedrea dala-ta izan diran gora berak aitatu ditu. Bizkaiko gobernadoreak multa bat ipiñi eutsan irakasten ari zan maistrearari eta itxi egin zan. Eta zelan Euskaltzaindiak be Lekeitio-ko Ayuntamentuak eskatuta parte artu eban sortu zanean Bizkaiko gobernadoreari erregutu deuta ipiñi dauen kastigua kentzeko. Eta kendu egin dau informaziñoaren faltaz ipiñi ebalu adierazorik.

Xenpelar sarien erabagia artu dabe juradurako izendatu ziranak: Lenengo saria, bi milla peseta, Jose Maria Lertxundi «Argiñ». Bigarrena, milla ta bosteun, Jesus Lete «Ibaiertz». Irugarrena, milla, Joxe Mari Ertzilla «Xabaroa». Eta laugarrena, bosteun, Sebastian Salaberria.

Urteroko Euskalzaleen Biltzarra egiteaz berba egin da. Idazlariak diño teatrozale batzuk gura leukiela teatroa gaitzat artuta egitea aurtan. Ontzat artu da eta prestakizunak zelan moldatu tratatu daien batzorde bat izendatu da: Larzabal, Labayen, Aresti, Zubikaray, Beobide, Zapiain eta Barriola medikua.

Idazlariak diño egon dirala C. A. T.-koakaz eta egin dituezan barriketen ostean tratatu onetara eldu dirala: ogei milla peseta emotera. Euskaltzaindiak ontzat artzen dau eta emon bekiez pesetok.

Diplomea zelan izan leitekean dibuju bat erakutsi da. San Martin eta Haritschelhar-ek esan dabe egokiagoa izango litzakeala euskal-arte zarretik gaiak artuta egitea.

Valverde-ri esan bekio ia zerbait egingo leuskigun. Textoa au izan badi: «Ekin eta jarrai. Euskaltzaindiak... euskeraren alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen pizkarri, lankidetzat (edo laguntzailletzat edo ohorezketzat) artu du. Bilbon... Idazlaria. Euskaltzainburua».

Dassance-ek Bidasoaz gorantz eusketaz erri izenak zelan diran lan bat ekarri dau. Irigoyen-ek Bizkaian egin dituan galderen erantzunak erakutsi ditu. Gipuzkoako eta Nafarroakoek be berba egin da. Datorren batzarrean al bada osotu bedi falta dana.

«Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais»-ekoak Euskaltzaindia gomitatzen dabe San Juan bezperan urtero Azkoiti-n egiten daben batzarrerara. Irigoyen joan bedi.

Pello Mari Otaño-n omenez Zizurkillen, maiatzaren 9-an, jaia egin zan eta oso ondo egiña izan zan. Eskerrak emon bekiez prestatzailleai.

Irigoyen-ek diño Bizkaian aurreko urteetan bertsolarien txapelketak egin izan diran tokietan saio batzuk egin leitekezala aurtan Bizkaiko Aharro Kaxeari betiko laguntasuna eskatuta, Urkiola-n San Antonio egunean astekotan. Egin bediz.

Oi dan otoitzagaz asi eta amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlaria*

LUIS MITXELENA

Donostian, Diputazioan, 1965-VI-25.

Bildu dira: Dassance, buru, Lafitte, Labayen, Zavala, Satrustegi, Larzabal, Haritschelhar, Arrue, Irigaray eta Irigoyen euskaltzainak. Eta Artola, Zubikaray, Etxaniz, Baztarrika eta Zatarain laguntzailleak.

J. M. Barandiaran eta Aita Villasante-k ezin etorria adierazo dabe.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Antonio Ibañez Morales jaunak zuzendutako karta bat irakurri da *Aitana* itzaz.

Bizkaiko Ahorro Kaxa-k amairu milla peseta emon deuskuz Bizkaian aurten egin-go diran bertsolarien saioetarako. Gaiñera beste amar milla peseta. Bilboko Ahorro Kaxa Munizipalak bost milla peseta. Eskerrak emon bekiez.

San Antonio egunean Urkiola-n egin da bertsolari saio bat.

Egin dira Bizkaiko neska mutilen esamiñak.

Asteasu-ko Ayuntamentuak zuzendu deuskun ofizio bat irakurri da. Euskaltzaindiaren eretxia eta laguntasuna eskatzen dabez Pello Errota-ren omenezko jaietarako. Erantzun bekie prest gagozala.

Jose Mari Arzalluz jaunak zuzendu dauen kartu bat irakurri da. Iraillean Umeen bigarren euskal-jaiak egin gura dabe Zarautzen eta Euskaltzaindiaren babesa eta laguntza eskatzen dabe. Emon bekie.

Azpeitiko Ayuntamentuak zuzendu deuskun ofizioa irakurri da. Karmelo Etxegaray zanaren omenez egin gura dituezan jaiak aipatzen dituez eta garaia datorrenean laguntasuna eskatuko leuskuela programea egin baiño leen.

Idazlari ordeak diño Lekeitioko Ayuntamentutik itzez eskatu deuskuela Azkue-ren omenez ipiñi zituzcan sariketen juraduan parte artzeko ordezkari bat izendatu daigun. Aita Luis Villasante izan bedi.

Agora novela sariketarako eskatu deuskuen juradua izendatu da: Lojendio, Mitxelena, Arrue, Irigaray, San Martin eta Loidi.

Larzabal-ek diño urriko batzarra Bayona-n egin leitekeala. Egin bedi.

Satrustegi-k lantxo bat irakurri dau Zubigar-en iztegi laburrari oar batzuk egiñik.

Berbaldi bat egin da. Zatarain eskolaz aritu da eta Irigoyen-ek aipatu ditu Azkoitin «Amigos del País»-ek prestatu eban eguneko gora berak.

Oi don otoitzagaz asi ta amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostia'n, Diputazio-jauregian, 1965-VII-30-ean, bildu dira: Dassance, buru, Eppherre, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lekuona, Lojendio, Mitxelena, San Martin eta Satrustegi euskaltzainak; Arregi, Barandiaran, Etxaniz eta Zatarain laguntzailleak. Arrue'k eta Labayen'ek ezin etorria agertu dute.

Ontzat artu da azken batzarreko agiria, irakurri ondoan.

Asteasu'ko euskal-jaien berria Arrue'k bidali du. Orobat, ortarako izendatu zirenak adierazi dute Donostia'ko Agora-saria, euskal-eleberrientzat, Zubikarai'k eraman zuela, bigarren —diru-saririk gabe— Estanislao Urruzola gelditzen zelarik.

Bilbao'ko 5-garren Epaitegitik etorri den eskea irakurri da, Euskaltzaindiak bi lagunen izenak eman ditzan euskeraz idatzitako zerbait itzul dezaten. Ezezkoan erantzun bekio, Euskaltzaindiaren eginbidea ez den ezkerro.

Zarauz'ko aur-sariketarako, iru laguneko batzordea autatu da: Artetxe, Eizmendi eta Zatarain laguntzaileak, J. Etxaide ordeko gelditzen dela, utsik baldin balitz. Euskaltzaindiak berak zabal bitza sariketarako deiak.

San Martin'ek aipatu ditu J. Azpeitia andreak, Euskaltzaindiaren eskez, egin duen aurrentzako liburuaren gora beherak. San Martin'ek berak ikus beza zein izan ditekian ori argitaratzeko biderik erosoena. Lan ori ikusteko, argitara baiño lehen, Lekuona, San Martin eta Aita Villasante euskaltzainiak izendatu dira.

Erkiaga euskaltzainaren eskutitza irakurri da: Bizkaian, aurtengo maiatzean, dio, «Escuelas Nacionales de Barriada» direlako eskoletarako irakasleak aukeratzeko egin dan deian, ez zaio oi bezala, euskeraz jakiteari ematen zitzaion baliorik aitortzen. Eska bekio, beraz, Diputazio-buruari ez dakion aurrerantzean erriko izkuntzari begiramen ori uka. Idatz bekio, gainera, Merino Urrutia jaunari «Junta de Cultura de Vizcaya»-k bere aldetik lagun dezan.

Aurtengo «Toribio Alzaga» teatro sarirako, adierazi du Irigoyen'ek, zortzi lan agertu dira. Nori eman bear zaion erabakitzeke, Aresti, Labayen eta Zubikarai izan dira izendatuak.

Datorren illaren 23-25 inguruan izango den aurtengo Euskaltzaleen biltzarra dela-ta, Larzabal'ek azaldu ditu azkeneko batzar-ondoren bildu ziren batzordekoen asmoak: iru itzaldi izango dira Donostia'n, iru egunotan, euskal-teatro zahar eta berriaz, erakusgarri bezala bitarteetan antzerki-zatiak aurkeztzen direlarik. Asmo oriek zeatz finkaturik gelditu bear dute datorren batzarreko, bear diren baimenak eska ditzagun.

Mungia'n egin den bertsolari-saioaz mintzatu da Irigoyen, datorren illean Bilbao'n izango dana aipatuaz.

Satrustegi'k, berriz, Nafarroa'n euskeraren alde darabiltzaten lanen berri adierazi du, batez ere orain Erronkari'n egin bear duten ikertaldiaz.

Irigaray, Lafitte, Mitxelena eta San Martin euskaltzainek eskatu dute J. M. Barandiaran jauna euskaltzain oso egin dedin.

Oi den otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlarria*

LUIS MITXELENA

Donostia'n, Diputazio-jauregian, 1965-VIII-27-an, bildu dira: Eppherre, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Lekuona, Lojendio, Mitxelena eta Aita Zavala euskaltzainak; Arregi, Artetxe, Etxaniz, Loidi eta Zatarain laguntzaileak. Arrue'k, San Martin'ek eta Aita Villasante'k ezin etorria adierazi dute.

Irakurri ondoan, ontzat artu da azken batzarreko agiria.

Azken batzarrean aurkeztua izan zen Jose Migel Barandiaran jauna euskaltzain oso izendatu da, ao batez.

Datorren batzarrean autatu bear diren laguntzaileen izenak aurkeztu dituzte bildu direnek.

Labayen'ek eta Larzabal'ek adierazi dute zer asmo duen batzordeak datorren illean, euskal-teatroari buruz, egin nai den Euskaltzaleen Biltzarrerako. Ontzat artu dira beren esanak eta bear diren baimenak eskatzeko eginbidea idazlariari egotzi zaio.

Zarautz-en «Coca-cola»-ren diru-laguntzarekin eratu den aur sariketaren berri emàn du Zatarain'ek, bera, Eizmendi eta Etxaide izan baitira maieko.

Arrue'ren izenean, zadorlariak adierazi du bertsolari-saillekoek artu duten asmoa. azken txapelketan ibilli ziren bertsolari guztiei *Auspoa*-ko liburuak ematekoa; alegia, Euskaltzaindiaren bizkar, orrela gaiñera euskal-liburu-sail bikain oni laguntzekotan. *Auspoa*-koek bana bitzate liburuak, Euskaltzaindiak ordaintzen dituelarik.

Bilbao'n egin berria den bertsolari sariketaz mintzatu da Irigoyen. Haritsche-lhar'ek, berriz, azaldu ditu Miarritze'tik aurtengo udan egin diren irati-saioak eta, batez ere, «Euskaltzainak erakasle» deritzan saila: or mintzatu dira, euskal-idazleez, Dassance, Eppherre, Haritschelhar, Iratzeder, Lafitte, eta Larzabal euskaltzaiñak, Orrezaz gaiñera, Parisen izan diren gora-beherak aipatu ditu gurea, beste izkuntzen artean, irakaskuntzan erabil dedin.

Merino Urrutia jaunak bidali duen eskutitza irakurri da. Zadorlariari erantzunaz eginahalak egingo dituztela dio, bai berak eta bai *Junta de Cultura*-koek, berriz ere Bizka'i'ko eskoletarako euskeraz jakitea merezigarri izan dedin.

Tournier jauna zenaren oroitzapenetan mintzatu da Irigaray, aren euskal-lanak adieraziaz, Euskaltzaindiak bere dolumina ager dezan eskatuaz aren eriotzea dela eta. Orrela egin bedi.

Oi den otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

A. IRIGARAY

*Idazlaria*

LUIS MITXELENA

Donostia'n, Diputazio-jauregian, 1965-IX-24-ean, bildu dira: Arrue, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lekuona, Mitxelena, San Martín eta Satrustegi euskaltzaiñak; Eizmendi, Kerexeta, Zubikarai eta Zugasti laguntzailleak. Ezin etorria gaztigatu du Lojendio euskaltzaiñak.

Azken Batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu.

Teatro-gaiaz, Euskaltzaindiak eraturikako Euskaltzaleen Biltzar bezala, egiten ari diren itzaldiak aipatu dira, bart izan baitzen lehena, Eppherre euskaltzaiñarena, Zuberoa'ko pastorelez. Eskerrak eman bekizkio eta zorionak ere bai, ain atsegin izan zitzaizen ezkerro entzule guztiei.

Bizka'i'ko Diputazio-buruarena irakurri da Euskaltzaindiak egin zion eskabideari baietz esanaz. Irakasle euskaldunak, beraz, onerako izango dute, lehen bezala, euskeraz jakitea. Erantzun bekio eskerrak emanaz.

Jesus'en Konpainiako Aita P. Muxika'k Euskaltzaindiari eskeiñi dio oraindik zabaldu gabe dagoen bere *Diccionario Vasco-Español* deritzan iztegi ederraren ale bat. Eskerrak eta zorionak eman bekizkio, egin duen lan ederragatik.

Beste bi eskutitz artu dira Bilbao'ko 5-garren Epaitegitik: Bilbao'ko juezbarrutian bizi diren euskaltzaiñen izen-zuzenbideak eskatzen dituzte. Orrela egin bedi, euskaltzain oriek jakiniaren gaiñean jarriaz.



Toribio Alzaga teatro-saria dela-ta «Epai-maia'koak ao batez erabaki dute saria «Laratzean sua» iru ekitaldi dituan Teatro lanari ematea, besteak baño obegotzat jotzen dutelako. Egillea: Carrasquedo Olarra jauna da. Orobat erabaki dute aipamen berezia merezi dutela beste iru antzerki-lan auxek: 1.º «Nor errudun?», Xabier Gereño jaunarena. 2.º, «Brokel jauna», J. Antonio Arkotxa jaunarena. 3.º, «Biotzaren neurria», Pedro Sarriegi jaunarena. Donostia'n, 1965 Agorraren 24'n. Antonio M.ª Labayen, Agustín Zubikarai, Gabriel Aresti.» Ala jakinerazi bekio Bizkaiko Ahorro Kaxari.

Laguntzaille izendatu dira aurkeztuak zeuden lagun oek: Franzisko Altuna, S. I., J. Antonio Arkotxa, Jose Azurmendi, O. F. M., Iñaki Barriola, Juan Jose Beloki, Iñaki Beobide, Antonio Bilbao, Aita Felix Bilbao, Jean Curutchet, Jean Louis Davant, Jean-Baptiste Dirassar, Pierre Duhour, Aita Emiliano karmeldarra, Jesus Elozegi, Jacques Etcheverry, Toribio Etxebarría, Karmelo Etxenagusia (Derio'ko irakaslea), Juan Garmendia (Zeleta), Salbador Garmendia, Xabier Gereño, Anjel Goenaga, S. I., Iñazio Goikoetxea (Gaztelu), Juan Goikoetxea, S. I., Juan Goikoetxea (Arbizu'ko apaiza), Mikel Lasa, Aita Luis M.ª Mujika, Jose Olaizola, Jesús M.ª Oleaga, Josu Oregi, Gabriel Zapiain, Manuel Ziarsolo, eta Rudolf de Rijk.

Aurrerantzean, laguntzailleak, izenak abuztuko batzarrean aurkeztu ondoren, urte-buruan autatuko dira. Datorren urtekoak izendatu baño lehen, gaiñera, finkaturik utziko da ea zenbat autatu bear diren.

Mitxelena'k esan du, lanpeturik dagoelako eta batez ere oraingoz Euskalerritik kanpora joan bearko duelako, idazkaritza utzi bearrean aurkitzen dela, il onetako batzarreko gauzak egin ondoren.

Arrue'k aditzera eman du, Suezia'n egon denean, Euskaltzaindiaren agurra bidali diola Nils M. Holmer euskalariari, berarekin egoterik izan ez badu ere.

Oi den otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

A. IRIGARAY

*Idazlaría*

LUIS MITXELENA

Donostian, Diputazioan, 1965-X-29.

Bildu dira: Lekuona, buru, Lafitte, Villasante, Satrustegi, Haritschelbar, Larzabal, San Martín, Barandiaran, Irigaray, Arrue ta Irigoyen euskaltzainiak. Artola ta Zatarain laguntzailleak.

Eppherre, Dassance ta Labayen-ek ezin etorria adierazi dute.

Aurreko batzarreko agiria irakurri eta ontzat artu da.

Arrue-k asiera emanik Euskaltzaindiak bere poza agertzen du Barandiaran jauna gure artean ikustean.

Donostiko C. A. T.-ren karta irakurri da. Zorionak ematen dizkigute urtearen buruan egindako lanagatik eta batez ere oraintsu Donostian, teatroa gaitzat artuta, antolatu diran itzaldiak.

Eskerrak eman bekizkio Donostiako Ayuntamentuko «Comisión de Cultura»-ri, Rufino Mendiola jauna ere aipatuaz, gorago esan diran itzaldiak antolatzeke artu cegun laguntasunagatik.

Bera aurrean badago ere Barandiaran-en karta irakurri da eta bertan eskerrak ematen ditu izendapenagatik.

Arruza-k bialduta, Tovar-ek bere karta idigiari egin dion erantzunaren kopia bat irakurri da.

«Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango» urriaren 30 eta azaroaren 1 eta 2-rako euskal liburu ta diskoen lendariziko azoka prestatzen ari da Durango-n eta Euskaltzaindiari ere eskatu dio bere liburuak eraman ditzan salgai jartzeko. Ala egin bedi.

Bizkaiko Ahorro Kaxa-k urriaren 30-ean emango du teatro saria Bilbon. Programa bialdu digu gomituaz.

Lekuona-k dio Orixe-z liburu bat laster ateratzeko dala eta Euskaltzaindiaren ardurapean egitea nai litzakeala. Ala egin bedi.

Badio ere datorren ilbeltzean dirala berreun urte Larramendi il zala. Egoki litzake zerbait egingo balitz bere omenez.

Lafitte-k esan du datorren illeko batzarrea Bayona-n, Musée Basque-n, egin genezakeala zenbait itzaldi prestatuaz. Zaztasunak ere aipatu dira. Egin bedi.

Haritschelhar-ek zenbait gauza ekarri ditu entzuleen gogora Frantziako batxilerrato ta estudio nagusien erreforma ta euskera dirala-ta. Atseginiez beterik entzun dira ekarri dituen berri pozgarriak eta datorren illeko batzarrean egingo duen itzal-diaren gaia ain zuzen ere orixe izango da. Gaiñera itz egingo dute: Lafitte-k jakitatezko liburuez eta Satrustegi-k «Euskaltzaindia zer den. Zer espero dan laguntzailleengandik» gaiaz.

San Martin-ek dio Altube-ren zenbait liburu argitaratzea nola asko komeni dan gauza dan. Esaterako «La Vida del Euskera» ta «Enderismos». Batzarrean daudenak ere iritzi berekoak dira. Nola argitaratu arakatu bedi. Badio ere nola euskal autore zaharren antolojia on baten faltan gauden eta ortan zerbait egin bear litzakeala. Bizkaiko bat Karmelo Etxenagusia jauna prestatzen ari da eta besteetakoa ere egin bear litzake. Estudiatu bedi nola aurrera eraman ain bearrezkoa dan asmo au.

Barandiaran-i galdetu zaio Iruñeko Universidadean euskal gaietan zer egiten dan eta ortaz aritu da. Eskerrak eta zorionak eman bekioz ain lan bikainagatik. Oi den otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburordea*  
MANUEL LEKUONA

*Idazlariordea*  
ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, Diputazioan, 1965-XII-31-an.

Bildu dira: Dassance, buru, Lafitte, Eppherre, Lekuona, Villasante, Satrustegi, Irigaray, Larzabal, Arrue, San Martín eta Irigoyen euskaltzainak. Etxaniz, Aita Emiliano Barandiaran, Anai Berriotxoa, Altuna, Lasa, Arregi, Elosegui, Artetxe, Santamaria, Zatarain eta Olaizola laguntzailleak.

Ezin etorria adierazi dute Barandiaran, Lojendio, Mitxelena eta Oleaga-k.

Dassance-k itz batzuk egin ditu asteko.

Urriko agiria irakurri da eta ontzat artu da. Azaroan batzarrea agirian egin zan Bayona-ko Museon.



Salbatore Mitxelena laguntzaillea, idazle ta poeta ospetsua il da. Agertu bekio gure sentimentua frantziskotarren Aita Probintzial Donostian dagoenari.

Luix M. Mijika eta Iñaki Barriola-k bialdutako kartak artu dira eta ontzat artzen dute bakoitzari egin zaion izendapena.

Gipuzkoako Diputazioko ofizio bat irakurri da aurtengo bost milla pezetak kobratu genitzakeala adierazirik. Kobratu dira.

«Euskaltzaleak» alkartadeak Buenos Aires-tik bialdu digun karta bat irakurri da. Zorionak ematen dizkigute, euskera jakiteak bere balioa duelako, Euskaltzaindiak bultzatuta, Bizkaiko auzo eskoletan irakatsi bear dutenen artean, eta, adorea emanik, beste eskola batzuetan ere lortzeaz ari zaizkigu.

Lizardi sarira poesia lanak agertu dira eta juradua izendatu da: Lekuona, Lafitte, San Martin, Etzaniz eta Lasa.

Xenpelar sarira ere etorri dira bertso papalak. Baiña zenbait gauza argitaratu dira aldizkarietan eta oriek ere ontzat artu bear lirakeala esan da. Argitaratu dituztenak parte artu nai baldin badute biltzeko epea ilbeltzaren azkenerarte luzatu da. Juradua izendatu da: Satrustegi, Aita Zavala, Basarri, Bordari, Irigoyen, San Martin, Juan Mari Lekuona eta Arrue.

Irigoyen-ek adierazi du Bilboko Ayala Teatroan, ilbeltzaren 2-an, Xalbador Garmendia-ren «Historia triste bat», Ondarroako Lora Jokoetan saritu zan obra, eman-go dutela «Jarrai» taldekoak. Ilbeltzaren 5-ean, euskal esamiñak egin zituzten aurren artean, sariak partituko dira Indautxuko Jesuiten Kolejioan.

Oñati-ko Ayuntamentuak egin digun ofizio bat irakurri da eta eskatzen digu esateko ia ondo jarriak dauden kale ta plaza izen mordo bat euskeraz. Izen guztiak eztira irakurri. Deituren ondoan jartzen dan tar ortaz batzuek kontrako iritzia agertu dute. Satrustegi-k zion izen auetan jarri bear lirakeala, ahal dala eztabaidako puntuetatik iges eginda, edozein joeratakoak ontzat artuko lituzkean formak.

Azkenez Mitxelena-ren eskuetan uztea erabaki da bere iritziaren arabera zer-bait presta dezan.

Arrue-k adierazi du egoki izango litzakeala Donostiako Legegizonen Kolejioko Buruari eskatzea interprete bat izenda dezaten erderaz eztakiten edo ondo eztakiten euskaldunentzat, testigantza ematen dutenean edo auzitan dabiltzanean balia ditezten. Ala egin bedi. Egokia izango litzake Nafarroan eta Bizkaian ere beste ainbeste egitea, baiña oraingo, berri zeatzagorik eztegun arte, ezta egingo.

Auspoa liburutegiaren izenean Aita Zavala-k karta bat bialdu du laguntasuna eskatzen duela liburu sorta orren argitaratzea atzean gelditi eztedin. Laguntasun au suskizio batzuk geiago egiñaz edo liburu batzuk erosiaz izan liteke. Datorren batzarrean erabaki bedi.

Azpeitiko alkateak agur bat bialdu du Karmelo Echeagaray-ren omenez abendua-ren 26-an erri artan egin diran jaietara gomitatz.

Donostiako «Delegación Provincial del Ministerio de Información y Turismo»-tik igaz Gipuzkoan euskeraz argitaratu diran liburuen lista bat eskatzen digute. Bialdu bekie dakigunaren berri.

Elosegi jauna euskal toponimiaz aritu da. Alkartuta lan egitea komeni litzake. Otarako egoki iruditu zaie batzarrekoai batzorde bat izendatzea. Elosegi berak eta San Martin-ek presta bezate zer egin litekean urrengo batzarrerako.

Euskal autore klasikoen antolojia bat argitaratzeaz izan da gero berriketa. San Martin-ek zenbait gauza esan ditu ontaz eta solasaldi luze baten ondoren batzorde bat izendatu da osa dezan aipatu dan lana. Au da: San Martin, buru, Villasante, Lafitte, Eppherre, Irigaray, Arrue, Altuna eta Etxenagusia.

San Martin-ek dionez berriz argitaratzeko bidean omen daude Sebero Altube-ren «La vida del Euskera» eta «Erderismos». Esan da nola azkenengo au Altube-k puntu batzuetan aldatzeko gogoaz zuen, bizi zanean adierazi zuenez. Baiña nola ezer etzuen utzi eginik —orrela uste da beintzat— dagoen moduan argitaratu bearko da itzaurrean adieraziaz bere gogo ori.

Julene Azpeitia-k aurrentzat egindako liburua galdurik omen dabil.

Oi dan otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, Diputazioan, 1966 ilbeltzaren 28-an.

Bildu dira: Dassance, buru, San Martin, Lafitte, Irigaray, Lekuona, Villasante, Zavala, Satrustegi, Haritschelhar, Larzabal, Arrue eta Irigoyen euskaltzainak. Etxaniz, Aita Emiliano Barandiaran, Arregi, Oregi, Olaizola, Lasa, Zatarain, Oleaga, Zugasti, Basterretxea, Aita Juan Goikoetxea jesuita, Altuna, Goenaga, Garmendia eta Barriola laguntzailak.

Barandiaran, Labayen, Lojendio eta Anai Berriotxoak ezin etorria adierazi dute.

Dassance-ren itzakian asi da batzarrea.

Joan dan batzarreko agiria irakurri eta ontzat artu da.

Gipuzkosko Diputazioaren ofizioak irakurri dira. Erosi zituzten *Gero* aleen dirua, ogetabost milla pezeta, kobratu da.

«Sociedad Bilbaina»-ko Bibliotekatik karta bat artu da, oraintsu argitaratu berri dan liburu bat, «Catálogo de la Sección Vascongada», ere batera datorrela. Eskerrak eman bekizkie.

Agustin Zubikaray-ren karta bat irakurri da. Gabon inguruan Bilbon egin dan azken jaia dala-ta dio aurrerantzean obe izango litzakeala aurrak ere ikus ditzatekenak prestatzea, bestelakoak beste egun batzuetarako utzirik.

Bilbon, aipatu dan jai ortaz gainera, euskal esamienetan parte artu zuten aurrak sari partitza egin zitzairen Jesuiten kolejoan Errege egun bezperan.

Rudolf P. G. de Rijk-ek idatzi digu eskerrak emanik egin diogun izendapenagatik.

Xabier Gereño-k idatzi du eta bide batez Bilboko «Radio Popular»-ean irakurriko duten giori bat bialtzen du. Dio nola eskatzen duten Euskaltzaindia indartu bear litzakeala eta beragandik artu nola idatzi ta itz egin jakiteko legeak, guztiak bete ditzaten. Irigaray-k dio Iruñean ere esan diotela berari eta plan bat egin bear litzakeala. Oraingoz, autore zaharren antolojia prestatzen ari diranak ekarri lezakete zer bait ortaz.

Batzordeak nola izan bear duten osatuak aipatu da, arautegia berritzeko idatzi ziran oinarriak kontuan izanik.

Anai Berriotxoak karta baten eskatzen du eskoletarako liburuen saila sortzea. Santamaria ta Zatarain jaunei eskatzen zaie datorren batzarrerako nola osatu litekean batzorde bat beren iritziz aurkeztatu dezaten.

Bertsolari txapelketa batzorderako izendatu dira: Arrue, Zavala, Satrustegi, San Martin, Irigoyen, Artola, Diez de Ulzurrun, Zatarain eta Andrinua.

San Martin, Arregi eta Lasa-k firmatuta eskabide bat artu da euskaldunen alfabetizazio kanpaina bat egiteko. Lojendio, Mitxelena ta Erkiaga-k aldeko iritzia bialdu dute. Batzorderako San Martin, Aita Altuna, Lasa, Arregi ta Beobide izendatu dira.

Gernika-ko Ayuntamentuak eskatzen digu —erria sortu zaneke seigarren eunurteurrena aurtten dala-ta— bertan egin dezagun Euskalerriko bertsolarien azken txapelketa nagusia. Erantzun bekie ontzat artzen degula eta bertsolari txapelketa batzordearen ardurapean uzten dala.

Zatarain-ek dio Euskaltzaindiak Donostiako apezpiku jaunari eskatu bear liokeala Katedralean kanonigoak kapitulu mezan euskera ere ontzat ar dezaten. Ala egin bedi.

Mitxelena-k Oñati-ko kale izenez prestatu duena irakurri da eta izenik izen artu da erabakia.

Euskaltzaindiak Irigaray jaunaren eskea oartu zuen. Hau da: «Euskal Akademiaren lan-gai propioak, eskualdeka, partitzeko eta bai bateratzeko (koordinatzeko), jadanik abiatuak (Antolojiak eta Eskoletako liburuxkak), eta bai egiteko direnak (Iztegiak, Gramatika, Onomastika, et.) herrialde bakoitzean Eragille bat izendatu zen. Gipuzkoarako, J. Antonio Loidi, Bizkaitarako, Jesus Oleaga, Nafarroako, Peru D. Ulzurrun jaunak. Laphurdi-aldeko Eragillea, hango euskalzain diran Dassance, Haritxelar, Lafitte eta Larzabal jaunek izendatuko dute. Izendapen horiek urte batendako egiten dira; hau da, 1966 urteko Abenduan berritzeko, edo ta aldatzeko hala behar ezkeroz».

Irigoyen-ek dio Bilbon erregutu diotela Euskaltzaindiak egin bear lukeala eskabidea bere izenean legearen azpian eskola bat, zortzi urte arterako aurrentzat, euskeraz ta erderaz, zabaltzeko. Badago prest ortarako Elcano kaleko seian, lenengo bizitza ezkeraldean, etxe bat. Dio eman dituela urrats batzuk ia Euskaltzaindiari emango liotekeen baimenik jakiteko eta posibilitadea ikusi duela, ahal dala Diputazioaren laguntzaz. Batzuk uste dute Euskaltzaindiak ezlukeala alako eskabiderik egin bear. Baiña Euskaltzaindiak egiten eza du bestek ezta Bilbon zabaldu ahal izango. Botoetara jarri da eta onela atera da: zortzik bai, lau zuri.

Oi dan otoiwarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, Diputazioan, 1966 otsaillaren 25-ean.

Bildu dira: Pierre Lafitte, buru, Arrue, Labayen, San Martin, Haritschelhar, Larzabal, Satrustegi, Lojendio, Irigaray eta Irigoyen euskaltzainiak. Oregi, Goenaga, Oleaga, Lasa, Olaizola, Goikoetxea jesuita, Zubikaray, Juan Garmendia, Elozegi, Barandiaran karmelita, Etxaniz, Loidi, Altuna, Artola laguntzailleak.

Barandiaran-ek ezin etorria adierazi du.

Aurreko agiria irakurri da ontzat arturik.

Lafitte mintzatu da eta dio Bidasoaz gorako eragille bezala Jean Baptiste Dirassar artu litekeala. Dio, gaiñera, alderdi artako laguntzaille guztiai orri bat bialduko zaiela zenbait galdera egiñik jakiteko nork zer egin dezakean. Irakurri egin du eta guztia ontzat artu da. Bidasoaz beherean ere egin behar litzakeala aipatu da. San Martin-ek esan du berak fitxa asko dauzkala egiñak eta Euskaltzaindiaren esku uzten dituela.

Andoain-go alkateak agur bat bialdu digu eta Larramendi-ren bigarren eunurte-burua ospatzeko otsaillaren 6- ean antolatu duten itzaldira gomitatzen gaituzte.

Gernika sortu zala seigarren mendea ospatzeko aurtten zenbait jai egingo dira. Ayuntamentua prest dago 63.500 pezeta saritan emateko ipuin eta ensayo sariketak euskeraz jarri ditzagun. Bilboko «Radio Popular»-ek ere laguntasuna eskeintzen du. Oñiarri batzuk irakurri eta ontzat artu dira. Zabaldutik bidez. Gaiñera, bide batez, eskatu bekio Ayuntamentuari, gogoia erakutsi baitu, euskaldunen alfabetizazio kanpaina bat egin dezan Gernika-n, ortarako nahi duen laguntasun guztia eskeiñirik.

Toponimia kontua atera danean Elozegi-k esan du oraindik denbora piska bat beharko dala ondo antolatzeko.

Eskoletarako liburuen saila dala-ta, Loidi-k Santamaria-ren karta bat irakurri du. Zatarain geixorik omen dago. Batzorderako urrengo auek izendatu dira: Irigaray, buru, Anai Berriotxo, Oregi, Salbador Garmendia, Zatarain, Santamaria, Peña, Aita Moko-10a, Anai Olabeaga, eta Julene Azpeitia.

Euskal autore klasikoaren antologiak San Martin-ek izkribu bat ekarri du: nola dihoan egin duten lana, nolako autoreak sartuko diran, izango duen luzeera eta beste-lako xehetasunak. Ontzat artu da guztia.

Euskaldunen alfabetizazio kanpafiak beste izkribu bat ekarri du San Martin-ek berak. Nola Gipuzkoako Itxaso-n esperientzi bat egiten ari diran ango gazte euskaldunen artean illabeteko saiaketa bat egiñik eta nola moldatu duten irakasaldia.

Lojendio-k dio Patrick Farrell irlandesak Lopez Mendizabal-en gramatika itzuli duela gaztelaniatik inglesera eta laguntzailleak izendatzeko garaia datorrenean kontuan eduki behar litzakeala.

Lizardi poesia saria nori eman erabaki dute juradukoak. Gabriel Aresti izan da irabazlea *Euskal-harria* lanarekin. Iru boto izan ditu. Luis María Mujika-k boto bat izan du *Nire errostatik* lanaren alde, eta Antonio Bilbao Monasterio-k beste boto bat *Bi ta bi lau ta bi... zortzi*-ren alde.

Besterik gabe oi dan otoitzarekin bukatu da batzarrea, asieran bezala.

*Euskaltzainburuordea*

P. LAFITTE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, Diputazioaren jauregian, 1966-III-25.

Bildu dira: Dassance, buru, Labayen, Haritschelhar, Larzabal, Villasante, Zavala, Lafitte, eta Irigoyen euskaltzainak. Oregi, Zubikaray, Zatarain, Aresti, Arkotxa, Dirassar, Arregi eta Juan Garmendia laguntzailleak.

Lojendio, Arrue eta Oleaga-k ezin etorria adierazi dute.

Aurreko batzarreko agiria irakurri eta ontzat artu da

Lafitte-k izkribu bat irakurri du. Dio, Euskal autore klasikoen antologia bukatzen danean, Euskal itzen bereizkuntzak zeatz egiteko batzorde bat sortzea komeni litzakeala. Batzarrekoai gauza egokia eta egin beharrekoa iruditu zaie.

Dirassar-ek dio nola bialdu zaien Bidasoaz gorako laguntzaileai orri bat zenbait galdera eginik eta orainarte artu diran erantzunen kontu eman du.

Bertsolari txapelketez berriketa bat egin da. Nafarroakoa Igantzi-n asiko da maiatzaren 15-ean eta Bizkaikoa Euba-n maiatzaren 1-can.

Irigoyen Bilbon zabaltzeko bidean dagoen eskolaz mintzatu da. Bizkaiko Diputazioaren laguntasuna eta bultzada lortzeko modua omen dago.

Esan du, gaiñera, gazte batzuk urbildu zaizkiola «Krisellu» izenarekin euskal teatro talde bat sortzeko asmoz eta nahi luketela Euskaltzaindiaren etxean egon. Aresti-k itz egin du gero talde orren berri emanik eta nolako asmoak dituzten adierazirik. Gaiñera Euskaltzaindiari, asierako gastuetarako, iru milla pezeta aurreratzeko eskatu dio. Ontzat artu da guztia.

Gero berriketa bat egin da Bilboko eta Iruñeko egunerokoetan euskerazko artikulua argitaratzeko sortu dan giroaz.

Arregi Euskaldunen alfabetizazio kanpañaz mintzatu da eta nola dijoan antolatzeari jakinerazi du. Alde batetik gaiak prestatzea eta bestetik nola gertatu errietako gauzak. 1. Gaija amabi leziotan prestatu omen ditek. 2. Bakoitzen euskalkitik asi eta beste euskalkiak eta batasun beharra ezagutsera. 3. Urrian asi ditek zenbait erritan eta orretarako Donostian egin ditek udan irakasleak prestatzeko billera bat. Oso ondo iruditzen zaie asmoa bildutako guztiei.

Besterik gabe oi dan otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, Diputazioan, 1966 apirilaren 29-an.

Bildu dira: Irigaray, buru, Zavalá, Arrue, Labayen, Larzabal, Satrustegi, San Martín, Villasante, Lafitte, Haritschelhar eta Irigoyen euskaltzainak. Oregi, Altuna, Zatarain, Loidi, Oleaga, Eizmendi, Arkotxa, Artola, Juan Garmendia, Aresti eta Etxaniz laguntzaileak.

Dassance, Eppherre, Dirassar eta Gereño-k ezin etorria adierazi dute.

Bergara-ko Ayuntamentuak eskatzen digu maiatzaren 30-ean erri artan egiteko alderdi artako bertsolarien txapelketa. Egin bedi.

Loyola-ko Filosofia Fakultadearen erretoreak eskatzen digu iraillean Euskaltzaindiaren batzarrea erri artan egiteko Larramendi-ren gorazarrea ospatuaz. Egin bedi.

Gure batzarrean dago William C. M. Browy jauna bere emaztearekin. Norteamerikanoak dira. Berriketa atsegin bat izan dugu aiekin. Euskeraz ikasten ari da Getaria-n. Irigaray-k aipatu du University of Idaho-k «Amigos del País»-ekoai bialdu dien karta zenbait gauza eskaturik prestatzen ari diran euskal gaien bibliotekarako.

Udarregi-ren omenaldi antolatzaileen izenean Jose Anton Arza-k egingo danaren programa bialtzen digu, gure izenean norbait joan dedin eskatuaz. Badaude batzuk arako asmotan diranak eta berak izan bitez gure ordezkari-tza dutenak. Bide batez Xenpelaar sariak eman ditezke egun batean ondo iruditzen bazaie antolatzaileai.



Berriketa bat izan da magnetofonoan ahozko euskal gaiak biltzeaz. Haritschelhar-ek dio kuestionario bakar bat prestatu behar litzakeala, batez ere atlas linguistikoari dagokion puntuan, lana debaldetan ez egiteko.

Libreria Manterola-k «Orixe» liburua eskeintzen digu eun pezetan alca. Ogei eros bitez.

Juan Garmendia-k Orixe-ren illobia egitea nola dijoan adierazi du izkribu bat irakurriaz.

Arrue-k esan du aurtan dala Kirikiño jaio zala eungarren urtea eta zerbait egin behar litzakeala bere omenez. Badakigu Durango-ko Gerediaga alkartadekoak ere zerbait egiteko gogoz daudela eta itz egin bedi aiekin ia zer prestatu genezakean batera.

Aresti-k dio urte bi barru dala berrogetaamargarren urtea Euskaltzaindia sortu zala eta ospatzeko modurik egokiena lan baliozkoen bat eginda edukitzea izango litzakeala.

San Martín-ek Eibar-en egingo diran Euskal Liburu eta Diskoan FERIA eta Umeen Euskal Jaiaz aritu da. Juradu bat izendatu behar dugula eskatu du euskal sariketa baterako. Izan bitez bera Etxaniz eta Julene Azpeitia.

Loidi-k lan bat irakurri du Euskaltzaindiaren lanak zeintzuk izan ditezkean adieraziaz. Oleaga-k eskatu du Bizkaiko euskaltzain eta laguntzailleak biltzeko baime-na batzorde lanen berri emateko eta nor zertan aritu ditezkean jakiteko. Ala egin bedi.

Lafitte-k itzen bereizkuntzaz aurkeztatu zuena oiñarri artuta iztegi gaia atera da eta berriketa luzea egin da ortaz, iritzi asko agertuaz. Azkue-ren iztegiak gañiera Euskaltzaindiak euskal iztegi bat behar luke itz bakoitzaren zeaztasunak euskeraz adierazirik. Ortarako Haritschelhar-ek eskatzen du urrenko batzarrean tratatu behar diran gaien artean iztegiaren lendarbiziko letrak jartzeko: *a* eta *aa*. Eta batzarrea amar ta erdietan asteko. Ala egin bedi. Mitxelena jaunarekin iztegiak itz egiteko San Martín, Irigoyen eta Oleaga izendatu dira.

Xenpelar sariak emateko izendatu ziranak bildu dira eta onela partitzea erabaki dute:

1. Manuel Matxain, Salbatore Mitxelena zanari jarritako bertsoakatik, kontuan izanik gañiera beste sorta on asko aurkeztatu dituela.
2. Inozenzio Olea, eiztariari jarritako amalau bertsoakatik.
3. Jesus Lete «Ibai-ertz», asto bati jarritako amasei bertsoakatik.
4. Gillermo Albizu, bildots bati jarritako amalau bertsoakatik.

Jakinerazi bedi nola aurtan ere Xenpelar eta Lizardi sariak emango diran. Lanak azaroaren ogeirarte bialdu ditezke. Bertso papelez gañiera aldizkarietan argitaratutako bertsoak ere ontzat artuko dira gutxienez sei ale edo zati bialduaz. Gañierako guztia orainarte bezala.

Besterik gabe oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburordea*  
A. IRIGARAY

*Idazlariordea*  
ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, Diputazioan, 1966 maiatzaren 27-an.

Bildu dira: Dassance, buru, Labayen, Satrustegi, San Martin, Haritschelhar, Larzabal, Villasante, Lafitte, Arrue, Zavala eta Irigoyen euskaltzaiñak. Oregi, Oleaga, Zatarain, Arregi, Juan Garmendia, Gereño, Altuna eta Goenaga laguntzailleak.

Lekuona, Irigaray eta Olaizola-k ezin etorria adierazi dute.

Iztegiaren a letraz jardun da. Lafitte, Villasante eta Zatarain-ek zerbait ekarri dute eta bana banaka gauzak ikusirik batzarrean zerbait prestatu da. Kopia atera eta zabal bitez.

Arruza il da. Euskaltzaindiaren dolu miña adieraz bekie etxeokoi.

Aurreko agiria irakurri eta ontzat artu da.

«Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa»-k egin digun karta irakurri da urteroko Xenpelar eta Lizardi sariez.

University of Idaho-ren karta irakurri da ondoren eta esaten digute nola beren bibliotekarako euskal liburuak biltzen ari diran eta gureak «Librería Manterola»-ren bidez bialtzeko. Ala egin bedi.

Irigoyen-ek dio nola «Colegio Resurrección María de Azkue» izenarekin zabalduko dan datorren astean eskola azkenez. Bizkaiko Diputazioak bialdu digun ofizio bat irakurri da laguntasuna eskeiñaz. Eskerrrak eman bekizkio.

Udarregi-ri Usurbil-en egin zaion gorazarreaz mintzatu da eta esan da Xenpelar sariak partitu zirala bertan.

Eibar-en egindako festaz ere itz egin da.

Euba-n maiatzaren 1-ean eta Nafarroako Igantzin maiatzaren 15-ean bertsolari txapelketak egin dira. Bergara-n maiatzaren 30-ean eta Lakuntza-n datorren illeko 19-an egitekoak dira.

Irigoyen-ek esan du Gerediaga alkartadekoekin itz egin duela Kirikiño-ren gorazarreaz. San Martin-ek ain zuzen ere programa moduko bat dakar eta aiek izendatu duten komisió bat aipatzen du. Bertan Anai Berriotxoa eta bera ere izendatuak daude. Urriko batzarrea Mañari-n egin beharko litzake igande batez. Atsegiñez ikusten da guztia eta eman bitez behar diran urratsak.

Oleaga-k Bilbon egindako billeraren berri eman du. An egon ziranen iritzi roizean bein Bilbon ere egin behar litzuke Euskaltzaindiak batzarreak. Era datorre-rean egiten asi bedi. Gaiñera Kerexeta-ren karta bat irakurri da —billera artan izan zan— eta dio prestatuak daukala zenbait gai enziklopedia modura eskoletako aurrentzat eta argitaratzeko asmotan dala eta eztuela eragozpenik Euskaltzaindiaren ardurapean argitaratzeko. Izendatu gelditzen da bera ere eskoletako liburuen saille-koa. Itz egin beza aiekin nola egin ditekian estudia dezaten.

Besterik gabe oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

- A. 1. Euskal iztegiko lehen letra.
2. Oiu itza. Sendimendu bizi asko sala ditzake doiñuaren araura, ala nola arritzea, duda, oiñazea, bihotz miña eta poza. Dobla ditek: *Azkenean aitortzen duzu, aa!*
3. Izketan ari diranen urrean eztagoenaren izen ordekoa. Irugarren persona.



4. Atzizkia. Atzizki onek enplegu aunitz ditu. Geienetan izena mugatzen du adierazik bakuna dala eta ezagutua. / Atzizki orren bidez izen gisa erabil ditezke esanera mota geienak: *Zeru orren urdiña, itxasoaren zabala, gizon orren etorria!* / Erakuts izen ordetzat erabil ditezke *-en, -ko* eta *-n* atzizkien ondotik: *aitarena, errikoa, duzuna*. / Askotan bakuntasuna salatzen du (L. BN. Z.): *Duela urtea (orain urte bete)*. / Atzizki orrek ez du beti itza mugatzen: *Nere andrea andre ona da*. / Zenbait kasutan moltsoa adierazten du: *Erlea amaren inguruan biltzen da oso osoa*. / Jabe itzaren ordezkotzat egiten du: *Aita semea maite du*. / Estatu iraunkor bat adieraz dezake: *eri da -eria da; erori da - eroria da*. / Atzizki orrek adverbioa ere egiten du: *ixil ixila, ahalik ederkiena* (L. BN.). / Galdezkoa (L. BN. Z. E.): *Eldu biza? Baduka burutik? Baia? Eza? Gor niza ala entzun dut? Errandaitadazia?* / Nora jotzen dan erakusten duen atzizkia: *Arizkuna* (Arizkuna) *Zizur-kill, Zara, 'za*.

Donostian, Diputazioan, 1966-VI-24.

Bildu dira: Lafitte, buru, Villasante, Haritschelhar, Larzabal, Satrustegi, Irigaray, Lojendio eta Irigoyen euskaltzaiñak. Lopez Mendizabal ohorezkoa ere egon da. Etxaniz, Garmendia, Arregi, Beobide, Aresti, Loidi, Zatarain, Oregi, Fernando Mendizabal laguntzailleak.

Oleaga eta San Martin-ek ezin etorria adierazi dute.

Itzegiaz jardun da. Lan batzuek ekarri dira. Nola jarri behar dan itzen ordena, nolako itzak sartu behar diran eta *b* letrarekin nola jokatu izan dira erabili diran gaiak batez ere. Sar bitez itz guztiak. Azalpena egin bedi ordena alfabetikoz lendarbizi datorren itzean, dituen aldakuntzak ere aipaturik eta geroago bakoitza sarturik ordenaz tokatzen zaion lekuan. Ezta esango zein itz dan erabilgarrien. Orrela itz batzuek *b*-kin eta *b* gabe bietan ipiñiko dira, baldin ala erabiltzen badira eta beste klase bateko aldakuntzetan berdin. Bialtzen diran lanak multikopistaz atera bitez gero batzarrean tratatzeko.

F. Mendizabal mintzatu da egiten ari dan euskal gramatika batez. Ikasleen artean dituen esperientziak azaldu ditu eta euskerazko gramatika-terminologiaz zenbait iritzi eman ditu.

Lopez Mendizabal jauna agertu da eta guztiak agurtu dute. Lafitte-k itz batzuek zuzendu dizkio bere ohoretan eta berak erantzun egin dio.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Irigaray-k Kerexeta-ren lanaz zenbait gauza esan ditu. Batzordekoen eskuetan utzi da iritzi bat ekar dezaten.

San Martin-en karta bat irakurri da Kirikiño-ren omenaldia dala-ta. Gerediaga alkartadekoak nahi dute Mañaria-n egin dedin Euskaltzaindiaren urriko batzarrea. Egin bedi. Aiei karta baten bidez esatea komeni litzake eta ala egin bedi gure babesaren izango duela omenaldiak aipaturik.

Irigoyen-ek dio Bilboko eskola zabaldu dala eta Apezpiku jauna izan zala lokaletan bedekiazioa egiten. Bertan egon ziran Euskaltzaindikoan artean Bizkaiko Diputazioako ordezkari bat eta irakaskintzaren lenengo mailako inspektorea. Apezpiku jaunak zenbait itz esan zituen euskeraren alde eta eskerrak eman zitzaizkion bertan. Itxura danez eskola berriak zabaltzeko bidea egiña dago Euskaltzaindiaren babesarekin izatekotan eta zenbait lekutan paperak egiten ari dira.

Dio, gaiñera, Kriselu taldekoak Bilboko Ayala Teatroan obra bat eman dutela.

Gereño-ren kartu bat irakurri da. Dio Euskaltzaindiak eskabide bat egin behar liokeala «Ministerio de Educación y Ciencia»-ri Euskalerriko Majisterio Eskoletan euskeraren katedrak ipiñi ditzaten edo beintzat kurso batzuk bertan ikasten duten maisu-maistrentzat. Estudiatu bedi zeatz gauza au. Lojendio-ri eskatu zaio arakatu ondoren iritzi bat ekar dezan. Esan da, gaiñera, Majisterio Eskoletan bertan ere komeni litzakeala nolako giroa dagoen ikustea.

Irigoyen-ek aipatu du Bizkaiko Diputazioak bialduta amazortzi maistra esamianatutuala ia euskeraz dakien, puntu bat irabazten baitute orrela izanik barriadako eskoletarako.

Iruñeko «M. I. Colegio de Abogados»-ek erantzun digu. Eskerrak ematen dizkigute gure eskabideagatik eta diote oraingoz konpontzen dirala euskerazko interprete kontuan eta behar balute aintzat artuko luketela gure proposamendua. Satrustegi-k lege kontuan Nafarroko euskal giroaz zenbait gauza esan ditu.

Bertsolari saioez itz egin da. Lakuntza-n garagarriaren 19-an egin zan bat. Urrengoa Bergara-n izango da.

Haritschelhar-ek esan du nola Goienetxe jaunak tesis bat aurkeztatu duen Bordelen zortzireun orrialde ingurukoa «Onomástica Vasca del siglo XI al XV» gaiaz. Dio, gaiñera, Xuberoko Irurin pastoral berri bat ematekoa dala abuztuan. Zeatzasun geiago esango dira geroago.

Satrustegi liturjiari buruz Urretxuan egin dan batzarreaz mintzatu da. Aita gure bakar bat Euskalerrri osorako nola izan ditekian ere estudiatu dute. Beste billera batzuek egitekoak omen dituzte. Atsegin aundiz ikusi da.

Beobide-k esan du ia Euskaltzaindiak juradu bat izendatuko lukean Koka Kola-k aurrentzat jarri duen sariketarako. Garaia danean egin bedi. Esan du, gaiñera, zenbait teatro lan biltzen aritu dirala taldeak behar dutenean nora jo izan dezaten eta ia Euskaltzaindiaren etxean gorde ditezkean. Gorde ditezke.

Juan Garmendia-k izen bi aipatu ditu laguntzaille izan ditezkeanak. Abuztuan da izendatzeko garaia eta kontuan artu bedi.

Besterik gabe oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

P. LAFITTE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, Diputazioan, 1966-VII-29.

Bildu dira: Dassance, buru, Villasante, Larzabal, Mitxelena, Lafitte, San Martin, Haritschelhar, Arrue, Labayen, Irigaray eta Irigoyen euskaltzainiak. Oregi, Juan Goikoetxea S. J., Zatarain, Salbador Garmendia, Oleaga, Gereño, Loidi, Arregi, Lasa, Beobide, Zugasti, Exaniz, Aresti, Altuna eta Santamaria laguntzailleak.

Arotzarena eta Arzubiaga laguntzailleak il dira. Ager bekie gure dolu miña etxekoai.

Euskal iztegiak jardun da. Berriketaren gaia iztegiak normativoa izan behar duen eta nolako neurrian izan da eta aurreko batzarrean esandakoak zeatzago finkatu behar lirakeala. H letraren ordenaz ere izan da zer esana. Lendabizi oiñarriak ondo plantatzea komeni dan ezkerro, naiz eta gaia biltzea beti egin diketean izan, Mitxelena

eta Aresti-ri datorren batzarreko bakoitzaren iritzia izkribuz ekar dezatela eskatu zaie.

Gero Gereño-ren karta bat irakurri da. Urrengo proposamendu au egiten du: Euskaltzaindiak «Educación y Ciencia»-ko Ministroari eskabide bat egitea. 7. Urtero bost milloi pezeta guri ematea Euskaltzaindiaren lanetarako. 2. Euskera sar dezatela Euskalcrian dauden Magisterio Eskoletan ikasi beharreko izkuntza bezala. 3. Euskera izan dedilla karreratan ikas ditekcan izkuntza bat, frantsesa, inglesa eta kanpoko beste izkuntzen parean. 4. Lenengo maillako eskoletan, euskeraz egiten dan errietan, bilinguismoa sar dezatela. Oho batez ontzat artu da eskabide ori egitea eta datorren batzarreko prestatu bedi bialduko dan izkribua, guztiak itzez itz ontzat artu ondoren, bial dedin. Euskaltzaindian dauden lege gizonen laguntza behar da.

Loidi-k, lendabizi, eskoletan nolako liburuak behar lirakean gaiaz egin dituzten galdera eta artu dituzten erantzunen berri eman du, gero Kerexeta-ren lanaz aritu da eta azkenean esan du San Telmo-ko museoak lokal bat uzten digula eta komeni zaigula langille bat billatzea bertarako eta diru kontua erabakitzeke eskabideak egin behar zaizkiola jendeari, ortarako izkribu bat prestaturik. Ondo ikusten da asmoa.

Bertsolarien txapelketez mintzatu da eta Markiña, Bergara, Villabona eta Villafrañca-n egin diranak aipatu dira.

Aresti-k esan du don Manuel Lekuona-ri omenaldi bat egiteko asmotan dirala Oyartzun-en abenduaren 26-ean, urrezko ezteiak ospatzen dituela eta Euskaltzaindiak ere nolabait parte artu behar lukeala.

Besterik gabe oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

L DASSANCE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, 1966-VIII-21.

Bildu dira: Irigaray, buru, Satrustegi, Haritschelhar, Lafitte, Arrue, Lojendio, Mitxelena, Labayen, Zavalá eta Irigoyen euskaltzainak. Oregi, Zatarain, Oleaga, Loidi, Zugasti, Arkotxa, Zubikaray, Olaizola, Juan Goikoetxea S. J., Altuna, Beobide, Arregi eta Santamaria laguntzailleak.

Ezin etorria adierazi dute Dassance, Eppherre, Lekuona, Larzabal, Aresti, Juan Garmendia eta Gereño-k.

Aurreko agiria ontzat artu da. Aldaketa bat egin da. Gobernuaren eskabidea aipatzean «eskabide ori» jartzen duen lekuan «eskabide bat» ipiñi da.

Mitxelena-k euskal-itzegiaz egin duen lanaz itzezin da. Satrustegi-k itz batzuek ekarri ditu. Fitxa bat inprentaz egitea erabaki da itzak biltzeko.

Gobernuari egin bear zaion eskabideaz itzezin da. Borradore bat bazegoan eta ortaz izan da jarduna. Zenbait gauza estudiatu dira eta datorren batzarrean artu bedi erabakia.

Datorren batzarrea Loyola-n izango da iraillaren 25-ean eta zenbait itzaldi, gure batzarreaz gaiñera, egingo dira Larramendi al zala berreungarren urtea ospatzeko. Gauza guzti onen berri Euskaltzaindikoak diran aita jesuitak ekarri dute eta ontzat artu da.

Zenbait izen aipatu dira Euskaltzaindiko Laguntzailleak izendatzen diranako.

Haritschelhar-ek esan du nola Euskaltzaleen Biltzarra buruilaren 8-an Ezpeleta-n egingo duten.

Loidi-k dio nola San Telmo-n talde bat asi dan biltzen eta nola gaur eguneko itzen iztegi bat asi diran moldatzen. *A* eta *b* letrak arakatu omen dituzte eta illean bi aldiz bilduko omen dira.

Oleaga-k itz egin du Azkue-ri Parraga-k egin zion kuadruez. Parraga da jabea eta dio zenbat balio duen galdetzea komeni litzaiokeala beste batzuen eskuetara joan baiño lehen. Eman bidez pausook eta erosi behar balitz Bizkaiko Diputazioaren laguntasuna billatu bedi.

Bertsolarien txapelketez itz egin da. Agustuaren 15-ean Zeanuri-n egin da bat eta beste bat 21-ean Mungia-n.

Juraduak izendatu dira Domingo Agirre novela sarirako eta Gernika sarietarako. Lendabizikoan sartu dira: Arregi, Arrue eta Erkiaga. Bigarrengean Zubikarai, Labayen, Aresti, Gereño eta Ziarsolo.

Satrustegi-k Aita Felipe Murieta-koaren eriotzea jakifierazi du. Gure dolu miñak ager bitez.

Besterik gabe oidan otoitzarekin asi eta bukatu du batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

I. IRIGARAY

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Loiola-n, 1966-IX-25.

Bildu dira. Lekuona, buru, Arrue, Labayen, San Martin, Erkiaga, Zavala eta Irigoyen euskaltzainak. Beobide, Oregi, Juan Garmendia, Zubikarai, Etxenagusia, Xalbador Garmendia, Oleaga, Altuna, Zugasti, Zatarain, Etxaniz, Gereño, Andrinua, Aresti, Arkotxa, Juan Goikoetxea S. J., Valverde, Loidi, Juan M. Lekuona, Astiz, Agirretxe, Etxeandia eta Aita Julian Igorre-koa.

Lojendio-k ezin etorria adierazi du, baiña ministroarentzako gertatu duen eskabidea bialdu du Oleaga, Santamaria eta Mitxelena-k eratutako lanekin batera.

Arrue-k, goian aipatutako gauza orietaz itz egin du. Eskabidea irakurri da eta bilduak zenbait iritzi eman dituzte. Batez ere Erkiaga, San Martin, Aresti, Gereño, Beobide, Altuna eta Oleaga-k itz egin dute eta aldaketa txiki batzuek egiñik ontzat artu da eskabidea. Beraz, Madrilkeko Ministerio-ra bialtzeko prest.

Joan dan batzarrean Gernika sarietarako izendatu zan juraduan Ziarsolo-k eztu parte artuko lan bat bialdu baitu eta Aresti-k bere ezetza eman du beste arrazoi batzuekatik.

Urrenge batzarrea Mañari-n izango da E. Bustintza «Kirikiño» zanaren omenez urriaren 23-an.

Oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

MANUEL LEKUONA

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Mañaria-n, 1966-X-23.

Bildu dira: Irigaray, buru, Labayen, San Martin, Erkiaga eta Irigoyen euskaltzaiñak. Andrinua, Arkotxa, Eizmendi, Juan Garmendia, Ziarsolo, Aita E. Barandiaran, Oleaga, Julene Azpeitia, Altuna, Zatarain, Etxaniz, Gereño, Zubikarai, Aresti, Etxeandia, Etxenagusia, Onandia, Kerexeta eta Astiz laguntzailleak.

«Real Academia Gallega»-k Ministerioari egin nahi diogun eskabidearen kopia bat eskatzen digu, beste ainbeste egiteko asmoz. Bialdu bekie entregatzen dugunean.

Batzorde bat izendatu da Ministeriora eskabidea nola bialdu ikus dezan: Lojendio, Arrue, Mitxelena, Jose Migel Barandiaran, Irigoyen, Diez de Ulzurrun medikua, Caro Baroja, Oleaga eta Astiz. Lenbailen eskatu bedi audientzia.

Martin Oyarzabal laguntzaillea il da. Gure dolu miñak ager bitez.

Besterik gabe oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

A. IRIGARAY

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, 1966 XI-25.

Bildu dira: Dassance, buru, Villasante, Satrustegi, Diharce, San Martin, Larzabal, Labayen, Lafitte, Haritschelhar, Lojendio, Irigaray, Arrue, Zavala eta Irigoyen euskaltzaiñak. Altuna, Loidi, Juan Garmendia, Olaizola, Aresti, Arkotxa, Etxaniz, Oleaga, Artola laguntzailleak.

Gereño-k ezin etorria adierazi du.

Aurreko agiriak irakurri dira: abuztu, irailla eta azarokoak. Ontzat artu dira. Azkenekoari Aresti-k ohar bat egin dio eta jarri bedi oraingo ontan. «Lenbailen eskatu bedi audientzia» dion lekuan behar luke «biar bertan eskatu bedi audientzia kartaz». Ortaz aritu da Aresti eta buruzagi baten beharra aipatu du.

Loidi-k izkribu bat ekarri du eta irakurtzera eman du. Euskaltzaindiak betetzen eztituen eginkizunak aipatu ditu eta buruzagi eta beste karguak behar dan bezala ornitzea eskatzen du.

Gobernuari zuzendutako eskabidea oraindik entregatu gabe dago. Buruzagirik eztagoen ezker, Lojendio-ri eskatu zaio firma dezan, azkenengoa bera izan baitzan. Ala egin du. Oleaga Madriletik etorri da eta nola Donostiatik Zaraguetari eskatu zitzaion Ministeriora aurkeztatzea egiteko, berarekin itz egin du eta egunero deitzen ari omen da audientzia noiz izango dan galdezka. Laster ezpaldin badegu egun orren berri, alegiñak egin bitez Irizar-en bidez edo beste nolabait Ministroarekin alkartu gabe entregatzeko.

Domingo Agirre novela saria Dominique Peillen-ek «itzal herrian» titulua duen lanagatik irabazi du.

Gernika sariak onela eman dira:

Ensayoetan:

1. Iñigo Urroz de Heredia-ri «Euskaldun ospetsu batzuen gizatasuna» lanagatik. Izen ori Thalamas Labandibar-i dagokio.
2. Aita Gaizka Barandiaran S. J.-ri «Zugaitz gurgarriek Ixrael-en»-gatik. Ipuietan:



1. Sabino Alonso Ariño-ri «Txomin-en nekaldiak» ipuiagatik.
2. Jose Maria Etxaburu-ri «Maitasunaren arantzak»-gatik.
3. Manuel Ziarsolo «Abeletxe»-ri «Aretxa, ezkuraren semea»-gatik.
4. Jose Antonio Arkotxa-ri «Mielgax-en ipuia»-gatik.

Nola izendatu buruzagia izan da erabili dan jardunaren gaia. Datorren batzarrean egin bedi. Botoak sekretoak izango dira eta izendatua izateko, emandako boto guztien erdiak eta bat gutxienez alde izan behar dira. Lendabiziko botazioan inork lortzen ezpadu orrenbeste boto, berriz egingo da eta orrela norbaitek atera arte. Batzarrean ezin joan diran euskaltzaiñak poderioa beste bati eman dezaioke are erdez botoak eman ditzan. Norbait izendatua gelditzen baldin bada eta ezin artu badu kargua, zergatik ezin duen esan beharko du eta Euskaltzaindiak bere juzgua emango du eta naikoa arrazoï duen ala ez erantzungo du. Izendapena bi urterako izango da eta denbora orren buruan berriz botoak emango dira eta urte birik bein ala egingo da. Euskaltzain guztiak dira kandidato. Aurreko urteetan buru izanak ere kandidato bezala sartuko dira.

Ilbeltzeko batzarrea Bilbon egin bedi.

Laguntzaille berriak izendatu dira: Patrik Farrel Dublin-ekoa, M. J. Urmeneta, Luis Jauregi, Klaudio Sagarzazu, Jazinto Karraskedo Olarra, Etchamendi, Etcheberri, Idiart, Jose Maria Echaburu, Juan Oñatibia, Telesforo Monzon, Juan Anjel Etxebarria, Franzisko Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta Xabier Lete.

Irigoyen-ek dio Koka Kola-k egin duen sariketarako, azkar erabaki beharra zegoen ezker, Gipuzkoa-ko juraduan Beobide, Zatarain eta Xabier Lete sartu dirala eta Bizkaikoan Irigoyen, Jaime Goenaga eta Joakin Barrutia, egin diguten eskearen arabera.

Xenpelar sarietan parte artzeko bertso papelak bialtzeko epea urtearen azken egunerarte luzatu da.

Lizardi sarirako juradua izendatu da: Aresti, Artola eta Etxaniz.

San Martin-ek eskatu du Kirikiño sarirako ere izendatzea eta bera, Arrue eta Irigoyen sartu dira erabaki dezaten.

Euskaltzaleak Buenos Aires-tik bialdu diguten programa bat artu da. Bertan, abenduaren 3 eta 4-an euskeraren eguna ospatzeko egingo dituzten gauzak aipatzen dira. Pozik artu da.

CCC-k egindako karta irakurri da. Diskoen bidez egiña duten metodoa Gipuzkoa-ko eskola maisuen artean zabaltzeko modu bat billatzeaz.

Haritschelhar aritu da eta esan du Frantzia-ko gobernuaren abuztuko dekretu baten bidez Bordeleko eta Tolosa-ko Unibersidadeetan «lettres modernes» eta «langues vivantes» ataletan estudiantetia euskera ar dezaketela bigarren izkuntza bezala eta gero lizeoetan irakatsi. Azaroan beste dekretu bat etorri da Unibersidade orietan komisiu bana sortuz irakaskintzako iru mailletan sartzeko euskera, geografía, historia eta artearen historia, azkenengo auker Euskalerrikoak eta Bayona-n orien mendeko bat egin da euskerarentzat. Atsegiñez beterik entzun da berri au.

Vicente Saralegi laguntzaillea il da. Gure dolu-miñak ager bekizkie etxeokoi.

Oi dan otoiwarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostian, Diputazioan, 1966-XII-30.

Bildu dira: Dassance, buru, Arrue, Erkiaga, Zavala, Larzabal, Villasante, Lekuona, Satrustegi, Lafitte, Eppherre, Mitxelena, Irigaray, Lojendio, San Martin, Labayen eta Irigoyen euskaltzaiñak. Xalbador Garmendia, Oñatibia, Loidi, Valverde, Goenaga, Oleaga, Altuna, Santamaria, Arkotxa, Juan Garmendia, Juan Goikoetxea S. J., Oregi, Lizundia, Saizarbitoria, Juan M.<sup>a</sup> Lekuona, Sarasola, Etxaniz eta Beobide laguntzaileak.

Dassantzek itz batzuek esan ditu asiera eman baiño lehen, otoitzaren ondoren.

Barandiaran-ek ezin etorria adierazi du.

Laguntzaille berri batzuen erantzunak, izendapena ontzat arturik, irakurri dira: Eñaut Etchamendy, J. B. Etcheberry, Migel J. Urmeneta, J. Karraskedo Olarra, Patrick Farrell, Jose Maria Etxaburu, L. Jauregi. Idiart-ek ere baietza eman duela esan da. Monzon jaunaren karta bat ere irakurri da. D. Peillen-ek karta baten bidez eskerrak ematen dizkio Euskaltzaindiari artu duen novela-sariagatik.

Irigoyen-ek esan du «Ministerio de Educación y Ciencia»-ri egin diogun eskabidea Pedro Yrizar-en bidez entregatu dala abenduaren 20-an.

«Asociación de Txistularis»-ek karta batean «Ministerio de Educación y Ciencia»-ri egindako eskabidearen kopia eskatzen digu, berak ere beste ainbeste egiteko asmoz, gurea ontzat arturik. Pozik ikusten da eta eman bekie.

Irigoyen-ek esan du Bizkaiko Diputazioak «Cátedra-Instituto de Lingüística Vasca» sortu duela eta Deustu-ko Unibersidadeko Letra Fakultadearen barruan jarri. Ortarako Patronato bat izendatu da: Buru, Bizkaiko Diputazioko presidente jauna. Bozdunak, Deustu-ko Unibersidadeko erretore jauna, Diputazioko Edukazio komisioko presidentea, Deustu-ko Unibersidadeko Letra Fakultadearen dekanoa, Mario Grande Bilboko Erdi Irakaskintzaren Institutoko zuzendaria eta bera Euskaltzaindiaren ordezkari bezala. Dio, gainera, patronatoak lendabiziko batzarrea egin duela eta sortua gelditu dala eta Mario Grande, dekanoa eta bera jarri dituztela arautegiak egiteko; Orretan Euskaltzaindiaren joera defenditu nahi duela, tokatzen zaion bezela. Euskaltzaindiak Mitxelena eta bera izendatu ditu itz egin dezaten zer bidetatik jo dezakean.

Joan dan batzarrean laguntzailleak izendatu ziranean Estornes Lasa sartzea ahaztu zan eta oraingo batzarrean utsune ori zuzentzen da.

Euskaltzainburua izendatzeko botoak artu dira: Lafon, Haritschelhar eta Diharce-k Lafitte-ri eman diote poderioa, Barandiaran-ek Irigaray-ri. Orretara, batzarrean daudenakin, guztiz ogei boto dira. Onela ateratzen da: Lekuona, 14 boto; Lojendio, 3; Barandiaran, 1; Mitxelena, 1; Villasante, 1; Beraz, Lekuona buru izendatua gelditu da.

Gero buru ordeia izendatzeko eman dira botoak eta Haritschelhar-ek jaso ditu guztiak.

Gero sekretarioa ateratzen da. San Martin, 16 boto; Irigoyen, 2; Mitxelena, 1; Arrue, 1. San Martin izendatua gelditu da.

Gero diruzaiak. Erkiaga, 18 boto; Labayen, 1; Irigoyen, 1. Erkiaga izendatua gelditu da.

Gero liburuzaia. Gorostiaga, 11 boto; Irigoyen, 3; Seminario Rojas, 2; Erkiaga, 2; Zuriak, 2. Gorostiaga izendatua gelditu da.

Sekretario orde bezala Irigoyen-ek jarraitzen du eta eragilleak ere lengoak: Dirassar, Loidi, Oleaga eta Diez de Ulzurrun medikua, bakoitza bere eremuan.

Arautegiak berritatzeara estudia dezaten Lojendio, Arrue eta Oleaga izendatu dira. Bilbon izango da batzarrea ilbetzean.



Ambrosio Zatarain Euskaltzaindiko laguntzaillearen aita il da. Gure dolu miñak ager bezizkio Ambrosio Zatarain semeari.

Gipuzkoan eztira bukatu oraindik bertsolarien txapelketak eta ortaz izan da jarduna. Arrue mintzatu da eta erri batzuen izenak aipatu ditu lenbailen egiteko asmoz.

Oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*azlariordea*

JOSÉ IRIGOYEN

1967 - I - 27

Bilbao, Euskaltzaindiaren etxean, 1967-ko ilbeltzaren 27-an.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Dassance, Erkiaga, Gorostiaga, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Sartrategi eta Villasantie euskaltzainak; eta Altuna, Arkotxa, Arenaza, Aresti, Azpeitia (Julene), Barandiaran (A. Emiliano), Beobide, Carrasquedo, Etxaniz, Etxebarria (Juan Anjel), Etxenagusia, Garmendia (Joan), Gereño, Kerexeta, Lizundia, Loidi, Aita Martzel Belokekoa, Merino Urrutia, Oleaga, Onaindia, Oñatibia, Oregi, Quintana, Sarasola, Ziarsolo, Zubikar, eta Zugazti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Barandiaran (Jose Migel), Lojendio, Olaizola eta Zabalak ezin etorria adierazi dute.

Oitura dan otoitzarekin asi da biltzarra. Leenbizi, Lekuona jaunak, Euskaltzaindiko buruzagitzaren aulkia artzen duelarik itz berezi batsuek esan ditu batzarkideentzat, bere izendatzeagaitik eskerrak emanaz, eta Euskaltzaindiaren zer-eginiari buruz zerbait esanaz. Euskaltzaindiak bi zeregin dituala esan zuan: ikaskuntzakoa, eta babesle edo aldezea. Euskerak ere, bere aldetik, bi auzi dituala: bizi izatea, ta garbi izatea. Euskaltzaindiak, Euskeraren biziari lagunduko dio, bere zati aldezearen bidez batez ere: lagundu; bañan egin, erriak egin bear du, guztiok egin bear dugu: garbi edo mordollo, egin. Egiten degun arte, Euskera biziko da.

Euskaltzaindiak, bere Ikaskuntzako Zatiaren bidez, Euskera garbitzen eta Euskerari txukun iraunerazten jardungo du. Bi arazo oiek ondo bereizi bearra dago, inork amets-egin ez dezan, Euskalerrian Euskaltzaindi bat izan ezker, beste gabe, Euskera biziko dala. Euskerari buruz, guztiok degu geren al-deguntxo egin bearra.

Abenduko biltzarreko agiria irakurri da. Ontzak artzen da, baiña berari buruz, Arestik eskaturik, Montzonen kartaz jardun da eta azkenez erabagi da idazlariak adiskide gisa, ofizialki jakiña, kartaz agerpen bat egiteko erabagia artu da, adierazteko asmurik oherenakin izendatu genuela Euskaltzain laguntzaille.

Ministerio de Educación y Ciencia-ren erantzuna irakurri da. Esaten du gure eskarizko idazkia artu zutela eta bear bezela estudiantua izango dela, bertan gai orri dagokion saillean. Ara itzez-itx bertan diona:

«Ilmo. Sr.: En nombre del Excmo. Sr. Ministro del Departamento me es muy grato acusar recibo de su escrito fecha 15 de noviembre último (recibido en el Registro General de este Ministerio el 20 de diciembre) y darle cuenta de que por el mismo Excmo. señor se ha dispuesto que aquel escrito sea informado por los servicios y organismos competentes, con el fin de determinar las consecuencias pedagógicas que se seguirían de la adopción de las medidas propugnadas por esa docta Corporación y las disposiciones administrativas que en su caso sería necesario acordar para su ejecución.

Dios guarde a V. I. muchos años. Madrid, 11 de enero de 1967. EL SECRETARIO GENERAL TECNICO. Ilmo. Sr. Presidente de la Academia de la Lengua Vasca. Bilbao».

A. Altunak mallorkarrei eta gallegoeri erantzundakoa jakitea kome-niko litzaigukela dio.

Arruek itx egin du, esan du, Naparruako Diputazionean ere onartua dela, era berean, «Fomento del Euskera» sailak egin dion eskaria eta uste duela berek laister eskatuko dutela, Madrilgo Gobernura, euskera eskoletan jartzeko.

Txistularien alkarteak egingako eskaria ere irakurri da.

San Martiñek aitzen eman du Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-ekoak ere egin diotela Ministerioari eskari bera Alvaro del Valle Lersundi jaunak firmatua.

Merino Urrutia jauna mintzatu da, era berean, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-en Bizkaiko sailaren izenean eskatzeko.

Irigaray jaunak dio, Euskaltzaindiak Ministerioari egin dion eskari orren berri jakifiaztea komeni zela Real Academia de la Lengua-ren buru-ordezko dan Vicente García de Diego jaunari. Ontaz, Merino Urrutia-k esan du adiskide duela García de Diego jauna eta berak ere perso-nalki esango diola.

Baita ere esan da UNESCO-ri ere gauza bera adieraztea komeni lit-zakela. Idazkariak esan du UNESCO-ren baimena lortu duela **L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement** liburua euskerara itzul-tzeko, ta komeni litzakeala lenbaitlen itzultzea, euskaldun guraso askoren artean eta maixu askoren artean oso zabaldua dagoalako aurreri ikaske-tarako euskerak kalte egiten dion ustea, eta liburu orrek bestelako iritzia agerrera izan delako. Juan Anjel Etxebarriak esan du berak zuela lan ori katalanetik euskeratzeko asmoa. Beraz, Juan Anjel-en esku gelditu da liburu au euskeratzeko. Euskaltzaindiaren begirapenarekin argitarat-zeko.

Migel Anjel Astiz-en karta luze bat irakurri da. Zenbait gauzaren ar-tean zentro ofizialeri eta bai partikulareri Euskaltzaindiarentzat diru eskaria egin bear litzakeala; bearrezkua delako bere lanak aurrera era-mateko. Eta, gainera, Ministeriora komizione bat bialdu bear dala, gure eskaria bertan-bera gelditu ez dedin, ta komizio berak, egiten danari buruz, zabalkundea egin egunkariz, erradioz eta telebistaz. Ontzat artu

da eta ortarako lenago izendatu zan komizione beraren esku uzten da, bere idazkia obeki estudiatu eta dionari buruzkoa aurrera eramateko bidea artu dezan.

Loidi jauna mintzatu da Gipuzkoako saillaren izenean, Arpide-laguntza bat betetzeko diruzko eskariak egiteko idazki bat irakurri du euskeraz eta erderaz egiña, ondorean era berean beste probintziak egin dezaizen. Ontzat artua da, ta egin bedi.

Idiomas Vivientes, S. A.-ren karta bat irakurri da euskeraren irakasketa diskotz ateratzeko asmoa dutela agerreraiz.

Etxaburu jaunaren karta bat irakurri da, Euskaltzaindiak bere berrien eta agirien zabalkundea bear bezala egiteko komizione bat edo izendatzea bear litzakeala esanaz.

X. Gereño-k esan du Bizkaiko Diputazioaren presidentia berriari zorrionak emanaz, bere buruzagitzaregaitik, bide-batez euskeraren alde zerbait egiteko esatea merezi duela.

Arenazak, bere aldetik agerreraiz du, Facultad de Ciencias Económicas-eko euskerazko klaseeri laguntza emateko eskaria egitekoak direla Diputazioko presidentari.

X. Gereñok esan du Bilboko ayuntamientoari ongi litzakeala Azkue-ren izena Bilboko kale bati emateko eskaria.

Irigoyenek idazki bat presentatu du «Persona izenak legearen aurrean» izenekoa, eta bertan irakurtzen da euskal izenak zelako eragozpenak izaten dituzten oraingo legearen aurrean, eta Euskaltzaindiak Madrileko Gobernuari eskari bat egin bear liokela emengo izenak ontzat artzeko.

Geienak uste dute izen lista bat egin bear litzakeala, izen zahar eta jatorreneri aurrea emanaz, eta bestelakoak ere ontzat artuz. Gero, aukeratzear, guraso bakoitzak azken-itza izan dezan.

Larzabal jaunak erran du Frantsiako Gobernuak edozein izen jartzea uzten duela batere eragozpenik gabe.

Lafitte jaunak adierazi du Eugène Goyhenetxe euskaltzain laguntzailleak oraintsu egiña duela aintziniako euskal-izenen estudio bat. Eta, lista bat egiteko, berak bildurik dauzkan izenak eskatzea ongi litzagukela. Baita ere, erran du, egin duen lan ori «Príncipe de Viana» aldizkarian argitaratzeko asmoa duela, izenik geienak Nafarroa zaharrekoak direlako. Berari izen lista eskatzea erabagi da.

Buruzagiaren eskariz, Milagros Bidegain andereñoa, ainbeste urtean Donostiako radiotik euskeraz mintzatzen aridalako eta ikastolen alde egin dituan lanen alde, eskerkiz, euskaltzain laguntzaille izendatzea eskatu du. Ontzat artua izan da.

Altunak esan du izendaturik dauden saillen batzordeak egiten ari diran lanen berri eman bear luketela.

Loidik, bere aldetik, egiten ari diran Iztegitxoaren berri eman du, esanaz «B» letiran dijoala lana ta orain arte bete diran itzak fitxetara pasatuak daudela.

Villasantek aditzera eman du 1968-an, datorren urtean bertan, beteko direla Euskaltzaindiaren sortzeko urre-ezteiak eta merezi duela zerbait berezigarri egiteko asmoak gertatzen astea. Datorren batzarrean ortaz zerbait erabagi artzea pentsatu da.

Oi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN

\* \* \*

**1967 - II - 24**

Donostian, 1967-ko otsaillaren 24-an.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Isaac López-Mendizabal euskaltzain ohorezkoa, Arrue, Xabier Diharce (Iratzeder), Gorostiaga, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Lojendio, Villasante eta Zabala euskaltzainak; Aita Altuna, Artola, Barandiaran (Aita Emiliano), Beobide Carrasquedo, Etxaniz, Garmendia (Juan), Lasa (Mikel), Lizundia, Loidi, Olaizola, Oleaga, Sarasola eta Zatarain euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre eta Erkiaga jaunak ezin etorria adierazi dute. Oitura dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Ilbeltzeko biltzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Irigaray jaunak adierazi du Julio Caro Baroja euskaltzain laguntzailerekin mintzatu dela Ministerio de Educación y Ciencia'ra euskera eskoletarako eskariz egin genuen idazkiari buruz eta bera ere laguntzeko gertu dagoala, ta orren alde zerbait egingo lukeala Real Academia Española'koan bidez. Gure eskariaren kopia bat Caro Baroja jaunari bialtzea erabaki da.

Idazkariak aditzera eman du Monzon jaunari idatzi ziola, esanaz, bere Euskaltzaindiko izendatzeak ez duela zer ikusirik izan «indulto» legearekin.

Erkiaga diruzainaren karta bat irakurri da, diruzaintzari dagokion arloko argitasunik ez garbitasunez oraindik iñork ez diola agerrerazi, esaten duena. Erabagia artu da diru-kontu guzien berri berari ematea. Irigoyen'en esku gelditu da Bilboko kaxakoaren berri ematea, eta Irigaray'en esku Donostiakoarena. Baita ere, erabagi da Erkiaga jaunari kartilla bietan izena ematea.

Zenbait kartaren berri eman da. Juan Garmendia (Zeleta)-ren karta irakurri da adieraziz Sagartzazu'tar Kauldi (Satarka) euskaltzain laguntzailerean euskal-olerti urre-ezteiak diranez omenezko jai bat antolatze-ko. Ontzat artu da, eta Artola (Bordari), Anai Berriotxo, Loidi eta Valverde izendatu dira omenaren eratzaille.

Euskera eskoletan jartzeko eskariari buruz mintzatu da, eta Ministerioari audientzia eskatzea erabagi da ortarako izendatu zan komizionea personaliki mintzatu dedin. Komizio orretara Caro Baroja ta Pedro Irizar Madrillen bizi diran euskaltzain laguntzailleak ere sartzea erabagi da. Baita ere Santamaria jaunari Zaragueta jaunarekin ortaz mintzatu dedin.

Gai ontaz Villarreal de Urrechua'ko Ayuntamentuak Euskaltzaindiari egin dion agiria, eskariaren alde agertuaz, irakurri da.

«Kirikiño» sariaren berri eman da, adieraziz lehenbiziko saria «Joxe Proletario» ipuiari eman zaiola ta bere egillea Juan Antonio Letamendia dala. Xalbador Garmendia, Anastasio Albizu eta Jose Basterretxea jaunari aipamen berezia eman zaiotela.

Lafitte jaunak aipatu ditu, X eta XV-garren mende arteko euskaltzainak, Eugène Goyheneche euskaltzain laguntzailleak agertu-berri dituenak. Irigoyen'ek Arana-Goirik argitaratu zituan izenetatik larogeiren bat aukeratu dituala, geien sustraitu diranen artekoak. Ortarako, Euskaltzaindiak jatorrenak autatzeko, batzorde bat izendatu da, Lafitte, Irigoyen, Irigaray, Zatarain eta San Martin.

Donostiako Colegio de Abogados'eko karta bat irakurri da, eskatuz, Euskaltzaindiak moldatu ditzan auzitegian euskera gaztelerara itzuliko dutenak. Notaria eta Juzgadueta euskeraz dakiten lege-gizoneri bidea ematen alegintzeko eskatzea pentsatu da. Arrue jauna izendatu da Colegio de Abogados'ekin personalki mintzatzeko.

Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País'koak laguntza eskatzen digute batzar nagusi bat eratzeko. Gaiaren oinarria euskalkieri buruz izango litzake, «Atlas lingüístico» bat gertatzeko bideak jartze alde. Luis Mitxelena euskaltzainak aukeratutako gaia omen da. Laguntzeko gertu gaudela erantzun bekie Irigaray jaunaren bidez.

Euskaltzaindiaren urre-ezteiak antolatzeaz jardun da. Batzarkide guziri eskatu zaizkie gertatzen ioateko ideiak. Zenbait gauzaren artean lan berezi batzuek argitaratzea komeni zaigula esan da; adibidez, Altube zanaren **Erderismos** eta **La vida del euskera**. Orain bi urte, San Martin'en bidez «Añamendi» Argitaldarikoeri eskatu zitzaion oiek argitaratzea eta zertan diran galdetzea pentsatu da, berek argitaratuko ez badituzte besteren bati emateko.

Villasantek esan du Mendizabal jaunak gramatika bat duela gertaturik, euskeraz egiña, eta Euskaltzaindiaren urre-ezteiak direla-ta argitaratzeko biderik balego pozik utziko lukeala.

Euskaltzain buruak eskatzen du, billera bakoitzean, ordu-erdiren bat gutxienez euskeraren estudioz jardun bear ginaikela. Ontzat artu da. Bakoitzak duenetik edo ari danetik ekarri dezala, baldin besteen iritzia naiko baluke.

Gorostiaga jauna mintzatu da, egiten ari dan **Diccionario Etimológico Vasco** lanari buruz. Azalpen bat egin du zenbait exenplu agerreraiz.

UNESCO'ri Ministeriora egin dan eskariaren kopia bat bialtzea erabagi da.

Asimil'ek, bere izkuntza irakasteko sistiman euskerazko metodo bat egingo omen du.

Altuna jaunak galdetu du aspaldiko asmoa dan izlauzko antologia ia nola dagoan. Eta, San Martin'ek erantzun dio, denboraren faltaz oraingoz geldi dagoala, baiña aurrera eramateko asmotan dala. Bitartean,



beren ikastaroetarako era ortako zerbait nai dutenak zerbidu bidez: P. Laffite'ren **Euskaldunen Lorategiaz** (Baiona, 1931), Fr. Ignacio Omaechevarria'ren **Euskera** (Zarautz, 1959), eta K. Echenagusia'ren **Euskal idazleen lorategia** —Bizkaieraz— (Derio, 1965).

Oi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN

\* \* \*

1967 - III - 25

Donostia, 1967-ko epaillaren 25-ean.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Dassance, Gorostiaga, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Satrustegi eta Villasante euskaltzainak; Altuna, Artola, Barandiaran (Aita Emiliano), Beobide, Etxaniz, Garmendi (Salbador), Juan M.<sup>a</sup> Lekuona, Lizundia, Loidi, Oñatibia, Oregi, Santamaria, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Eppherre, Garmendia (Juan) eta Oleaga'k ezin etorria adierazi dute. Oitura dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Ondorean, beste gabe, euskaltzain buruak adierazi du Mitxelena euskaltzainak nola Lingüística Indo-Europea katedra irabazi duen Salaman-ka'ko Unibersidadean eta batzarkide guzcion izenean zorionak ematea es-ku du. Ago-batez ontzat artu da.

Satrustegi jaunak gogorazi du Nafarroako Diputazioneari zorionak eman bearra euskera eskoletara eramateko artu duen erabagiagaitik.

Lizundia jaunak, «Gerediaga» alkartearen izenean, zilarrezko bandeja bat eman dio «Kirikifio»ren omenezko sari berezia irabazi zuen Salbador Garmendia'ri.

Irigoyen jaunak aditzera eman du, Erkiaga jaun diruzainarekin nola izan duen kontuen argitasunak ematea eta Diru-etxeetako kartilletan oni firma jartzea.

Idazkariak irakurri du Erkiaga gandik jaso duen diru gora-berazko argitasuna. Onela da:

**ONDASUNEN ETORBIDEAK:** Oiturakoak, Junta de Cultura de Vizcaya'k 10.000 peseta; Bizkaiko Diputazioak 100.000; Bizkaiko Ahorro Kutxak 10.000; Bilboko Ahorro Kutxa Munizipalak 5.000; Gipuzkoako Diputazioak 5.000; Gipuzkoako Ahorro Kutxak 5.000; Nafarroako Diputazio Foralak 10.000. Guztira: **145.000 peseta** urteko.

**BEREZIKI:** Bizkaiko Ahorro Kutxak 10.000 peseta Literatura sarirako (Nobela-saria «D. Agirre», «T. Alzaga» Teatru-saria); Gipuzkoako Ahorro Kutxak 10.000 peseta Literatura sarirako («Lizardi» olerki sarirako 5.000, eta «Xenpelar» bertso-paperen sarirako 5.000). Iñoiz eman izan dute Donostiako Ahorro Kutxa Munizipalak eta Donostiako Udal-efteak

Oiez gaiñera zenbait diru jasoten da EUSKERA aldizkariaren ar-  
tzaileetatik; Liburu salketatik eta iñoren sari ta emankizunak.

ERALGIPENAK: Burego zuzendariari 70.000 peseta urteko; buregoko  
andereño laguntzaileari 36.000 urteko; etxe-garbitzaileari 3.000; Etxe-  
-errenta 6.200; argia 3.000; ura 300; telefonoa 1.100; berokiña 100; Bulego  
gaiak 2.000; errebisten ordainketak: «Gure-Herria» 185; «Pan-pin» 2.500;  
«Auspoa» 1.680. Ureteko gastoak, guztira: **90.065 peseta**.

OARRAK: Azkenengo EUSKERA urte biri dagokiona argitaratu izan  
da. Ordaindurik dago = **162.797 peseta**, 1.134 alegaitik (Ellacuría, Bilbao).

Eguneroko ta baita osotakoak eroateko ere, Euskaltzaindiaren etxean  
KUTXA TA BANKUETAKO liburu zabala ekinen dabil. Ordaindutako  
fakturak ere, emen daude egoki josita.

Donostiako Diru-etxeetan eta dagoen ondasunen berri, Esnoz, Iriga-  
ray eta Mitxelena jaunak eman oi izan dute, noiztik noizera. Illero egin  
bear litzake.

KUTXAN ETA BANKUETAN, ONDASUNEN EGOERA: Bilboko Aho-  
rro Kutxan 5.136,66; Bizkaiko Ahorro Kutxan 10.120,85; Bilboko «Banco  
Guipuzcoano»an 19.493,86. Guzira: **34.751,37 peseta**. (Kontu oietan, 1967-3-  
13'garrenetik firma bi biar dituzte, Erkiaga-rena ta Irigoyen-ena).

Banco de San Sebastián —Donostia— **194.001,60**; Bauku berean «Gero»  
liburuaren azken-argitalpeneko kontuan dagoena **26.196,21**.

Kutxan: Bilbon 2.564,80; Donostian 504,25. Beraz, guztira **3.069,05**  
peseta.

Bilbo eta Donostian, dirutan dugun guztia: **258.018,23 peseta**.

Onela dira Erkiaga jaunak Epaillean ematen dizkigun kontuen ar-  
gitasunak.

Idazkariak aditzera eman du Toribio Etxebarria euskaltzain lagun-  
tzailearen karta bat izan duela, adiskide gisan, esanaz Euskaltzaindiko  
guzieri eskerrak emateko, ta bereziki Alfonso Irigoyen'i, bere **Lexicón**  
**del euskera dialectal de Eibar** lana (EUSKERA, X-XI, 1965-1966) argi-  
taratzeagaitik.

Idazkariak, egin diran gutunen berria eman du: Ministeriora audien-  
tzia eskatzen; Caro Baroja jaunari ta «Unesco»ri Ministeriora egin zan  
eskariaren kopiak bialduaz; Zatarain deituraren berriak eskatzen ziguten  
karta, USA'tik artua, Zatarain euskaltzaindikoaren estu utzi zan.

Lazkaoko (Gipuzkoa) udaletxearen idazki bat irakurri da Euskal-  
tzaindiak Ministeriora egin zuan eskabideagaitik eskerrak emanaz.

Caro Baroja euskaltzain laguntzailearen gutun bat, Madril'dik artua,  
nun esaten duen guk Ministeriora egindako eskariaren kopia ta gure  
karta artu dituela ta ar-emanetan jarri dela Vicente García de Diego  
jaunarekin ta beren aldetik egiten dutenaren berri emango dizkigutela.

Idazkariak esan du apirilaren 23'an euskaltzain-buru den Manuel  
Lekuona jaunari omenaldia egingo diotela bere ikasle izan ziran apaizak  
eta Oiarzungo erriak eskeiña eta ongi litzakeala zenbait euskaltzaindiko  
bertara joatea. Ondoren, Juan Oñatibia omenaren zenbait berri eman  
ditu.



Gipuzkoako Diputazioaren idazki bat, esanaz, urteroko dirua jasotzeko bearrezkoa zaigula urteko egintzen argi-bidea idazkiz presentatzea. Memori ori egiteko gelditu gera. Baita ere pentsatu da urte askoan sari berdina dugunez, geitutzearen eskaria egitea. Memoria gertatu ondorean Euskaltzaindiko komizio bat, Arrue ta Lojendio jaunak bertako direla, joan bitez personalki mintzatzeraz.

Garmendia (Zeleta) Barcelona'tik egindako karta bat irakurri da, esanaz an ots aundia eta onurakorra izan zuela Euskaltzaindiak Ministeriora egin zuen eskariak, ta katalanak ere bizkortu direla beren aldetik berdin jokatzeko. Bide-batez, eskatzen du, Mitxelena euskaltzainari zorionak ematea.

Idazkariak, Monzon-Olaso'neko Telesforo'ren karta baten berri eman du, esanaz gure gogo zintzoa ikusirik bere euskaltzain laguntzaille izendapena ontzat artzen duela eta inoiz Bayonan edo bilkurarik balitz gurekin izango dela.

Donostitik, korreoz, izenik gabeko sobre itxi baten 500 peseta etorri dira, orritxo batekin; orritxoan dio: «Euskeraren alderako».

Eguneko gaiari dagokionez, urre-ezteiez ideak erabilli dira: Lizundiak irakurri du «Gerediaga» alkartearen izenean orri bat, Euskaltzaindia sortzearen bearra Aristides Artiñano durangoarrak gogoratu zuela 1886-ko «Euskerazko Jaialdian», ta ori aintzat arturik zenbait gauza antolatzeke gertu daudela, batez ere erriari begira, ta literatura sariketa eta urtebirik-bat egiten ari diran «Euskal Liburu ta Diskoen Feria» Euskaltzaindiaren izenean eratu zezatekela. Orrezgaiñera, beste zenbait lekutan ere ongi litzakeala, Euskalerrian zear, kulturazko billera eta jaialdiak antolatzea. Ontzat artu da «Gerediaga»ren asmoa. Gaiñerakoan, beste tokietan zerbait egiteko, toki beretako eratzalle ta giroa bearko dira.

Irigoyen mintzatu da Azkue'ren izena Bilboko kale bati ematearekin, adieraziz geuk aurretik aukeratutako kale batentzat eskatu bear dala, edozelako kale edo lendik beste era batera deitzen zaion bat izan ez dedin. Ta, kalearen izen ofiziala urre-ezteietan jarri.

Euskaltzain buruak esan du, urre-ezteietarako eginkizunik onena Azkue'ren iztegia (gutxienez lehenbiziko tomoa) argitaratzea izango litzakeala ta ortarako Mitxelena jaunarekin mintzatzea komeni dala. Mintza bedi ortarako izendatua zan komizioa.

Ministeriotik ez da etorri, oraindik, audientziaren berririk.

Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País'koen batzar nagusiaren buruz ez da agertu idea berririk inoren aldetik.

Arrue jauna mintzatu da bertsolari txapelketari buruz, esanaz apirilaren 9'an izango dala Hernanin Gipuzkoako txapelketaren azken-aurrekoko saioa, ta azkena Tolosan 23'an, seguru-aski. Gero, Euskalerrri guziko, bear bada, Maiztezan.

Valladolid'ko periodistak eskatu dituzte euskeraren berriak. Ortaz zerbait dioten liburu ta aldizkariaren berri ematea pentsatu da.

Beobideren eskariz «Toribio Alzaga» teatru saria aldatzea komeni dala esan da. «Agora»k ortarako sari aundiagoa ematen duanez, egille oberenak «Agora»kora dijoztela ta «T. Alzaga»ra lan maxkalak bakarrik.

Orregaitik, bear bada, obe ditzakeala «T. Alzaga» saria errepresentaziorik geien egiten dituan antzerki taldeari edo errepresentaziorik onenak egiten dituanari ematea. Gauza ori erabagitzeko teatru lanetan sartuak dabilztenak dirala egokienak eta Labayen, Larzabal eta Beobide beraren eskutik utzi da estudio bat egitea.

Loidik esan du, diru eskariak egiteko, aurrez Banku-etxe guzietan kontuak irikitzea komeni dela ta era orretara kartak idatzi bearra firmak zertifikatuaz; erabagi denez, firma oiek, Irigaray, Loidi, Valverde eta Zatarain jaunak izango dituzte.

Loidi berak esan du Espainiako telebistak katalanezko antzerkiak ematen dituala ta ia zergaitik ez eskatu euskerazkoena. Batzuek diote, euskal antzerki taldeak ez daudela ortarako bear bezela gertatuak (au diotenak, ain zuzen ere, teatru lanetan sartuak daudenak dira), ta obe litzakeala, oraingoz, beste euskal gai batzuek eskatzea: euskal-kantak, bertsolariak eta abar.

Arruek dionez, aurren, bear bada TV'koak etorriko dirala Euskalerriko azken txapelketara.

Euskaltzain buruaren eskariz izkuntzaren alderako jakintza gaien txostenak dituzteneri eman zaizkie, irakurteko, bakoitzari amar minutuko beta. Lafitte jaunak egin du zenbait itz eta atzizkiri buruzko adierazpen jakingarria. Eta, Gorostiaga jaunak jarraitu dio aurretiko biltzarrean jardun zuen **Diccionario Etimológico Vasco** gaiari; ta urrengoan berriz jarraitzeko utzi du.

Irigaray jaunak esan du zenbait gazte direla oraingo Geografía Lingüística»ren estudioa egiteko gertu, ta joango diran tokietarako Euskaltzaindiaren agiri berezi bat naiko lutekela lagungarri. Ontzat artu da. Ta berek esango digute zer eratara egiña bear duten.

Irigoyen mintzatu da Bilboko ikastoleri buruz. Datorren kursoan, Bizkaian, berriak irikitzeo aukera ona izango omen da; eta giro ori aprobetxatzeko nolabait eragin bearra dagonez komizio bat autatu da: Erkiaga, Oleaga eta Irigoyen.

«Krisellu» taldearen eskariz, Euskaltzaindiaren izenean, antzerki ziklo bat eratu nai da Bilbon, Irigoyen'ek agerrerazten duenez, Brecht eta Salvat'en lanekin asiaz. Apirillaren 16'an «Krisellu»koak eratua ta gero, 23'an, «Jarrai»koak.

Literatura sariketarako juraduak eman dituzten beren erabagiak:

«Lizardi» izeneko olerki sarira Ibon Sarasola'ri, bere **Ez bat, ez bi, ez...** izena duen poemagaitik. Juraduko: Aresti, Artola (Bordari) eta Etxaniz.

«Xenpelar» izeneko bertso-paperen saria Inozenzio Olea'ri, bere **Nere jaiotetxea** gaitik. Juraduko: Arrue, Artola (Bordari), Irigoyen, Valverde, Zatarain eta Zavala.

Oitura dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN

## 1967 - IV - 28

Donostia, 1967-ko jorraitharen 28'an.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Satrustegi, Villasante eta Zabala euskaltzaiñak; Altuna, Aresti, Barandiaran (Aita Emiliano), Beobide, Etxaniz, Garmendia (Zeleta), Lekuona (Juan M.), Loidi, Olaizola, Oregi, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Arrue'k ezin etorria adierazi du.

Oitura dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Epailleko biltzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Mitxelena euskaltzainaren karta irakurri da zorion agiriagaitik eskerrak emanaz.

Caja de Ahorros y Monte de Piedad de San Sebastián'en karta bat irakurri da, nun esaten duen bost mila pesetako saria ematen diotela Euskaltzaindiari bere lanetan laguntze alde.

Beste karta bi Bizkaiko Diputazioarenak, urteko saritzat 50.000 peseta eta Azkue'ren iztegia berriz argitaratzeko laguntzarako beste 50.000 peseta ematen dituztela esanaz.

Industrias Gráficas Valverde'tik kontu bat artu da: 11.938,85 pesetako Euskaltzaindiarentzat egin dituzten diplomagaitik.

Irigaray, Lojendio, Loidi eta Erkiaga jauneri Banco San Sebastián eta Banco Guipuzcoano'an Euskaltzaindiaren izenean diru kartilletan firma ematea erabagi da.

Lizundia euskaltzain laguntzaillearen gutun bat irakurri da. Bertan eskatzen du Arabako Diputazioari eskaria egin bear litzakeala Aramaio'ko errian eta bai Gazteiz'en bertan euskeraren alde zerbait egin dezaten; bata oraindik erri euskalduna dalako eta bestean ainbat euskaldun bizi diralako. Ontzat artu da.

Berriz (Bizkaia) erriko udaletxetik karta bat artu da bertara egin zan euskal eskoleri buruzko eskariari erantzunaz. Baiña, gure aldetik, ez zan egin ezetarik eskaririk. Uste da okerre bat dagoala gauza onetan.

Beobide'ren txosten bat irakurri da, antzerki sariak iru maillatakoak bear dirala esanaz: 1) Antzerkiak geien aldiz ematen dituan taldearentzat; 2) Euskeraz sortutako antzerkirik geien ematen dituan taldearentzat; 3) Antzerki desberdiñik geien agertzen dituan taldearentzat (naiz euskeraz sortuak izan edo naiz euskerara itzulitakoak). Gauzak nola eraman bear diranari buruzko zenbait puntu jartzen ditu. Ontzat artu da, baiña aurretik ortarako izendatua zan komizioko irurak berriz zerbait aztertzeke utzi da. Beobide, Labayen eta Larzabal jaunak dira komizionario.

Aresti'k, azalpen bat egiñaz, Azkue ta Barrutia dirala-ta izan dan zer esan baten argitasunak eman ditu, oientzat bere gogorik oberena adieraziz.

R. S. V. Amigos del País'koak eratzekotan diran «Atlas Lingüístico»ari buruzko billeran zer egin ditzakeanari buruz jardun da. Erderazko testu bat gertatzea pentsatu da, gero Euskaltzaindiak euskalki guzietako la-

guntzailleak dituanek, guzien artean kopiak zabaltzeko dei egiñaz bakoi-tzak bere euskalkira itzuliaz bete dezan. Lafitte jauna gelditu da testua autatzekotan.

Altuna'k txosten bat irakurri du «-eta» atzizkiari buruzkoa.

Larzabal'ek iztegiari buruzko zenbait adierazpen egin ditu.

Buruzagiak esan du txostenen kopia bat Euskaltzaindiko artxiboan gorde bear litzakeala, ta premiñazkoenak EUSKERA'n argitaratu. Ondo-rean, bere aldetik irakurri du «-di» atzizkiari buruzko txosten bat lan-daretatik kanpo ere «-di» atzizkia zenbait sustantibotan ere arkitzen dala adieraziz.

Donostiako udaletxeak kale izen guziak erderaz eta euskeraz jartzeko asmoak dituala esan da eta oso pozik entzun da berria.

Oitura dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
**MANUEL LEKUONA**

**Idazkaria**  
**JUAN SAN MARTIN**

\* \* \*

**1967 - V - 26**

Donostia, 1967-ko maietzaren 26-an.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Erkiaga diruzaina; Isaak López-Mendizabal euskaltzain ohorezkoa; Arrue, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Satrustegi eta Villasante euskaltzainak; Altuna, Beobide, Etxaburu, Etxaniz, Garmendia (Joan), Goikoetxea (Joan), Olaizola, Oleaga, Oñatibia, Oregi eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre, Mitxelena eta Xabier Gereñok ezin etorria adie-razi dute.

Oitura dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Jorrailleko biltzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu.

Nafarroako Unibersidadetik artu den idazki bat irakurri da, Ana M.<sup>a</sup> Etxaide'k egin duen «El castellano de Orio. Estudio sobre lengua tradi-cional e importada» izeneko dotorautza-tesisaren berri emanaz. Ana M.<sup>a</sup> Etxaide-koari zorionak ematea erabagi da.

«Euskal-Kulturaren Alde» alkartearen gutun bat irakurri da Aita Onaindia'k «Agirre-Saria» irabazi duela aditzera emanaz, **Gure bertso-lariak** saiakeragaitik; illaren 25'ean emango zaiola-ta dei egiñaz Euskaltzain-dia ere bertan agertu dedin. Haritschelhar jauna, Euskaltzaindiaren bu-ru-ordezkoa an izan zen gure izenean. Aita Onaindia Euskaltzaindikoari zorionak ematea erabagi da.

Baita ere, batzarkide batzuen eskariz, era berean, Alfonso Irigoyen euskaltzainari zorionak ematea erabagi da, Bilbon eta Iruñen irabazi dituen olerki-sariengatik.

Erkiaga jaunak eman du Epailleko ta Jorrailleko diru-gorabeeren argitasuna: Bilboko Kutxetan eta Bankuetan zegoana, 37.316,17; geitua, 107.634,17; urritua, 28.723,71; dagoana, 116.226,63. Zertzeladarik aipagarrie-

nak: geituetan, Bizkaiko Diputazioaren urteko emaitza (1967-koa) 100.000 (1/2 Azkueren iztegi-alde); Espasa-Calpe S. A.-gandik, Azkue zenaren eskubideagaitik, **Euskalerriaren Yakintza**-zkoa, 3.464. Urrituetan, Irigoyen jaunari ta Larrañaga andereñoari, bi illabete oietako eskupekoak 14.000, «Xenpelar Saria», bertso-papereri (1966 urtekoa), 5.000.

Lafitte jaunak «Atlas Lingüístico»-rako gertatu duen textoa irakurri du Haritschelhar jaunak, irantsesez eta espainiolez, ta ontzat artua izan da. Multikopiaz edo inprentaz kopiak etarata euskaltzinkido guzien artean, eta ortaz lana egin nairik eskatzen dutenen artean zabaltzeko, ba-koitzak bere euskalkira itzulia biali dezan.

Bizkaiko Diputazioaren aozko galdea izan da Azkue'ren iztegi-az. Datoren urtean, Euskaltzaindiaren urte-azteiak bide, lehenbiziko tomoa argitaratzea gura dala erantzutea pentsatu da.

Arrue jaunak eman du Bertsolari-txapelketaren berri, ortarako izendatua den batzordearen izenean: Garagarrillaren 11'an izango da Donostiako Anoeta frontoian Euskalerriko azken-txapelketa nagusia. Maiburua osatuko dutenak: 4 gipuzkoar eta biña mugazandik, Nafarroatik eta Bizkaitik. Saioa jokatu-ko duten bertsolariak: Uztapide, Lazkao-txiki, Xalbador, Mattin, Arozamena, Narbarte, Lopategi, Mugartegi, Garmendia ta Gorrotxategi.

Oleaga jaunak adierazi du Bilbon sortu berri dan «Asociación para el Fomento del Vascuence» alkarteak, Euskaltzaindiarekin ar-emanu gura duela, alkarren laguntzarekin euskeraren alde lan egiteko. Ontzat artua izan da, ta oraingoz Oleagaren bidez egin bedi ar-eman ori. Alkarte onen araudiaren kopia bat utzi du Euskaltzaindiarentzat.

Nafarroako Diputazioari zorianak ematea erabagi da berak illero egiten duen «Príncipe de Viana» izeneko euskerazko aldizkariagaitik.

Euskaltzaindiko komizione batentzat Ministeriora barriro audientziaren eskabidea egitea erabagi da. Aurretikoaren erantzunik artu ez denez, orain, Pedro Irizarren bidez Ministerioko erregistroak zertifikaturik. Euskalerrian bilinguismoa ofizialki ar dezaten Ministroarekin personalki mintzatzeko, igazko azaroan idazkiz egin zan eskaria bide.

Irigaray jauna, bere aldetik, mintza bedi J. Caro Baroja'rekin, ia zertan diren Real Academia Española'koak.

Etxaburu jaunak ikastoleri buruzko txosten bat irakurri du. Bere eskola-liburu bat eskeintzen dio Euskaltzaindiari. Oso pozik entzun da, eta, oraingoz, bego bere eskutan.

Idazkariak esan du, ortarako, ikastolekin ar-emanetan jarri bear gerala, Julene Azpeitia, Xalbador Garmendia eta Etxabururen eskola-textuok eurak ikusirik, geien komeni diranak nolabait argitaratzen asteko. Eskola-textoak bear ditugula ainbat laisterren eta ez dagoala itxaroterik, naiz txarrak izan, ondorengo argitalpenetan obekuntzak egiteko asmoz.

López-Mendizabal jaunak esan du aurki argitaratuko dela aspaldiko bere **Umearen laguna**, 1931'n Zabaloren edergailluekin argitaratu zena ta aintziña aitua.

Olaizola jaunak esan du Donostiako udaletxeak uriko kaleeri erdel-izenen ondorean euskal-izenak jartzeko erabagia artu duela, ta ongi



litzakeala erabagi orregaitik zorionak ematea. Ontzat artu da eta bijoaz gure zorionak Donostiako udaletxearentzat.

Zatarain jaunak irakurri du iztegi kaletarrari buruzko txosten bat, jatorrizko itzak jator zelan obeto autatu, bere aburuz.

Erkiaga jaunak irakurri du beste txosten bat oraingo idazleen anarkiari buruz, aldizkarien zuzendarieri dei egiñaz. Bere eskariz, zabaldu bedi idazki ori euskal-aldizkarietara, biltzarrean ontzat artua izan dan bezela.

Oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
**MANUEL LEKUONA**

**Idazkaria**  
**JUAN SAN MARTIN**

\* \* \*

**1967 - VI - 30**

Donostia, 1967-ko garagarrillaren 30-ean.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru dana, Diharze (Iratzeder), Irigoyen, Mitxelena, Labayen, Larzabal, Satrustegi, Villasante eta Zabala euskaltzainak; Etxaburu, Etxaniz, Garmendia (Zeleta), Goikoetxea, Jauregi (Luis), Loidi, Oñaitibia, Zatarain, Zubikaray eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Erkiaga, Irigaray, Lojendio, Olaizola eta Oleagak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Buruzagiak ongi etorri berezia egin dio Mitxelena jaunari aspaldiko ordezkari gure artean ikusteagatik.

Ondoren, Mitxelena jaunak iztegiari buruzko argitasun batzuk eman ditu. Berak, orain, Salamanca'n egon bearra duanez, bere lana aurrera eramango badu Donostian edo ordezkari bat izendatzea eskatzen du, berarekin ar-emanan izan dezan, premiazko dituan gauzak ihardesteko. Uste du iru liburutan argitaratzea obe dala eskuartearen erabiltzeko neurri ohea izan dedin, ta gainera 25 x 15 zentimetru inguruko neurrian. Lanak obeto begiratuko ditu eta erantzungo digu ia lehen tomoa datorren urtean argitaratzeko biderik izan lezakean.

Ministerio de Educación y Ciencia'ra audientzia eske berriz egin dan gutunaren kopia irakurri da. Kopia au Ministerioko sekretaritzan seillatua dator. Pedro Yrizar euskaltzain laguntzaillearen bidez egin da eta bere karta ere irakurri da. Yrizar jaunari eskerrak eman bekioz bere lanagatik.

Donostiako «Colegio de Abogados»tik, Muguruza jaunak izenpeturik, gutun bat jaso de lehenago ari giñan euskal-erdal itzultzaileeri buruz, beren aldetik aurrera eramateko erabakia artu dela esanaz, eta gure laguntza eske. Arrue ta Lojendio euskaltzain lege-gizonen eskuetan uztea erabaki da.

Gernika'ko Azkunaga alkate jaunaren agur bat, an izango duten Jose Maria Codon-en itzaldira dei egiñaz.

Bayonako «Irazkintza»ren idazki bat, beren euskeraren alderako asmoak adieraziz.

Nájera'ko Santa María de la Real delako komentutik aita Luis Esnal'ek idatzi du euskal-musika batentzat letra eskatuaz.

Iruñeko ikasle andana batek Irigaray jaunaren bidez Euskaltzaindiari egiten dien gutuna irakurri da, iztegi modernu baten eskea egiñaz, egunoro kalean bear diran itzekin ta itz tekniku-zientzifiku arruntenez orniturik. Ain zuzen ere aurrera daramate iztegirako aspaldi izendatu zan batzordekoak, ta Loidi bertako idazkariak zenbait berri eman ditu, berek ortaz San Telmo'n astero izaten dituzten billerena, «C» letrara iritxiak direla esanaz. Dena dela, gazte auek erakusten digute beren euskeraganako gogoia ta bearra. Era berean, zeatz, Helena Gerezaga'ren idazki bat ere irakurri da.

Errenteriako S. D. C. Erentza alkartearen gutun bat, berek Madalenetan eratuko duten ipui sariketarako maipurukoak eskatuaz. Juan Maria Lekuona, J. A. Loidi eta A. Valverde izendatu dira.

Lafitte jaunak «Atlas Lingüístico»rako gertatu zuen testua frantsez eta espainolez multikopiaz aterea dela aditzera eman da. Euskaltzaindiako arteen zabaldu da, baiña beren euskalkietara itzultzea nai duten guziori emateko prest gaudela esan da.

Zabala jaunak eman du (Arrue jaunaren ezin etorria adierazi ondoren) Bertsolari Txapelketaren berri: Uztapide berriz ere txapeldun atera dala esanaz, eta Xalbador bigarren, Lopategi irugarren eta Lazkao-txiki laugarren. Diru kontuak zeatz urrengo biltzarrean emango dirala. Batzordekoak eta maipurukoak izan dituzten arduregaitik bazkari bat eskatu da ta ontzat artu da.

Labayen jaunak irakurri du **Euskal Teatroaren iztegia**'ri buruzko txosten bat.

Beobidek aditzera eman du uztailaren 16'tik 18'ra antzerki ikastaroak izango dirala Zaldibarren (Bizkaia) «Gerediaga» alkarteak antolatua.

Ministru jauna Donostiara etortzeko denez, audientziarako izendatu zen batzordeak une ori aprobetxatu bear lukeala bilinguismoari buruz personalki mintzatzeko.

Oñatibia'k dio irakasle izan nai dutenentzat ikastaroak eratu dituztela udara onetarako, ta ongi litzakeala esamiña baten ondorean Euskaltzaindiak irakasletzarako agiriak ematea.

Baita ere aditzera eman da Zumarraga'ko Ayerbe jaunak era orretako agiriren bat nai duela beretzat, euskal-klaseak ematen diardualako.

Idazkaria euskaldunen alfabetatzeari buruz mintzatu da. Lehendik izendatua zen batzordera Rikardo Arregi geitzea eskatu du. San Telmo'n (Donostian) Euskaltzaindiak duen ofizinan lekua eskatu du alfabetatzarako burego lana an egin ahal izateko. Eta azkenean baimena alfabetatze kanpaña onetan «Euskaldunak euskeraz: irakurri, itzein, idatzi» slogana ere guzietan zabaldu ahal izateko. Slogan au erabiltzea eta Rikardo Arregi euskaltzain laguntzaillea komizioan sartzen ontzat artuak izan dira, baiña San Telmo'ko ofizina tokia uztea Real Sociedad Vascongada de Amigos del País»koeri eskatu bearko litzaiokeala esan da. Beraz, idaz-



karia gelditu da Alvaro del Valle Lerchundi jaunarekin personalki mintzatzekotan.

Berriz ere aurren ikastoletarako eskola-liburueri buruz jardun da. Idazkariak aditzera eman du, personalki mintzatu zala Santo Tomás de Aquino'ko irakasleekin eta maisu ta maistren irizpide desberdiñak ikusi ondorean, uste duela aietarikoak ere ikastoletarako textuak autatzeko sortu zen batzordean sartzeko premia dagoala, ta ahal izatera irizpide bietarako liburuak aukeratu.

«Atlas Lingüístico»a osatzen joateko multikopiaz atera diran orriak zabaltzea Euskaltzaindiko guzieren eskatzen zaie. Itzulpenak bildu ta gero inork bete gabe gelditu diran euskalkiak osatzea istudiatu bear litzakeala esanaz.

Biltzarretan irakurtzen diran txostenak artxibu berezi batean gorde bear litzazkela eta batzorde bat edo izendatu lanik onenak eta bearrezkoenak EUSKERA aldizkarirako autatzeko.

Oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
**MANUEL LEKUONA**

**Idazkaria**  
**JUAN SAN MARTIN**

\* \* \*

## 1967 - VII - 28

Donostia, 1967-ko uztailaren 28-an.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lojendio, Satrustegi eta Villasante euskaltzainak; Artola (Bordari), Barandiaran (A. Emiliano), Beobide, Etxaniz, Garmendia (Juan), Garmendia (Xalbador), Lekuona (Juan M.<sup>a</sup>), Lizundia, Olaizola, Oleaga, Saizarbitoria eta Zatarain euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre eta Erkiaga euskaltzainak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Garagarrilleko biltzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Aita Onaindia eta Ana M.<sup>a</sup> Etxaide-k eskerrak emanaz idatzi dituzten gutunen berri eman da. Etxaburuk «Gizon on bat» idazkia Ondarruako euskalkira itzulia igorri du gutun batekin bere ezin etorria adieraziz, eta karta berean die: «Euskaltzaindiaren azken batzarreko agirian «andana» itza irakurri dot. Ezdet uste «grupo» lez agertzeko egokia danik». Baiña mugazandiko euskaltzainak berek orrela erabiltzen dutela diote, ta buruzagiak dio Oiarzunen «endana» erabiltzen dutela talde, aldra edo illara adierazteko. Azkue'n iztegiak ere era onetara dakar «andana», hilera, fila, tropa.

Tudelako Colegio de San Francisco Javier'etik Aita Gillermo Larrañaga'ren gutun bat artu da irakaskuntza gaietarako gertaturik dituan liburuak eskeiñiz: Landare-jakintza, abere-jakintza, giza-soiña, bizi-jakin-

tza, genetika, mineral-jakintza, ta abar. Bakoitzaren kopia bana eska-tzea erabaki da.

Aita Emiliano Barandiaran'ek **Eresi ikasbidea** izeneko liburu argi-tara gabea ematen du Euskaltzaindiarentzat.

Erkiaga'k igorritako ondasun egoera irakurri da, maiatzeko ta gara-garrilleko gora-beherekin: Bilboko diru etxeetan, zegoana 116.226,63 pe-seta; geitua 27.920,30; urritua 16.952,30; dagoana 127.194,63 peseta. Donostiako Banco San Sebastián'en «Gero» liburuarena 26.196,21, geitua 65,31 peseta, dagoana 26.261,52 peseta. Zertzeladarik aipagarrienak, geituetan 27.789 peseta, eta urrituetan 14.000 peseta. Arrue'k bertsolari txapelke-tako kontuen zeaztasunak eman ditu: jasotakoak 243.995 peseta, eman-dakoak 142.491,90 peseta, irabaziak 101.503,10 peseta. Batzordearen egin-kizunetarako eta bertsolari beartsueri, laguntzeko eskaria egin du. Irutik batekoa batzordearen eskuetan uztea erabaki da. Beraz, 67.670 peseta etxeko kutxa nagusirako dira, eta 33.833,10 peseta bertsolari-batzordoa-rentzat.

Esnoz, jaunak eman ditu Donostiako Banco San Sebastián'go kontu nagusiaren berri zeatzak: aurtengo ilbeltzaren lehenetik uztailaren oge-tazazpirarte, zegoana 504,25; geitua 52.504,25; urritua 52.321,85; kutxan dagoana 182,40. Bankuko kartillan, zegoana 197.794,30, geitua 22.000, urri-tua 37.000, dagoana 182.794,30.

Educación y Ciencia'ko Ministruak Donostian egingo duen udarako egonaldia aprobetxatuaz audientzia lortzeko bideak egitea erabaki da, berriz ere Euskalerriko eskoletarako bilinguismoa eskatzeko. Batzordo-ko diran Arrue, Astiz, Barandiaran, Irigoyen, Lojendio, Oleaga, Santa-maria ta abarren eskuetan uzten da.

Idazkariak esan du Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País'ko presidentia den Alvaro del Valle Lersundi jauna mintzatu zala berakin eta alkarte orrek ere Euskaltzaindiko batzordearekin batean eskari bera egin nai zuela adierazi ziola. Ministro jauna R. S. V. A. P.'ko ohorezko sozia denez bear bada bide egokiagoa dala-ta. Ontzat artu da, ta egin bedi audientziaren eskaera R. S. V. A. P.'koekin batean.

Irigoyen'ek adierazi du Bilboko «Colegio R. M. Azkue»k ikastola geitzea erabaki zuala eta lokal berria errentan artu duela asmu orrekin.

Euskaltzainburuak ikastoletako liburuak autatzeko izendatua zan bat-zordea berritzea eskatu du, lehendik ikastoletako lanetan sarturik da-biltzanekin, ta ortarako egoki litzakeala oietariko berri batzuetarik eus-kaltzain laguntzailleak izendatzea, adibidez: Pakita Arregi, Julia Berro-jalbiz, Pedro Berrondo eta Jazinto Fernández Setién. Asmu au ontzat artua izan da eta datorren biltzarrean zeatzago begiratzeko utzi da.

Baita ere, buruzagiak, Elbira Zipitria andereñoaren alde txalo berezi bat eskatu du, euskerazko ikastolen suspertzaille izatearren.

Satrustegik «di» atzizkiari buruzko txosten bat irakurri du, botani-kan, erri, toki ta beste zenbait joeratako izenetan arkitzen diranen argitasunak emanaz. EUSKERA aldizkarian argitaratzea erabaki da.

Juan Garmendia'k landaretan «di» atzizkia duten izenen lerrokada bat eman du.

Idazkariak, euskaldunen alfabetizazioari buruzko berriak eman ditu. R. S. V. A. P.'koak lan au aurrera eramateko tokia utzi dutela San Telmo'ko etxean. Euskaltzainkideen artean laguntza eskatzen du ikastaro lezioetatik aparte zenbait itzaldi emateko: X. Garmendia gertu dago lezioak emateko, euskaltzainburuak aozko literaturari buruzko itzaldia, Arrue'k Asteasu'ko Agirre'ri buruz, Villasante'k Axularri buruz edo mugazandiko literaturari buruz eta idazkariak Mogel'en euskeraz. Larzabal'ek mugazandik gai ontaz egin duten lana adierazi du.

Toribio Alzaga izeneko teatru sariketarako Larzabal, Beobide eta Aresti izendatu dira juradutzarako.

Satrustegik Sangotza'ko Bigarren Lore Jokoen berri eman du, aditzera emanaz aurtengoan euskerazko olerki sariketak ere izango dirala, batean bereziki Erronkariko euskeran. Orrez gaiñera Iruñen izango den Semana Internacional de Estudios'ek beste zenbait izkuntzen artean euskerazko meza izango dela illaren 31-an.

Idazkariak esan du, San Telmo'n Euskaltzaindiaren lanetan ari dan Nekane Apaolaza andereiñoari bitarteeetan egiteko lana eman diola ikas-toletarako irakurgaiak gertatzen: Iturriaga'gen **Ipuiak** oraingo ortografiaraz eta Azkue'ren ipui autatuak. Bigarren aukeraz **Euskalerriaren Yakin-tza**'tik jasoak diranez Espasa Calpe S. A.'ri baimena eskatu bearra dala, ta al izatera Euskaltzaindiaren urre-eztaietan liburu bat argitaratu. Ontzat artu da.

Beobidek Zaldibarren izan dan teatru ikastaroen berri eman du, esanaz askoren iritziak jaso dirala, Ricard Salvat maixu berezia izan dutela, eta geure euskal-teatruaren eskola sortu bearra dagoala Zuberoako pastoralak oiñarri arturik. Oso probetxuzko ikastaroa izan omen da.

Juan Maria Lekuonak dio bearrezkoa dela gaurko poesia sarituak argitaratzen gure literaturaren alderako. Idazkariak dio gure argitaldari ezagunenak ez dutela ortarako gogorik, zeren berak eskeindu omen zien orrelako lan bat. Baiña orain ba-dala aukera Kataluiñan bi izkuntzetara argitaratzeko ta lan orretan ari dela.

Zetarainek irakurri du «ar» eta «tar» zelan erabilli bear diranari buruzko txosten bat. Gogoz entzun dira bere iritziak.

Pío Caro Baroja jaunari eskerrak ematea erabaki da Espaiñiako Telebistaren bidez Bertsolari Txapelketari buruz egin duen lanagaitik.

Mitxelena euskaltzainaren osasunaren berri eman da, amabost egun dala urdailleko ebakuntza izan zuen, oso ongi atera zan eta ongi sendatuz dioa. Pozik entzun da berria.

Oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN

## 1967 - VIII - 25

Donostia, 1967-ko dagonillaren 25-ean.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru ordezeko, Isaak López-Mendizabal euskaltzain ohorezkoa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Mitxelena, Satrustegi eta Villasante jaun euskaltzainak; R. Arregi, Beobide, Etxaniz, Lete, Lizundia, Olaizola, Oregi, Saizarbitoria, Zatarain, Zubikaray eta Zugasti jaun euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre, Erkiaga eta Larzabal jaunak ezin etorri adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Uztailleko biltzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da. Mitxelena jaunak dio, agiri orretan Sangotza jartzen dala eta Erronkariko euskeran bildu zuanez Zankoa bear duela izan, eta Saraitzun Zangoza.

Yon Etxaide Euskaltzaindikoaren karta baten berri eman da, esanaz, bere aitaren liburuetatik, Euskaltzaindiaren liburutegian ez diranak, hakoitzetik ale bat emango lukeala. Ortarako, jakin bearra dago gure buruzagi izan zanaren liburuetatik zertzuk ditugun.

Gillermo Larrañaga josulagunagandik, Tudelatik, berak eskoletarako idatzi dituan liburuen kopiak artu dira. Eskola liburuak eratzeke izendatua den batzordearen eskuetan uzten dira. Egilleak bere baimena eman du batzordeak premiazko ikusten duan lekuetan aldakuntzak egitea.

Zenbait euskalkitako itzulpenak artu dira, «Gizon on bat» textuarena.

Mitxelena jaunak adierazi du Santamaria jaunak eman dion mandatuak: Ikastolak duan giroagaitik, oraingoz, ez dela une egokia andereñoak Euskaltzaindiko laguntzaile izendatzeko. Eta kalētar iztegi laburra, poliki, baiña aurrerañtz dijoala.

Madrilgo Espasa-Calpe, S. A.'ri Azkue'ren inui batzuk. **Euskalerriaren Yakintza'tik** artuak, argitaratzeko baimena eskatuz idatzi dala aditzera eman da.

Ministruarekin audientzia gertatzeko R. S. V. de los Amigos del País'ko buru dan Alvaro del Valle Lersundi jaunarekin izan dituzten alkarriketen berri eman dute Irigaray jaunak eta idazkariak. Eta, lan au bear bezala aurrera eramateko batzordearen arduradunak izendatzea pentsatu da, bat Bilbon bizi dena eta bestea Donostian bizi dena. Arduradun, Irigoyen Bilborako eta Zatarain Donostiarako izendatuak gelditu dira. Beren gain gelditzen da batzordekoekin bilkurak egitea eta R. S. V. A. P.'koekin ere biltzea, iraillean Ministru jaunarekin mintzatzeko bidea egiteko ta agoz eramango dan mandatuak betetzeko.

Irigoyen'ek Colegio R. M. de Azkue eta Bilboko gaiñerako ikastolen berri eman du.

Oregi jaunak, errietako Patronatoen aldetik eskoletako araudi berrian egin litekeanaren berri eman du, arratsaldetako eginkizunetan euskera sartzea bide dala esanaz, besterik ezean maixu edo maixtra ordezekoekin.

Idazkariak, Eibarren «A. P. E.» (Asociación Propulsora de Enseñanza) dalako patronatoa era orretan egiten ari dan euskeraren aldeko lanaren berri eman du.

Mitxelena jaunak eskerrak ematen ditu bere osasunaz izan dugun arduragaitik. Eta, ondorean, Baionan Allières jaunarekin, dagonillaren 18-an, «Atlas Lingüístico»ari buruz izan duten biltzarren berri eman du. Lan au aurrera eramateko, Bilbon ordezkari bat eta Donostian beste bat nai lituzke. Bilbon Euskaltzaindiaren etxeko bulegotik eraman genezake, eta, Donostian, Euskaltzaindiak San Telmo'n duen bulegotik (R. S. V. de los Amigos del País'ko zuzendaritzaren gelan). Oien lana izango da errietan ordezkari edo korresponsalak arkitzea eta oien artean Allières jaunak gertatzen dituan galde-erantzun laburrak banandu ta bildu.

Euskaltzain laguntzaille berriak izendatzea. Aurretiko biltzarrean aipatu ziren izenak ontzat artzen dira ta aiez gaitiera beste batzuk geitu. Beraz, auk izendatu dira: Pakita Arregi, Julia Berrojalbiz, Karmele Esnal, Arantzà Idiazabal, Pedro Berrondo, Jazinto Fernández Setién, Antoinette Lakarra, Emilio Larre, Michel Itçaina, Pierre Bordaçarre «Etxahun», Jesus Atxa eta Jabier Amuriza.

Rikardo Arregik Euskaldunen Alfabetatze kanpaina buruzko berriak eman ditu. Dagonillaren 27'tik agorraren 3'rarte irakasle izango diranentzat nola eratu diren irakastaldiak. Lanak zertan dauden eta gauza nola zabalduko den ere adierazi du. Ikastaro bukaeran, irakasle egingo duteneri, karneta emango zaiela esan da. Bertan izango diran gastuak Euskaltzaindiko kajatik ordantzea erabaki da.

Lizundiak jakifierazi du Bizkaiko Ahorro Kaiak ezpata-dantzaren zabaldunderako dirua eman duala eta idazki txapelketa bat izango dela euskeraz ezpata-dantza dela gai. Iraillaren 24'an Yurretan izango dan txapelketarako Irigoyen, Zubikaray eta San Martin izendatu dira maiko.

Xalbador Garmendiak Iztuetaren 200 urte betetzea aipatu du, eta bere ohorez Zaldibin izango diran jaialdiak. Itzaldi batzuek eratzeko Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen du.

«Toribio Alzaga» teatru saria autatzeko izendatuak ziranen izenean Beobide mintzatu da, esanaz, saria **Gizon on eta andre erre?** izenburudun lanari ematea erabagi dala. «Gazte-zar» darama olikatzat. Iriki da eta Agustin Zubikaray dala bere egillea ikusi da. Sari onen araudia aldatu bearra dagoala dio, libreago uzteko, ekitaldi bateko antzerkiak ere ontzat artuaz. Ontzat artua izan da.

Lete mintzatu da «Domingo Agirre» nobela sariari buruz; diru neurria geitu bearra dagoala dio, zeren urte asko pasa direla neurri berean eta. Irigoyen gelditu da Bizkaiko Ahorro Kajarekin mintzatzeko. Baita ere esan da, urrengo sariketetan nobela laburreri ere tokia eman bear zaiela, eta folio-orriak 50'ra gutxitzea erabagi da.

Beobidek esan du, iraillaren 3'rako «Txikito Kanbo» izeneko pastoral Donostiara ekarriko dala.

Haritschelhar jaunak aditzera eman du aurtengo «Euskaltzaleen Biltzarra» Baigorri izango dela buruilaren 7-an.



Irigoyen'ek dio Martin de Retana jaunak Azkueren lanetatik **Cancionero popular vasco** eta **Morfología vasca** argitaratu nai dituala ta ortarako Euskaltzaindiaren baimena eskatzen duela. Ongi iduritu da, baiña kondizioa jartzerakoan argibidezko zatiren batzuek ezartzeko premia adierazi bear zaiola, zenbait gauzaren oar eta zuzenketaren premia duelako.

Zatarain'ek Altamiraren folklore lan bat eta alemanez argitaratu dan Uhlenbeck'en liburu baten berriak eman ditu, euskera ta euskal kulturarekin duten zer ikusia adieraziz.

Ondorean, Zatarain jaunak «-Arr bukaera duten itz batzutaz» txos-tena irakurri du.

D'Ettxepare'ren liburua berriz argitaratzeko dan berria eman da.

Oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN

\* \* \*

**1967 - IX - 29**

Donostia, 1967-ko irraillaren 29-an.

Bildu dira: M. Lekuona buru, J. Harischelhar buru ordezko, Irigarav. Labayen, Lafitte, Larzabal, Satrustegi eta Villasante euskaltzaiñak; Aita Altuna, Amuriza, Artola, Beobide, Berroialbiz. Berrondo, Esnal, Garmendia, Idiazabal, Lete, Lizundia, Loidi, Olaizola, Oleaga, Oregi, Saizarbitoria, Sarasola eta Zatarain euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Eppherre, Irigoyen, Zavala, Atxa eta Santamaria jaunak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Euskaltzain buruak esan du, biltzarreko agiriaren kopiak denak ar-zen dituztenez, ez duela merezi biltzarrean berriz irakurtzerik. Aurretiko agiriari buruz inork ezer esateko eukitzera, aski dela ori adieraztea. Ongi iduritu zaie batzarkideeri.

Dagonilleko biltzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Villasante iaunak Aita Kandido Izagirre euskalkilari bikaiñaren il-berria eman du. Erronkari, Ultzama, Altsasu eta Tolosako euskalkien estudioak egiañak zituen eta lanetarik asko R. S. V. Amigos del País'ko «Boletin»-ean eta Urkixo Mintegiko «Anuario»-an argitaratuak. 1913'an Urretxun sortua zan eta il onen 12'an Arantzazun il (G. B.).

Idazkariak Colegio Provincial de Abogados'tik etorri zaigunaren be-rrri eman du berekin genitun «interprete» kontuko ar-emanak zertan dau- den galdetuz. Gara-garrilleko batzarrean erabaki zan bezala, Euskaltzain- diak bere barnean dituen legegizonen esku uzten du, eta Arrue'ri ematen zaio eskubidea Colegio-arekin personalki mintza dedin. Bide batez, Eus- kalerrian, juezetarako legegizon euskalduneri preferentzia ematea eska- tu bedi.

Quintana euskaltzain laguntzaillearen gutun baten berri eman da, ikastetxeeri euskera ta euskal kultura ordu libreetan sartzeko Euskaltzaindiak guziera deia egin dezan eskatuz. Baiña, Enseñanza'ko Ministro jaunarekin gauza berdintsuari buruzko solasean geranez, uste da, orain ez dela momentua alde orretatik jokatzeko.

Etxaburu laguntzaillearen eskola txosten bat eta karta luze baten berri ere eman da. Txostena, ikastola textuak autatzeko izendatua dagoan batzordearen eskuetan uzten da. Kartan, euskeraren alderako egin bear diran gauzak aipatzen ditu, gutxi gora-bera, EUSKERA, V-gn. liburuan, 171/177 orrialdeetan esaten zana (Bilbao, 1960). Baiñan Euskaltzaindiak ez du naikoa laguntza gauza oiek aurrera eraman aal izateko, eta oraingoz aal duenaren barnean jokatu bearko du euskeraren bizitzaren alde.

Eusebio Goñi'ren karta bat Xalbadorri omenaldia egin nai diotela esanaz, Donostiako erriaren izenean, artu da.

«Auspoa» liburutegiaren karta bat Iturriagaren ipuiak argitaratzeko laguntza eskatuaz. Ikastoletako textuak eratzeke izendatua den batzordearen eskuetan uztea erabaki zen.

Zatarain jauna mintzatu da Ministruakin audientzia egingo zutenen batzordearen izenean. Erderari miñik egiteke gertu daudela eskoletan cuskerari lekua eman al izateko eta sakon istudiatzekotan direla. Gai berari buruz, idazkariak irakurri du Santamariaren txostena, eta zenbait puntu jartzen ditu asuntua aurrera eramateko. Ortarako, batzorde bat izendatzea komeni dela eskola ta ikastaro prolemak ezagutzen dituztenekin. Santamaria, Juan Zaragueta, Jesus Atxa, Julia Berrojalbiz eta Karmele Esnal izendatu dira beren artean bilkura bat egiteko. Eta, Euskaltzaindiaren idazkaria gelditzen da, oraingoz, batzorde orren idazkari.

Batzarkide guziera, bakoitzak bere aldetik eman ditzaketen ideak emateko eskatzen zaie, eskoletan euskera zelan eramanari buruz. Harichelhar jaunak eman du Frantzian irugarren maillako eskola nagusietan egiten denaren berri. Loidi jaunak ere adierazi du Irun'go Institutoak egin nai duena.

Eskola textuak autatzeko lehendik izendatu zen batzordeari (Irigaray, Santamaria eta Zatarain jaunak betetzen zuten batzordea) Euskaltzaindiko izendatu berri diran andereñoak ezartzea erabaki da, eta baita ere Xabier Peña.

Loidik iztegi kaletarraren lanaren berri eman du, eta premiazkoena bultzatu al izateko, eskoletarako asmuz, Gramatika, Aritmetika eta Geographia iztegiak bizkortzea pentsatu dutela.

Don Pedro Berrondo jauna Euskaltzaindiak Donostian duen sekretaritzaren bulegoko lanak eratzeke laguntzaille izendatu da, Loidi ta San Martin'ekin batean eskuarteko lana eramateko.

Ministruarekin audientzia lortu zuan batzordeari eskerrak ematea erabaki da, ta bereziki Euskaltzaindiko ez diran Juan Zaragueta eta Alvaro del Valle Lersundi jaunari.

Juan Garmendia jaunak «Orix» zanaren omen-illobiaren berri eman du. Illobia egiteko nundik zenbat diru artu danaren zeaztasunak eman ditu. Baiña, oraindik, balio duena bete al izateko 25.000 peseta inguru



falta dirala. Santu guzien egunean, Donostian bertan, Euskaltzaindiaren izenean elizkizunak egitea erabagi da. Egun berean illobia lehen aldiz agertzea eta bedeinkatzea nai da.

Satrustegi jaunak Zankozako euskerazko sariketaren berri eman du. Era berean, Enrike Zubiri «Manezaundi» nafar idazlearen eun urte bete-tearen berri.

Jaun berak dio, Pío Caro Baroja'rekin mintzatu zela TVE'ko bertso-lari saioari buruz, eta ille batzuek barru, erosi al danean aditzera eman-gu duela.

Zatarain jaunak dio Delegación de Industria'ko zuzendaritzak bide bazterretako auto-señaleak erderaz eta euskeraz jarri nai dituela, eta euskeraz zelan idatzi bear diran galdea egiten duela. Iztegi kaletarra egiten ari diranen eskuetan uzten da.

Jaun batzuen eskariz, Euskaltzaindiko billeren berria, idazkariak berak zabaltu bear duela kanpora agertzeko gauzak bakarrik autatuz. Urrango batzarretik orrela egitekotan gelditu da.

«Txikito Kanbo» pastoralaren berri eman da. Iraillaren 24'an, Donostian, lehen aldiz izan da pastoral au.

Idazkariak Etxenagusia euskaltzain laguntzaillea egiten ari dan Gipuzkoako euskal idazleén izlauzko antologiaren berri eman du.

Baita ere, Mitxelena egiten ari dan Azkue'ren iztegi berriaren zenbait zeaztasun, esanaz, lana bizkortuko bada Mitxelenari batez ere lan materiala arindu bear zaiola laguntzille batzuek arkituaz.

Donostiako egunkariak egin zuten galdea aipatu da: «Plaza de la Trinidad» ia euskera iatorrean zelan esan bear dan Euskaltzaindiaren iritziz. Trinidadeko Plaza ondo dagola esan da, eta Trínidade Plaza obetoago.

Idazkariak, Irigoyen'ek Salamanca'tik egin dion kartaren berri eman du: Información y Turismo'ko Ministerioak «Rosalia de Castro» saria jarri duela aurten, 50.000 pesetakoa, gallegoz idatzitako poesia saritzeko «Boletín Oficial del Estado, n.º 199, 21-2-1967, 11791 orrialdea»-n dakarrenez. Igaz «Jacinto Verdaguer» saria eman zala katalanez, eta onsei litzakeala Euskaltzaindiak, datorren urterako. «Urre ezteiak» aintzak arturik, euskerazko poesia saritzeko eskaria egitea, lehengo poeta zarren baten izenean. Ontzat artu da eta Azkue'ren izenean edo eskatzea pentsatu da.

Oi dan otoiwarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN

\*\*\*

**1967 - X - 27**

Donostian, Diputazioaren jauregian, batzarre gelan, 1967-ko urrillaren 27-an.

Bildu dira: Lekuona buru, Satrustegi, Villasante, Barandiaran, Arrue, Erkiaga, Labayen, Irigaray eta Irigoyen euskaltzainak; Garmendia, Zatarain, Berrondo, Oregi, Amuriza, Juan Maria Lekuona, Beobide, Oleaga,

Berrojalbiz, Olaizola, Altuna, Sarasola, Oñatibia, Santamaria eta Etxaniz laguntzaileak.

Ezin etorria adierazi dute San Martin, Lojendio eta Loidi-k.

Zatarain-ek aurreko agiriaz esan du oker dagoela «Auto-señaleak erderaz eta euskeraz jarri nai dituela» dion frasea. Ontzat artu da gai-ñerakoan.

Berriketa luze bat izan da aurren eskola-texto batzuk argitaratzeaz. Batzordekoak mintza bitez aurretik.

Zatarain-ek dio jaun bat industriako iztegi, tekniko bat egiteko prest dagoela eta Euskaltzaindiaren itzalpean egingo lukeala. Ondo ikusten da.

Erkiaga-k diru kontuak aipatu ditu Iraillaren azkenean Bilbon zegoena: Banco Guipuzcoano, 97.952,70; C. A. V., 5.129,10; C. A. M., 5.226,83; etxean, 1.840,60.

Espasa Calpe S. A.-ren erantzuna. Ontzat artzen dute «Euskalerriaren Yakintza»-tik artutako ipuiak argitara ditzagun, iturria aipatzeko erretuaz.

Zubikaray jaunari aita il zaio. Dolu-miñak.

X. Gereño-ren karta. Epaikari bat eskatzen digu musika dakiena Euskalerriko Abestiaren IV Sariketarako. Ibon Sarasola izendatu da.

«Educación y Ciencia»-ko Ministerioari eskatuko zaion euskerazko poesia sariaz. Zeuden guztien artean botoak bildu dira izena erabakitzeko eta onela atera da: Orixe 13; Iparragirre 8; Arrese Beitia 1; ezture eman 2.

Arrue-ri zorionak ematen dizkio Euskaltzaindiak Korteetako prokuradore aukeratua izan baita azkenengo botazioetan. Itz batzukin erantzun du eskerrak emanaz.

Gipuzkoako Diputazioari eskerrak eman bekizkio emendik aurrerantzerako batzarre gela nagusia uzten baitigu bildu gaitezen eta baita Santiago San Martin jaunari Diputazioaren barruan ortarako egin duen bul-tzadagatik.

Satrustegi-k abenduko batzarrea Iruñean egiteko eskatu du. Eguna urrengo batzarrean aukeratuko da.

Euskaltzaindiak Bilbon duen etxea nola aundiagotu eta apaindu edo Bizkaiko Diputazioari egingo duen etxe berrian lokal bat eskatzeaz berriketa bat izan da. Elduago dagoenean ikus bedi. Bilboko Ayuntamentuari Azkue izenaz gaiñera Julio Urkijo izena ere kale bati jartzea eska bekio.

Erkiaga-k dio aurten dala Kandido Basabe Lekeitio-ko euskal idazle jatorraren eun urte betetzea.

Lekuona buruzagiak lan bat irakurri du «di» atzizkiaz.

«Zigor» operak irabazi duen ospe aundiagatik zorionak eman bekizkie Eskudero eta Lekuona jaunei.

Donostiako Ayuntamentuari eskerrak ematen zaizkio kale izenak euskeraz ere jarri dituelako.

Zatarain-ek lan bat «i» letraz bukatzen diran itzez.

Zeleta (Juan Garmendia) mintzatu da. Egun bi barru izango da Orixere-*ren* illobi egin berrian billera.

Besterik gabe oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da biltzarrea.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkariordea**  
ALFONSO IRIGOYEN

\* \* \*

1967 - XI - 24

Donostia, 1967-ko azaroaren 24-an.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, I. López Mendizabal euskaltzain ohorezkoa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Satrustegi, A. Villasante euskaltzainak; Altuna, Amuriza, Arkotxa, Barandiaran (A. Emiliano), Beobide, Berrojalbiz, Garmendia (Juan), Gereño, Goikoetxea (Juan), Etxaniz, Li-zundia, Loidi, Oñatibia, Oregi, Sarasola, Valverde, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Arrue eta Oleaga-jaunak ezin etorria adierazi dute.

Oitura dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Aurretiko agiria ontzat artu da.

Garmendia jaunak dio joan zan biltzarraren berririk ez zala eman «Zeruko Argia»-n eta merezi duela erabili diran gai-*ri* buruzko berriak ematea. Idazkariak dio irailleko biltzarrean erabagi zela egunkari edo astekarieri berriak berak zuzenki ematea, baiña ez zuela izan joan zan biltzarrera etortzerik. Ta, bere ustean ontzat artutako agiritik eman bear lirake berriak.

Eskudero jaunaren karta bat irakurri da, «Zigor» euskal operagaitik zorionak emanik egin zitzaion erantzunari eskerrak emanez.

«Consejo Superior de Investigaciones Científicas» (Servicio de Documentación de Organizaciones Científicas) erakundearen karta bat jaso da, Dr. Juan Roger Rivière jaunak izenpetua, Euskaltzaindiak argitaratu dituen aldizkari ta liburu-*en* eskariz, ordeaz beren lanak bialduko dituztela esanaz. Ontzat artu da Euskaltzaindiak argitaratutako lanak bialtzea eta emendik aurrerantzean ere bialtzen jarraitzea. Eta, trukean beren lanak eskatuaz eta eskerrak emanaz idaztea erabagi da.

Garmendia jaunak aditzera eman du Jose Antonio Mujika jaunak **Los apellidos de Iberia** eta **El euskera ante las demás lenguas** izeneko bere liburuak emoten dituela Euskaltzaindiarentzat. Eskerrak eman bekioz.

Eguneko gaiak dion bezala abenduko batzarra Iruñean egin nai da, illaren 20-an, Enrike Zubiri «Manezaundi»-ren eun urte betetzea danez ohorrezko bilkurarekin batean. Diputazioneari ortarako gela eskaria egin. Bilkura goizeko amaiketari izango litzake eta ondorenean itzaldiak: Sa-*tr*ustegi jaunak «Manezaundi»-ren bizitzari buruz eta Irigaray jaunak idazlanari buruz.

Zaldibian Iztueta-*ren* omenez egingo diran jaialdien berri eman da.

Euskaltzainburuak Andima Ibinagabeitia euskaltzain laguntzaillearen il-berria eman du. Idazkariak aditzera eman du, Andima-*ren* bizitza eta

laneri buruz oar batzuek gertatu dituela EUSKERA aldizkarirako. Etxaniz jaunak dio abenduaren 17-an, eguerdiko 12-etan izango direla Lazkao-ko beneditarretan Andima-ren illetak, eta 8-an, goizeko 10 1/2 etan Donostiako jesuitetan, Garibay kalean.

Loidi jaunak, eskola testoak antolatzen ari dan batzordearen berriak eman ditu: Aritmetika iztegiaren zeaztasunak adierazi ditu. Iztegi onek kopia bana Lafitte, Basterretxea «Oskilaso» eta Mitxelena jauneri bialtzea erabagi da. Aien iritziak ikusi ondorean batzordearen erabagia on-tzat artu al izateko.

Euskera eskoletan sartzeko, ume euskaldunei euskeraz idazten eta irakurtzen erakutsi al izateko, Madrillera Ministroagana joatea erabagi da, ortarako izendatua dan batzordekoetatik bi edo iru lagun. Bestalde, maixu ta maistren euskeraganako gogoia jakiteko enkuesta eran azter-keta jarraitu.

Irigoyen jaunak eta Berrojalbiz andreak eman dute Bizkaian eusko ikastolak duten giroaren berri.

Satrustegi jaunak eman du Nafarroan eusko ikastolen alde egiten ari diranaren berri.

Garmendia (Zeleta) jaunak eman du «Orix» zanaren meza ta illo-biaren berria. Guztia 54.556 peseta kosta omen da eta bildua 42.449 pe-seta dala. Illobia asmatu eta gertatzen egin duan lanagaitik Jose Migel Zumalabe jaunari eskerrak ematea erabagi da.

Donostiako Instituto Peñafloreda-n ikasleen eskariz euskerazko kla-seak ematen asiko diran berria eman da. Karta bat idaztea erabagi da, pozik ikusten dala esanaz eta laguntza eskeini-az. Baita ere, esanaz, obeto ikusiko genukeala asignatura konplementari bezala jarriko balute.

X. Gereño jaunak dio Bizkaiko aspaldiko auzo ikastolak bilinguis-mo eran jaritzea lortu bear litzakeala.

Zatarain jaunak **Edur, erur, elur** gaiari buruzko txosten bat irakarri du, formarik zaarrena zein litzakean adieraziz.

Idazkariak, L. Mitxelena jauna egin dion karta baten zatia irakurri du, nun adierazten duan oraingoz ezin duela agindu iztegiaren lenengo tomoa datorren urtean gertatu al izango duela, tokiz aldatzeak ekarri dion okerragaitik batez ere.

Irigoyen jaunak aditzera eman du Martin de Retana jaunarekin min-tzatu dala eta Azkue-ren **Cancionero Vasco** argitaratu nai duela urre-zteietan.

Lenago aipatu zan bezala, zenbait oar erantsi bearra dago, ta foto-litoz egingo denez, testu zaarrari aurrez eskuz deiak egin bearra dala, deiekin atzekaldean oarrak erantsi aal izateko. Lan au Zatarain eta A. Zabala jaunen esku uzten da.

Irigoyen-ek dio Diputazioak egin nai duen etxean Euskaltzaindiaren-tzat toki bat lortzeko aukera dagoala. Pozik entzun da, eta ortarako bear liraken urratsak ematea erabagi da.

Oitura dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN

## 1967 - XII - 20

Iruñean, Diputazioneko etxean, 1967-ko abenduaren 20-an, goizeko 11-etan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Diharce, Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Larzabal, Satrustegi, Villasante eta Zabala euskaltzainak; eta Akesolo, Arregi, Atxa, Basterretxea, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Etxaniz, F. Setien, Garde, Garmendia (Jon), Lasarte (Jose Manuel), Lekuona (Juan M.\*), Oñatibia, Oregi, Urmeneta eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance jaunak ezin etorria adierazi du.

Oitura dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Azaroko biltzarraren agiria ontzat artu da.

Diputación Foral de Navarra, Institución «Príncipe de Viana»-ren agiriaren berri eman da, beren etxea Euskaltzaindiari eskeini abenduko biltzarra eta «Manezaundi»-ren ohorezko biltzarra egiteko. Euskaltzainburuak, guztien izenean eskerrak eman ditu Nafarroako Aldundegiarentzat. Eta, ondorean, Enrike Zubiri «Manezaundi» nafar idazlearen izenean eta bere omenez biltzen gerala esan du.

Euskaltzainburuak Aita Emiliano Barandiaran karmeldar eta euskaltzain laguntzailearen il-berria eman du. Bijoaz gure dolu-miñak bere aidekoeri eta komentuko laguneri.

Irigaray jaunak eta idazkariak Ministerioarekin bilinguismoari buruzko ar-emanen berri eman dute, batzorde teknikoarekin mintzatzeko egunaren eskaria egin dala esanaz.

Ilbeltzeko billera, Euskaltzaindiaren urre-eztaietako lehen billera denez, Bilbon Euskaltzaindiaren etxean egitea erabaki da. Goizeko amai-kean izango da, eta eguneko gai bakarra, osorik, Urre-eztai urtea planifikatzea izango da.

Izan diran karteri buruz, Nafarroako Diputazionepan dagoan Institución «Príncipe de Viana»-ri, Uranga jaunaren izenera eskerrak ematea erabagi da, biltzar au egiteko tokia eman duelako.

Dassance euskaltzain jaunak Irigoyen jaunaren izenera bialdu duen kartaren berri eman da, tartean nun dion: «ikusi dut Azkue zenaren **Cancioneroa** berriz argitaratzeko asmoa badela. Orhoit niz liburu hoitan ene iduriko xuxendu behar litezken makur ttipi batzu ikusirik. Bilhatuko ditut, eta zuri igorriko...»

Gauza bera kontuan arturik, urrengo biltzarrerako deiakin batean euskaltzainkido guztieri Azkue-ren **Cancionero popular vasco**-ri buruzko oarrak eskatzea erabaki da.

Erkiaga euskaltzain jaun diruzainak ondasun-egoeraren berri eman du, urriko ta azaroko goraberak: Bilboko diru-etxeetan, zagona 110.149,23 peseta: geitua 11.976,90 eta urritua 28.514,98. Dagoena 93.611,15 peseta. aipagarrienetan 9.577 peseta alde eta 26.129 peseta gastuetan irten duena. Donostiako diru-etxeetan dagoana 370.519,37 peseta. Illeko zertzeladarik aipagarrienetan. 9.577 peseta alde eta 26.129 peseta gastuetan irten duena.

Idazkariak euskerazko izendegiaren berri eman du, batzordeak zelan eta zergaitik erabagiak artu dituen esanaz, izen zaar eta berri, izenen



ondorean beren iturburu edo zenbait agiri emanaz egiña danez.

Berrondo jaunak aritmetika iztegiaren berri eman du, eta gai oni buruz ortarako izendatua dan batzordearen esku uzten da azken itza.

Idazkariak esan du Boletín de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría-ko zuzendarietako diran Jabier Muguruza eta Jose Luis Rodríguez Ansorregi mediku jaunak beren «Boletín» orretan, lan batzuen ondorean euskerazko laburpenak jarri nai dituela beren gaiari buruz eta Euskaltzaindiaren laguntza nai dutela. Pozik entzun da eta Euskaltzaindiko diran mediku eta botikarioen izenak aieri emanaz gure laguntza eskeiñi.

«Principe de Viana» Institutzioak illero argitaratzen duen euskerazko orriak zabaldu dira batzarkideen artean.

Marzelino Garde jauna mintzo da euskaltzain laguntzaille bezala bere izendapen orregaitik eskerrak emanaz, Erronkariko «uskaraz». Eta Nafarroako erri batean arkitu duen eskuz idatzitako euskerazko kristau ikasbide liburuxka baten berri eman du. Ez du egille izenik, ez eta ere zein erritan egiña den.

Urmeneta jaun euskaltzain laguntzaillearen agurrezko itz samurrekin bukatu da biltzarra, oitura dan otoitza egin ondorean.

### **«MANEZAUNDI»-REN GORAZARREZ**

Biltzar ondorean, Diputazioneko gela nagusian, agirizko biltzar eta itzaldiak izan dira.

Diputazioneko buru den Felix Huarte jauna eta Euskaltzainburua maiburuko direla.

Lehenbizi Euskaltzainburuak itz batzuk esan ditu, Euskaltzaindiaren izenean, batzartuak eta «Manezaundi» zenari.

J. M. Satrustegi, Nafarroako euskaltzain jaunak, itzaldi labur bat eman du «Manezaundi» nor zen eta nolako euskaltzalea zen adieraziz.

A. Irigaray-k, Nafarroako euskaltzainiña au ere, beste itzaldi labur bat eman du «Manezaundi»-ren euskera eta idazkeari buruz.

Biak jaso dituzte txalo beroak, eta ondorean, bukatzeko, Lekuona Euskaltzainburuak bi itz esan ditu entzuleeri eskerrak emanaz.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN





## AURKIBIDEA 1968

|                                                                   |     |
|-------------------------------------------------------------------|-----|
| Gaur S. C. I.—El vascuence en los actuales niños de Guipúzcoa ... | 5   |
| Isaac López-Mendizabal.—Etimología de Xabier ...                  | 73  |
| R. P. Dámaso de Inza.—Navarra, edo Naparroa ote da? ...           | 83  |
| Manuel Lecuona.—Di, Botanika-atzizti? ...                         | 87  |
| José M. <sup>a</sup> Satrústegui.—Di botanika atzizkia? ...       | 93  |
| N. Alzola Guerediaga.—XIX Gizaldiko Euskal-Eskutitzak ...         | 103 |
| Justo Gárate.—Jovellanos ...                                      | 107 |
| Justo Gárate.—El segundo trabajo de Aizkibel ...                  | 119 |
| Txillardegi.—Hika eta zuka-ko aditz-joko edo Konjugazioaz ...     | 127 |
| <b>ARANTZAZUKO BILTZARRAK</b> ...                                 | 137 |
| M. Lekuona.—Euskeraren batasuna ...                               | 139 |
| <b>Literatura esukeraren batasunari buruzko biltzar nagusiak</b>  |     |
| Arantzazun ...                                                    | 142 |
| A. Luis Villasante, O. F. M.—Batasunari buruz Bibliografia ...    | 145 |
| S. Garmendia.—Deklinazio ...                                      | 151 |
| Zatarain-darr Ambrosi.—Euskerazko itz berriak ...                 | 163 |
| A. Luis Villasante, O. F. M.—Antziñako euskal hitzen formaz.      | 175 |
| Luis Mitxelena.—Ortografía ...                                    | 203 |
| Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka ...               | 221 |
| Elkar-hizketak ...                                                | 237 |
| M. Lekuona.—Azken-itiz ...                                        | 249 |
| Euskaltzaindia.—Literatura euskeraren batasunari buruz Eus-       |     |
| kaltzaindiaren agiria ...                                         | 250 |
| Batasunerako hiztegia ...                                         | 251 |

|                                                                                                                    |     |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| BERRIAK ETA GAI LABURRAK                                                                                           | 267 |
| Al Excmo. Sr. Ministro de Educación y Ciencia                                                                      | 267 |
| Ministerio de Educación y Ciencia                                                                                  | 269 |
| Visita al Ministro de Educación y Ciencia                                                                          | 269 |
| L. Mitxelena.—Euskaltzaindiaren euskal-iztegiak                                                                    | 270 |
| Intza'r Damaso.—Euskaltzaindiko nere lendabiziko lagunak                                                           | 271 |
| Nuevos miembros de número                                                                                          | 273 |
| Nuevos miembros de honor                                                                                           | 273 |
| Nuevos miembros correspondientes                                                                                   | 273 |
| Gure hilak                                                                                                         | 274 |
| Académicos de número                                                                                               | 275 |
| Académicos de honor                                                                                                | 276 |
| Académicos correspondientes                                                                                        | 276 |
| Migel Arrutza Egia                                                                                                 | 280 |
| Zirilo Anzubiaga (1874-1966)                                                                                       | 280 |
| Aita Kandido Izagirre O. F. M. il da                                                                               | 281 |
| Andima Ibinagabeitia Idoyaga (1907-1967)                                                                           | 281 |
| Julian Barandiaran Kortazar «Aita Emiliano» (1904-1967)                                                            | 282 |
| Pierre Duhour (1890-1968)                                                                                          | 283 |
| Toribio Echevarria Ibarbia (1887-1968)                                                                             | 283 |
| Ramón Menéndez Pidal (1869-1968)                                                                                   | 284 |
| Bizente Amezaga Aresti                                                                                             | 285 |
| Joxe Olaizola joan zaigu                                                                                           | 285 |
| S. Garmendia.—Indeterminazioari datxekon aditza singularrean                                                       | 287 |
| Jazinto Carrasquedo Olarra 1965 urteko «Toribio Alzaga» teatro sariaren irabazle                                   | 290 |
| Gabriel Aresti 1965 urteko «Lizardi» poesia sariaren irabazle.                                                     | 290 |
| Manuel Matxain 1965 urteko «Xenpelar» sariaren irabazle.                                                           | 290 |
| Iñigo Urroz de Heredia «Gernika» ensayo sarietan aurrena eta Sabino Alonso ipuietan                                | 291 |
| Dominique Peillen 1966 urteko «Domingo Agirre» novela sariaren irabazle                                            | 291 |
| Ibon Sarasola 1966 urteko «Lizardi» poesia sariaren irabazle.                                                      | 291 |
| Inozenzio Olea 1966 urteko «Xenpelar» sariaren irabazle                                                            | 291 |
| Juan Antonio Letamendia «Kirikiño» sariaren irabazle                                                               | 292 |
| Euskal-Herriko bertsolarien azken txapelketa nagusia Donostiako Anoeta frontoian 1967 urteko garagarrilaren 11-an. | 292 |
| Agustin Zubikaray 1967 urteko «Toribio Alzaga» teatro sariaren irabazle                                            | 292 |

|                                                                                          |     |
|------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1967 urteko «Lizardi» poesia saria ... ..                                                | 292 |
| Manuel Matxain 1967 urteko «Xenpelar» sariaren irabazle ...                              | 292 |
| 1968 urteko «Txomin Agirre» nobela saria Txillardegiren Elsa<br>Scheelen nobelari ... .. | 293 |
| Kalonje 1968 urteko «Xenpelar» sariaren irabazle ... ..                                  | 293 |
| Agustin Zubikaray 1969 urteko «Toribio Alzaga» teatro saria-<br>ren irabazle ... ..      | 293 |
| Juan San Martín.—Bodas de oro de la Academia de la Len-<br>gua Vasca ... ..              | 293 |
| Euskal Akademiaren agiriak ... ..                                                        | 299 |